SEXU-HEZKUNTZA HEZKUNTZA-SISTEMAN INTEGRATZEKO PROGRAMA.

IRAKASLEENTZAKO GIDA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA DEPARTAMENTO DE SALUD

Javier Gómez Zapiain

Josean Pinedo Fernández

Aurkibidea

Lehen zatia 7

1.- Programaren aurkezpena. 9

1.1.- Programaren inguruko azalpen kontzeptualak 10

1.2.- Sexu-hezkuntzaren normalizazioa euskal hezkuntza-sisteman 12

1.3.- Hezkuntza-agintarien inplikazioa 12

1.4.- Sexu-hezkuntza hezkuntza-sisteman integratzea, hezkuntza-berrikuntzarako ildo. 13

2.- Programa honen erreferentziazko hezkuntza-eredua 17

2.1.- Arriskuak prebenitzera zuzendutako sexu-hezkuntza 17

2.2.- Sexu-hezkuntza, hezkuntza moral gisa 17

2.3.- Sexu-hezkuntza, gizarte-iraultzarako baliabide gisa 18

2.4.- Sexu-hezkuntza profesionalizatua, demokratikoa edo irekia 18

2.5.- Eredu biografiko-profesionala, programa honen funtsezko erreferentzia 19

3.- Pertsonen arteko harremanen etika 21

3.1.- Baimenaren etika. 23

3.2.- Plazer partekatuaren etika 23

3.3.- Sexu-osasunaren etika 24

3.4.- Leialtasunaren etika 24

3.5.- Berdintasunaren etika 24

3.6.- Loturaren eta desloturaren etika 25

3.7.- Utopiaren etika: zainketa 25

4.- Sexualitatearen kontzeptua. Hizkuntza komunaren bila 26

4.1.- Sexualitatearen kontzeptua eta sexu-hezkuntza 27

5.- Sexualitatearekiko jarreraren eta jarreren egitura 28

5.1.- Sexu-erruduntasun sentimenduak 31

5.2.- Erotofobia - erotofilia dimentsioa 32

5.3.- Sexismoa eta heterosexismoa 33

5.4.- Homofobia eta transfobia 34

5.5.- Sexualitatearekiko jarreren eragina heziketa-prozesuan 35

6.- Garapen psikosexuala DBHn 36

6.1.- Sexu- eta genero-identitatea 38

6.2.- Desira erotikoa 39

6.3.- Lotura afektiboa 40

6.4.- Identitatearen, lotura aftektiboaren eta desira erotikoaren batura 42

Bigarren zatia 43

7.- Sexu-hezkuntza hezkuntza-sisteman integratzea 45

7.1.- Sexu-hezkuntza 47

7.1.1.- Hezkuntza afektibo-sexuala terminoaren inguruan 48

7.1.2.- Sexu-hezkuntzaren helburuak 49

7.1.3.- Hezitzaileen zeregina sexu-hezkuntzan 50

7.1.4.- Gurasoen zeregina sexu-hezkuntzan 51

7.2.- Tutoretzaren eta ezagutza-arloen funtzioa sexu-hezkuntzaren integrazioan 52

7.2.1.- Tutoretzaren zeregina sexu-hezkuntzaren integrazioan 52

7.2.2.- Arloen zeregina sexu-hezkuntzaren integrazioan 54

8.- Curriculum-proposamena 57

8.1- DBHko lehenengo eta bigarren mailak 57

8.2.- DBHko bigarren maila bukatutakoan izan beharreko gaitasunak 60

8.3.- DBHko hirugarren eta laugarren mailak 62

8.4.- DBHko laugarren maila bukatutakoan izan beharreko gaitasunak 64

8.5.- Sexu-hezkuntzaren helburuak, curriculum-edukiak, eduki espezifikoak eta hura ebaluatzeko ikasgaien araberako irizpideak 66

8.5.1.- Natura zientziak 67

8.5.2.- Gizarte-zientziak, geografia eta historia 72

8.5.3.- Euskal hizkuntza eta literatura, gaztelania eta literatura, eta atzerriko hizkuntza 76

8.5.4.- Herritartasunerako hezkuntza eta giza eskubideak (oro har, 2. mailan) eta hezkuntza etikoa eta herritarren hezkuntza (4. maila) 80

9.- SEXUMUXU aplikazioa 88

9.1.- Zer da SEXUMUXU? 88

9.2.- Zeini dago zuzenduta? 88

9.3.- Zer gaitasun biltzen ditu SEXUMUXUk? 89

9.4.- Sexumuxu aplikazioa erabiltzeko moduak 89

9.5.- SEXUMUXUko testuingurua, pertsonaiak eta jokalekuak 89

9.6.- Aplikazioaren egitura eta edukiak 93

9.6.1.- SEXUMUXUn garatutako jarduerak 93

9.6.2.- Sexumuxuko eduki teorikoak: 109

10.- Ebaluazioa, mailak eta proposamenak 112

10.1.- Sexu-hezkuntzako gaitasunen ebaluazioa 112

10.1.1.- Ebaluazioaren hasierako proba. 115
10.1.2.- Ebaluazio prozesuala eta formatzailea 117
10.1.3.- Amaierako ebaluazioa edo ebaluazio sumatiboa 118
11.- Bibliografia 120

Lehen zatia

1.- Programaren aurkezpena.

Europar Batasuneko eta munduko herrialde askotako herritarren iritzian, hezkuntzak jendea gizarteratzeko prestatzea izan behar du helburu, ildo horretan lortutako akordioek adierazten duten bezalaxe.

Akordio horietan, ikasleek derrigorrezko hezkuntzan lortu beharreko oinarrizko gaitasunak definitu dira esplizituki. Helmuga partekatua erdietsi da, eta erronka berriak zehaztu dira hezkuntza formalaren zein ez-formalaren eragileentzat. Kulturartekotasunak, IKTek, ezagutzen iraungipenak, behar emozionalek, ingurune berriek, garapen iraunkorrak eta gizarte-eskakizun berriek erronka berriak sortzen dituzte, oinarrizko gaitasunak behar bezala garatzeko metodologia eta proposamen berriak.

Ikasleek oinarrizko gaitasunak bereganatzeari dagokionez, hezkuntzaren orientazio berriak aldaketak eragin ditu hezkuntza-sisteman, bai eta gizartearen beste esparru batzuetan (familia, nerabe-taldeak, aisialdi-jarduerak) eta ikastetxeen nahiz gizarte-eragileen kulturan ere; horiek guztiak pixkanaka eta era antolatuan eraman behar dira aurrera. Aldaketak curriculumeko edukietan, helburuetan, horien antolakuntzan eta erakundeen funtzionamenduan du eragina.

Programa hau Osasun eta Kontsumo Sailak Euskal Herriko Unibertsitateari emandako enkargua betez sortua da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan hezkuntza afektibo-sexuala integratzeko proiektua egiteko eskatu baitzion, hezkuntza-eskakizun eta gizarte-erronka berriei egokituta. Testuinguru horretan, ezinbestekoa da sexu-hezkuntzarekin lotutako programa berriak sortzea, eta horrek ikasteko metodo eta tresna berriak eskatzen ditu, nerabe eta gazteei zuzendutakoak.

Programa hau sexu-hezkuntza hezkuntza-sisteman integratzeko diseinatuta dago. Azken hamarkadetan, sexu-hezkuntza eskolan irakasteko modu erabiliena kanpoko profesionalen kontratazioa izan da, ikasleei zuzendutako hitzaldi, ikastaro edo mintegiak antolatzeko helburuarekin; hori da ondorioztatzen dena programa honek euskarritzat hartu duen EAEko nerabeen sexu-portaerari eta sexu-hezkuntzaren egoerari buruzko ikerketatik (2012). Argi dago jarduteko modu hori ez dela nahikoa. Denbora igaro ostean, baina, ikasle gehienek anekdota gisa baino ez dituzte gogoratzen mintzaldi haiek; hortaz, eragin txikia daukate esparru afektibo-sexualean moldatzeko gaitasunen trebakuntzan.

Datuek erakusten dutenaren arabera, sexu-hezkuntzaren alorreko emaitzak nabarmen hobe daitezke, kontuan hartuta borondatez eteten diren haurdunaldien eta koitoaren osteko pilularen tasek, gutxitu ordez, handitzeko joera dutela.

Hezkuntzaren ikuspegitik, plan honek balioa eman nahi die eskolaren baliabideei; hau da, bizitzarako gaitasunak eskuratzeko potentziala garatu nahi du, ezagutzetan, trebetasunetan eta prestasun etikoetan oinarrituta.

Ez du, beraz, programa arrunt bat aplikatu nahi, prozesu bat ireki baizik. Eta prozesu horren amaierako helburua hezkuntza-sisteman sexu-hezkuntza diziplinarteko ikuspegian oinarrituz txertatzea izango da, hezkuntza-maila guztiak bukatu ostean beharrezkoak diren gaitasunak bermatuta izateko.

1.1.- Programaren inguruko azalpen kontzeptualak

Prestakuntza formalarekin paraleloan doazen ikasgai ugari, pertsonen prestakuntza integrala erdiesteko beharrezkoak direnak, hezkuntza-sisteman esku hartzeko programa gisa planteatu ohi dira. Hamaika gai garrantzitsutzat hartutako gaiak, eta, horrenbeste izanik, azkenean programa gisa formulatzen dira eta eskolan lantzen. Aho-hortzetako osasun-programa, modu osasungarrian elikatzekoa, hiesa prebenitzekoa, ingurumen-sentsibilizaziokoa, hezkuntza ez-sexistaren aldekoa, emakumeenganako edo kidekoenganako biolentzia prebenitzekoa, bizikidetzarakoa, Donejakue Bidea sustatzekoa, eta beste hainbat eta hainbat.

Irakasle asko eta asko —zuzendaritzako ardurak dituztenak, batez ere— kexu dira, gizarte-talde ugarik eskolan presio handia jartzen baitute aipatutako programen edo beste batzuen aplikazioaren inguruan.

Ikuspegi estrategiko batetik, ez da sexu-hezkuntzako programa arrunt bat egiteko presioa, eskolan leku egiteko beste programekin lehiatu beharko dena; aitzitik, helburua sexu-hezkuntza hezkuntza-sisteman integratzeko programa bat eskaintzea da, ikasgai horren curriculum-garapenari babesa ematea eta informazioaren teknologia berriak oinarri hartuta.

Elkarrengandik isolatutako konpartimentu iragazgaitz bihurtu ordez, programak integratzea eta partekatzea da xedea. Sexualitatearen izaera dela eta, sexu-hezkuntzaren barruan bizikidetza, etikaren osasuna eta balioen sustapena bildu behar dira ezinbestean. Hortaz, beste programekiko irekia izan behar du. Horregatik, programa kontzeptuaren inguruko gogoeta labur bat proposatzen dugu.

«Programa» kontzeptuak hainbat adiera ditu. Guk ondoko hauek nabarmenduko genituzke:

1.- Ikasketa-plana. Ikasketen antolaketa. Ikasturte edo ikasgai bat osatzen duten ikasgaien sistema eta banaketa, hezkuntza-agintariek eta azaltzeko ardura duten irakasleek prestatzen eta argitaratzen dituztenak.

2.- Helburu bat edo gehiago lortzera bideratutako ikasgaian egingo denaren aurretiko adierazpena.

3.- Aurrez zehaztu eta adierazitako xedeak erdiesteko antolatutako jardueren programa antolatua.

4.- Jada sistematizatutako aurretiko jarduerak inplementatzeko, bultzatzeko edo optimizatzeko ekintzen multzoa.

Giza sexualitateak dimentsio ugari dituenez, diziplinarteko ikuspegia baliatuz landu behar da. Beraz, ezin dugu, zentzu hertsian, «sexu-hezkuntzako programa» batez hitz egin; izan ere, lehenengo adieraren arabera, hezkuntza-programa orokor batean bilduta egongo litzateke; hots , eskola-curriculumean.

Dena den, diziplina, ezagutza-arlo edo sail bakoitzari dagozkien sexu-hezkuntzako programez hitz egin beharko genuke, hezkuntza-sistemaren berezko antolakuntzari jarraikiz. Kasu honetan, hirugarren adierari helduko genioke, aintzat hartuta ezagutza-arlo bakoitzak sexu-hezkuntzako berezko programa izan beharko lukeela; alegia, curriculum-programak aurrez definitutako eta finkatutako xedeak lortzeko jarduera-multzo ordenatua.

Ez litzateke bidezkoa edo zehatza izango esatea hezkuntza-sistemak ez diola ekarpenik egiten giza sexualitatearen ezagutzari. Beste gauza bat da, atal honen hasieran aipatutako arrazoiak direla bide, landutako edukiak eskasak izatea. Kasu horretan, «programa» kontzeptuaren laugarren adiera erabiliko genuke; hau da, eskolatze-aldian zehar emandakoa inplementatzera, bultzatzera eta optimizatzera bideratutako jarduera-multzoa.

Ondorioz, sexu-hezkuntzako «programa» kontzeptuak —programa honetan mantenduko dugunak— hurrengo puntu hauek hartzen ditu:

1.- Ikasleriaren curriculum-programan hezkuntza afektibo-sexuala txertatzera zuzendutako estrategien multzoa, hezkuntza-agintariei eta gainerako hezkuntza-komunitateari eragiten diena (irakasleei, ikasleei eta gurasoei).

2.- Ezagutza-arlo bakoitzari dagozkion berariazko programen multzoa, lortu nahi diren xedeen aurretiko azalpenarekin.

3.- Jarduera- eta jarraibide-multzo ordenatua, material teorikoz eta praktikoz hornitua, non teknologia berrietan oinarritutako baliabideek gero eta garrantzi handiagoa daukaten.

4.- Eskolan egindako lana inplementatu, sustatu eta optimizatuko duten jardueren multzoa, helburu hauek dituztenak: osasun afektibo-sexualaren estandarrak hobetzea, eurekin lotutako arriskuak prebenitzea, indarkeriaren adierazpen guztiak errotik ezabatzea, eta harremanen etika sustatzea.



1. Grafikoa. - Hezkuntza afektibo-sexualari buruzko programaren plan orokorra.

1.2.- Sexu-hezkuntzaren normalizazioa euskal hezkuntza-sisteman

Programa honen funtsezko helburua ez da aurreko puntuko hirugarren adiera oinarri hartuta programa sinple bat sortzea. Asmo handiagoko xedea du: dimentsio afektibo-sexuala curriculum-proiektuan sartzea, alegia. Horregatik, ikuspegi estrategikotik, programa honen ildo garrantzitsuetako bat hezkuntza-sistemaren berezko baliabideak optimizatzea izan behar da; izan ere, sexualitatearen alorreko gaitasunen edukien zati handi bat derrigorrezkoak diren ikasgaien programetan jasota dago.

Beraz, normalizatu egin beharko litzateke sexualitateak hezkuntza-sisteman jasotzen duen tratamendua. Estrategikoki, hezkuntza-sistemak bere lekua izan behar du, sexu-hezkuntzarekin lotutako gaiak sendotu eta zorroztasun zientifikoarekin landu daitezen, programa honetan jarraitutako eredu biografiko pertsonalaren arabera.

1.3.- Hezkuntza-agintarien inplikazioa

Sexu-hezkuntza hezkuntza-sisteman normalizatzeko, hezkuntza-agintariek esku hartzea eta osasun-agintariek babesa ematea nahikoa izan beharko litzateke. Azken hamarkadetan, hainbat legeren bidez garatu da sexu-hezkuntza, baina, garapen hori bideratzeko ildo garbirik jorratu ez denez, ikastetxeen eta irakasleen esku gelditu da haien aplikazioa. Emaitza gisa, sexu-hezkuntza boluntarismoari esker garatu da batzuetan, eta kanpoko profesionalen lanari esker besteetan.

Beraz, puntu horretan, sexualitatearekin lotutako edukiak ikasgaien bitartez emango direla bermatu beharra dago. Jakina denez, sexu-hezkuntza ez da edukiak irakastera mugatzen; horrez gain, gaitasunak landuz, trebetasunak eskuratzean era badatza. Hartara, ezinbestekoa da lan egiteko guneak egitea —banaka zein taldeka— eskolatze urteetan. Horretarako, ezinbestekoa da alderdi hauek bermatzea:

a.- Sexu-hezkuntza hainbat arlotan ikusaraztea: hezkuntza-agintariek eskainitako baliabideetan, eskola-programetan, irakasleen prestakuntzan, baliabide didaktikoetan, teknologia berrietan oinarria duten baliabide elkarreragileetan (Eskola 2.0 kasu), etab.

b.- Hezkuntza afektibo-sexualaren inguruko gaitasunen programazioak gainbegiratzea eta jarraitzea.

c.- Hezkuntza-zerbitzuek —ikuskatzaileak eta Berritzeguneek, batez ere— ikastetxeen barneko dinamikan esku-hartze praktikoa izatea, ikastetxeei beren programazioak hezkuntza afektibo-sexualaren edukiak barne hartuta sortzen laguntzeko, eta xedeak erdiesteko beharrezkoak diren baliabide didaktikoak emateko.

Historian zehar frogatu egin da programa itxiak —curriculumaren osagarriak, bertan integratuta egon ordez—, galdu egiten direla; izan ere, programon emaitzak urriak izan dira. Sexu-hezkuntzaren inguruan egun planteatzen diren galderak duela hogei urte egiten zirenen oso antzekoak dira, edo berdinak.

Hezkuntzaren aldetik berritzaileak diren proiektuen garapenaren bidez baino ezingo da sexu-hezkuntza curriculum-garapenean sendotu eta normalizatu. Programa bat arrakastatsutzat joko da baldin eta programak aplikatu beharrik ez izatea lortzen badu. Hau da, behar afektibo-sexualak kudeatzeko beharrezkoak diren gaitasunak lortzeko edukiak eskolan ematen direnean, naturaltasun osoz. Horretarako, hezkuntza- eta osasun-autoritateen babesa ezinbestekoa da.

1.4.- Sexu-hezkuntza hezkuntza-sisteman integratzea, hezkuntza-berrikuntzarako ildo.

Hezkuntzaren berrikuntza ikastetxeetako prestakuntza etengabe hobetzeko prozesu baten moduan ulertu behar da. Berritzeak aldaketak eragitea esan nahi du, horietara hobeto egokitzea, krisiei erantzun eraginkorragoak ematea, etorkizuna orainalditik abiatuta prestatzea, norberaren sormenaren eta gizarteratzearen alde egitea, eta elkarbizitza nahiz gizabanakoen bizitza hobetzea.

Egun, hezkuntza-berrikuntzako ekintzetan irakasleek duten partaidetza areagotzeko ekimenak bultzatzen ari dira. Irakaskuntzaren jarduera gehiago balioetsiko duten lan-ildoak ezarri nahi dira, kideak identifikatuko dituena, ahalegin berritzaileei jarraitutasuna emango dioten irakasleen elkarte iraunkorrak bultzatzeko, euren lanari buruzko gogoeta sakonagoa eta autoebaluatzeko modu eraginkorragoak ahalbidetuz. Hala, emaitzek proiekzio eta hedapen handiagoa izango dute, partaideek prestakuntza hobea izango dute, eta berrikuntza-proiektuak eraginkorragoak izango dira.

Hezkuntzaren arloa berritzera zuzendutako jarduera guztietan, aldaketa sakonak antzeman daitezke irakasteko eta ebaluatzeko metodoetan, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen kalitatea etengabe hobetze aldera. Hona hemen esparru horretako joera metodologikoak:

a) Zeregin aktiboagoa izan behar duten prozesuetan, irakasleen inplikazioa areagotzea.
b) Irakasleen eta ikasleen arteko elkarreragina handitzeko estrategiak garatzea.
c) Talde-lana, aniztasuna eta talde-arteko lankidetza sustatzea.
d) Irakaskuntza ikasleek bereganatu behar dituzten gaitasunen arabera antolatzea.
e) Ikerketa eta ekintza areagotzea.
f) IKTak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan sistematikoki erabiltzea.
g) Eraginkorragoak diren ebaluazio-tresna eta -prozedurak sortzea.

Berrikuntza-prozesu horrek guztiak ikaskuntza-metodo berriak garatzea eskatzen du, eta irakaslearen rola aldatzea, ikasleen gida modukoak izan daitezen, ikasleei baliabideak eskainiko dizkietenak, eta ikasketa-prozesuan parte hartzen lagunduko dietenak. Alde horretatik, jarduera berriak sustatzen ari dira eskolan zein eskolatik kanpo, heziketa-prozesuaren kalitatea hobetzeko, xedeak erdiesteko (ikasten duten pertsonen errealitatera gehiago hurbilduz) eta, ondorioz, parte-hartzaileen gogobetetzea eta motibazioa areagotzeko.

Hezkuntza-berrikuntzak, azken batean, ohiko irakaskuntza-moldeak aldatzea eskatzen du, eta ikaslea laguntzeko mekanismoak birplanteatzea. Banakoari hobeto egokitzeko moduan diseinatu beharko dira, beraz. Hauxe da egin

beharrekoa:

a) Ikasle berriak hartzeko eta gizarteratzeko sistemak eta prozedurak hobetzea eta sustatzea.
b) Ikasleen prestakuntza integrala sustatzea (profesionala eta pertsonala).
c) Ikasleen autonomia eta bizitza osoan zehar ikasteko kultura sustatzea, norberaren behar eta erritmoetara egokituz.
d) Hainbat gaitasun lantzea: gaitasun analitikoa eta sintetikoa, erabakiak hartzea, gatazkak konpontzeko orduan gizarte- eta denbora-testuinguruak kontua hartzea...
e) Bokaziozko orientazioa eta tutoretza-jardueren errendimendua hobetzea.
f) IKTen erabilera egokia bultzatzea.

Egungo gizartean erraztasun handiak daudenez IKTak erabiltzeko, arlo guztietan aldatu egin dira jokabideak; hala, zabaldu egin dira ikasteko moduak, gazteek informazio-iturri ugari kontsultatzeko aukera dutelako. Errealitate hori era naturalean integratu behar da hezkuntzan. IKTek ematen dituzten aukerak asko dira, eta oso zabalduta daude. Asko dira irakaskuntzara bideratutako tresna teknologikoak ere, baina oraingoz garatzeke daude pedagogiaren aldetik ematen dituzten aukerak. Horregatik, interes handikoa da irakasleak honako hauek behar bezala erabiltzera bultzatzea eta horietan trebatzea: teleirakaskuntzako plataformak, lankidetzarako tresnak, irakaskuntzako baliabide eta edukien biltegiak, ezagutza kudeatzeko tresnak, eta ebaluazio eta autoebaluaziora bideratutako garapen teknologikoak. Ezinbestekoa da, halaber, objektu digital hezigarriak dituzten material informatiko, baliabide digital, web-orrialde, blog eta software egokiez hornitzea.

Gida honetan aurkezten dugun proiektua, sexu-hezkuntza hezkuntza-sisteman integratzera bideratuta dagoena, hezkuntza-berrikuntzaren barruan sartzen da, eta informazioaren eta komunikazioaren tekniken (IKT) berezko baliabideak erabiltzen ditu funtsezko ardatz gisa. Aurreko puntuan adierazi bezala, ez da programa baten aplikatze soila; aitzitik, sexu-hezkuntzaren oinarrizko elementuak curriculum-proiektuan integratzean datza. Programak bi ildo ditu:

a) Curriculum-edukiak ezagutza-arloen bitartez betetzea[1]. Horretarako, programak dagozkien testuen bidez ematen ditu oinarrizko edukiak.

b) Ikasleen prestakuntza autonomorako baliabideak, objektu digital hezigarrien bidez. Programa honetan, baliabide horiek SEXUMUXU aplikazioaren bidez aurkezten dira.

Proiektu berritzailea den aldetik, metodologia berriak, eduki eguneratuak eta prozesuaren ebaluazio jarraitua ditu indargune. 2. grafikoan datorren eskemak esku-hartze berritzailearen organigrama erakusten du. Programa honetan, eragileak honako hauek dira:

Ikasleak dira programaren protagonista. Proiektuaren helburu nagusia hauxe da: ikasleak behar afektibo eta sexualak garatzeko behar dituzten gaitasunez hornitzea, bai eta haien inguruko erabakiak hartzeko ere.

Berritzeguneak koordinatzea, dinamizatzea, orientatzea eta aholkuak ematea ditu eginkizun. Zuzenean hartuko du parte sexu-hezkuntza ikastetxeetan integratzeko orduan, eta informazioaz, prestakuntzaz eta dinamizazioaz arduratuko da. Tartean dauden zuzendaritza, sail eta irakasleekin harremanetan jarriko da, eta aholkuak emango dizkie, helburuak ahalik eta hobekien erdietsi ahal izateko programazioak prestatzeko, eransteko eta

[1] Kapitulu hori edukiei buruzkoarekin alderatu.

ebaluatzeko.



2. Grafikoa. - Sexu-hezkuntza, hezkuntza-sistema berritzeko prozesu.

Zuzendaritzak (zuzendaritza-taldeak) ikastetxeko curriculum-proiektuaren garapenaren gaineko erantzukizuna izango du; prozesua erraztuko du, eta ildo nagusiak gainbegiratuko ditu. Informazioa klaustrora eta familiei helarazteaz arduratu behar du, mailen arteko komunikazioa hobetzeko xedearekin. Ikastetxeetako zuzendaritzek irakasle eta sailei jakinarazi eta orientazioa eskainiko diete programazioak egin eta lehentasunezko alderdiak garatuko diren modu eta baldintzen, berrikuntza-ildoen eta, bereziki, curriculumaren zehaztapen praktikoen inguruan. Bereziki garrantzitsua da hori, ikasgelatik bertatik –non berrikuntza-prozesua gauzatzen baita– berritzen hasteko eta irakasle eta ikasleen partaidetza aktiboagoa izateko bide ematen duelako.

Irakasleak heziketa-jardueraren benetako igorleak dira, eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren sustatzaileak. Haien profesionaltasuna hezkuntzaren zerbitzura jarriko dutelakoan gaude, sexualitatea ondo ulertzeko behar beste ezagutza transmititu beharko baitizkiete ikasleei, haien gaitasun profesionalaz baliatuz. Zentzu horretan, gogoratu behar dugu programa honen sexu-hezkuntzarako hautatu dugun eredua biografiko-profesionala dela; horrenbestez, irakaslea ikasleen eta euren ongizate pertsonalaren eta sozialaren arteko bitartekaria izango da. Eta horixe da, zalantzarik gabe, hezkuntzaren oinarrizko helburuetako bat.

Ikuskatzaileak kanpo-ebaluatzaile lanak egin behar ditu. Ez du fiskalizatzen ibili behar; aitzitik, hezkuntza-helburuak betetzen diren begiratu behar du, ikastetxetik kanpo. Sexu-hezkuntzaren funtsezko edukiak curriculumekoak direla aintzat hartzeaz gain, jarrerazko arrazoiak direla-eta horiek baztertuak izaten direla gogoan izan behar du. Ikuskatzaileak eduki objektiboak, eguneratuak eta giza sexualitatearekin lotutakoak eskuratzeako orientazioa eman beharko die ikasleei, prozesua gainbegiratu eta edukiok jasotzeko eurek duten eskubidea bermatu. Hezkuntzako ikuskatzailearen funtzioa ezinbestekoa da prozesu honetan, sail bakoitzean egindako programazioei dagokienez, ikastetxeen inplikazioaren segimendua egin, kontrolatu eta ebaluatzen duelako. Hark aztertu behar du sailetako programazioek sexu-hezkuntzarekin lotutako gaiak jasotzen dituzten, modu egokian lantzen dituzten, eta oinarrizko hezkuntzarentzat aldarrikatutako gaitasunak planifikatzen eta lortzen diren.

Azpimarratu behar dugu ikuskatzailearen funtzioa ez dela kontrolatzea, ebaluatzea baino, eta ikastetxeari

etengabe hobetzea ahalbidetuko dion informazio kritikoa itzultzea duela helburu. 2. grafikoan ikusten dugun moduan, ebaluazioaren bidez, ikuskapenak zuzendaritzaren, irakasleen eta ikasleen arteko prestakuntza-fluxua bermatu behar du.

Aipatutako grafikoan, prozesuaren amaieran gertatzen den hurrengo ebaluazio maila ikus dezakegu. Ikasleei beren behar afektibo eta sexualak erregulatzeko beharrezkoak diren baliabideak ematea denez xedea, helburu hori zenbateraino erdiesten den ebaluatzeko aukera izan beharko genuke. Horretarako, adierazleak definitu beharrean aurkitzen gara. Informazio horri esker, DBH bukatzean ikasleak zer egoeratan dauden egiaztatu ahal izango du ikastetxeak, sexu-hezkuntzan aurreikusitako helburuei dagokienez. Datu horiek etengabeko hobekuntza-prozesua elikatuko duen beharrezko feedbacka osatuko dute. Dagokion kapituluan aztertuko ditugu hainbat mailatan egin beharreko ebaluazioarekin lotutako alderdiak.

2.- Programa honen erreferentziazko hezkuntza-eredua

Oraintsuko istorioan, egoera edo une historiko bakoitzari edo ideologia zehatzetan jatorria duten sexu-hezkuntzako ereduak beha daitezke. Félix Lópezek Educación sexual (1990) liburuan adierazitako moduan, bost eredu bereiz daitezke:

2.1.- Arriskuak prebenitzera zuzendutako sexu-hezkuntza

Eredu horren helburu nagusia arriskuak prebenitzea da. XX mendearen erdialdean sexu-portaeraren inguruan gertatutako ohituren liberalizazioan du abiapuntua; izan ere, aldi hartan, mundu-gerraren ostean, demokraziak garaitu egin zuen faxismoa, teknologiak aurrerapauso handiak eman zituen, emakumeen askapena gertatu zen –derrigorrean ama izateko beharra baztertu, eta metodo antikontzeptibo eraginkorrak erabiltzen hasi baitziren–, eta emakumeak lan-merkatuan sartu ziren. Aldaketa horien guztien ondorioz, aurrerapen handiak egin ziren familiaren legeriaren esparruan, dibortzioari edo haurdunaldia borondatez eteteari buruzko legeak orokortu ziren, metodo antikontzeptiboen erabilera zabaldu zen, etab. Hala ere, horien eraginez, nahi gabeko haurdunaldien kopurua igo egin zen gazteen artean, eta sexu-transmisiozko infekzioak ugaritu. Egoera horren aurrean, sexu-hezkuntza sustatzeko beharra agertu zen gizartean, sexu-jarduerak berezko dituen arriskuak saihesteko. Ereduak berebiziko garrantzia hartu zuen 80ko hamarkadan, hies gaitza agertzearekin batera.

Eredu horren barruan, bi korronte daude. Bata erabat teknikoa da, batik bat osasun-langileek bultzatutakoa. Helburua da arriskuak saihesteko baliatu behar diren teknikak eta prozedurak transmititzea gizarteari: higiene-neurriak hartzea, metodo antikontzeptibo eraginkorrak erabiltzea, preserbatiboa erabiltzea. Era berean, kutsatzeko bideen inguruko ezagutzak eta sexu segurua izateko teknikak transmititu behar direla nabarmentzen du. Eredu horren arabera, sexu-hezkuntzaren oinarrizko edukiak hauek izan behar dira: praktika arriskutsuak zein diren adieraztea, preserbatiboa nola erabili erakustea, eta kutsatzeko bideak zein diren ezagutaraztea. Metodologia, berriz, hitzaldietan, ikastaroetan eta publizitate-kanpainetan oinarritu behar da. Osasun-langileak izan ohi dira horren ardura duten teknikoak. Zenbait irakasle berariaz prestatzen dira prestakuntza hori emateko.

Eredu horren barruan dagoen beste korrontea moralista kontserbadoretzat har dezakegu. Jomuga bera du, baina ideologia jakin batetik abiatzen da. Ezkontzatik kanpo abstinentzia bultzatzea proposatzen du, eta gazteen artean kastitatea sustatzea, sexu-portaeraren eta arriskuen artean dagoen lotura ikusarazita. Metodologia hitzaldi, ikastaro eta sexu-hezkuntzako programetan oinarritzen da hemen ere, eta oro har ikastetxe konfesionaletan ematen.

2.2.- Sexu-hezkuntza, hezkuntza moral gisa

Eredu honen arabera, arriskuak saihesteko, informazioa izatea ez da nahikoa. Sexu-portaerari dagokionez, ez du gizarte liberalizatuaren jokaera ontzat ematean, eta sexu-hezkuntza printzipio moraletan oinarritu behar dela aldarrikatzen du. Printzipio horiek sinesmen erlijiosoekin lotuta daude; zehazki, fede kristau katolikoarekin. Eredu

honen helburua ezkontzeko eta familia sortzeko prestatzea da. Edukiak hauek dira: anatomia, ernalkuntza, haurdunaldia eta erditzea, familia, eta bere balioak. Familia-eredu tradizionalaren aldekoa da. Ez ditu beste familia-ereduak onartzen, ez-moralak, endekatuak eta legez kanpokoak direla uste baitu. Besteak beste, gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak, eta nesken eta mutilen artekoak ere lantzen ditu.

Eredu honek oso modu lerratuan aurkezten ditu sexualitatearen berezko edukiak. Zehaztasun handiz ematen ditu ugalketaren fisiologiaren xehetasunak, ezkontzarako prestakuntza delako, baina ez ditu aipatzen plazer erotikoaren esperientziarekin lotutako alderdiak eta horrek komunikazioan duen esanahia, ez eta, ugalketaz aparte, esperientzia horrek giza harremanetan dituen funtzioak ere. Kastitatea bultzatu nahi du gazteen artean. Prebenitzeko baliabideei dagokienez, berriz, horiek eskuragarri ez jartzearen aldekoa da, eta zalantzan jartzen du haien egokitasuna.

Eredu honek ez ditu, oro har, ezagutza zientifikoaren aurrerapenak ez balioesten ez aitortzen. Sexu-hezkuntza sistematikoa eskaini nahi du ikastetxeetan. Irakasleak fededunak edo erlijiosoak izaten dira. Egun, nahiko espektro zabala dago eredu honen barruan, kontserbadorismo gogorretik hasi eta apur bat aurrerakoiak diren ideietaraino zabaltzen baita, baina defendatzen dituen balio-multzoen parametroen barruan, betiere.

2.3.- Sexu-hezkuntza, gizarte-iraultzarako baliabide gisa

Eredu hau zenbait mugimendu ideologiko eta politikoren analisietatik sortua da. Hauxe adierazten du: klase menderatzaileek gizartea azpiratzeko daukaten tresna indartsuenetako bat dela sexualitatearen errepresioa. Hortaz, gizartean aldaketa iraultzailea mamitu nahi izanez gero, ezinbestekoa da sexu-errepresioaren aurka borrokatzea. Horrenbestez, gizartean aldaketa sustatzeko beharrezko elementua da sexu-hezkuntza. XX. mendearen lehenengo herenean agertu zen eredu hau, mugimendu freudomarxistan eta Sex-Pol deitutako gazte-mugimenduan oinarrituta –Wilhelm Reich izan zen azken horren buru, XX. mendeko 30eko hamarkadan–.

Sexu-askapenaren bidez, gizartea eraldatzea zuen helburu nagusi. Ondoko hauek ziren sexu-hezkuntzaren edukiak: plazeraren fisiologia eta anatomia, kontrazeptzioa, sexualitatearen eta familiaren erregulazioaren analisi kritikoak, gutxiengoen defentsa, eta moral menderatzailearen kritika.

Baliatutako metodologiak ikastetxeetan sexu-hezkuntza sistematikoa defendatzen zuen. Arreta berezia eskaintzen zien gazteei, bizilagun-elkarteei, eta abarri.Sarritan antolatzen zituzten eztabaidak, mahai-inguruak, eta abar.

Ikuspegi horren printzipioak 1968ko maiatzeko Frantziako gazte-mugimenduan islatu ziren. AEBn, mendebaldeko kostaldeak sortutako mugimendu kontrakulturaletan adierazi zen, unibertsitatea edo mugimendu hippya bezalako esparruetan. Gogora dezakegu «Egin amodioa eta ez gerra» esaldi ezaguna. Espainian, trantsizio demokratikoaren aurreko eta osteko urteetan izan zuen indarra.

2.4.- Sexu-hezkuntza profesionalizatua, demokratikoa edo irekia

Denboran zehar eta azken hamarkadetan, sexu-hezkuntza ulertzeko modu toleranteagoa, errealistagoa eta pluralagoa azaleratzen hasi da. Aurkezten dugun programa eredu horretan oinarritzen da, funtsean.

Sexualitateak gizakiongan duen esanahi sakona du abiapuntu, bai eta garapen pertsonalean nahiz sozialean dituen funtzioak ere. Sexualitatean esku hartzeko joera gainditzeko pentsatuta dago. Ikasleen biografia pertsonalaren errespetua du oinarri, norbera bihur dadin bere buruaren garapenaren protagonista. Irakasleen esku uzten da, haien profesionaltasunean erabateko konfiantza izanik, prestakuntza-arlo honetako ezagutza zientifikoak ikasleei transmititzeko zeregina. Norberaren protagonismoa defendatzen du, bakoitzak bere gaitasunak lan ditzan. Eredu honen garrantzia dela-eta, horretaz jardungo gara hurrengo puntuan.

2.5.- Eredu biografiko-profesionala, programa honen funtsezko erreferentzia

Oraindik ere, baztertu eta isilean gordetzen da sexualitatearen gaia. Deserosoa da. Hori hainbat arrazoirengatik gertatzen da, ziur aski. Lehenik eta behin, dimentsio erotikoa, sexu-desira eta horiek sexu-portaeretan dituzten elkarrekikotasunak pertsonalitatearen eremu ahulenean kokatzen direlako, intimitatean, eta horrek norberaren inplikazio handia eskatzen duelako. Era horretan, sexualitatea lantzea labain eta arriskutsu izaten da, eta deserosoa.

Bigarrenez, sexualitatea, hamarkadetan zehar, ideologien mende egon delako erabat. Aipatutako joerek aurreko puntuan deskribatutako ereduetako batzuk sortu dituzte; zehazki, hezkuntza moralaren eredua eta gizarte-iraultzarako eredua –azken hori, moralismoarekiko erreakzio gisa sortu zen–.



Fuente: Félix López (2005). *La educación sexual*. Madrid: Biblioteca Nueva.

3. Grafikoa. - Eredu biografiko-profesionala.

Hirugarrenez, osasuneko eta hezkuntzako profesionalek oso prestakuntza kaskarra izan ohi dutelako giza sexualitatearen arloan. Arrazoia, mendetan zehar baztertua egon izana. Ez da harritzekoa, kontuan hartuz gero zer-nolako prestakuntza-curriculuma daukaten giza harremanen arloan lan egiten duten hezitzaileek, osasun-langileek eta gizarte-baliabideetako profesionalek. Gai horren inguruko prestakuntza eskasak ziurtasunik ezaren giroa areagotzen du sexu-hezkuntzari trataera profesionala ematean.

Egoerak hutsune nahasi bat sortzen du, eta bertan, sexualitatea beti landu gabe uzten diren gaien linbo moduko batean dago. Hori dela-eta, profesional batzuek uko egin diote beren erantzukizunari, eta beste batzuk euren ideologia modu erdimilitantean transmititzen saiatu dira. Hala eta guztiz ere, nabaria da sexu-hezkuntzaren gaineko erantzukizuna «espezialisten» esku uzteko dagoen joera. Programa honetarako egindako ikerketak berak berretsi egiten du joera hori: Euskadiko hezkuntza-sisteman sexu-hezkuntzak duen egoera aztertu dugu, eta inkestari erantzun dioten ikastetxeen % 73k adierazi du kanpoko profesionalen esku uzten dutela sexu-hezkuntza.

Ingurune kultural demokratiko eta plural batean bizi gara, sentsibilitate, ideologia eta sinesmen guztien tartean; horregatik, sexu-hezkuntza ezin da printzipio batzuen edo besteen ikuspegi soiletik planteatu, ezin da sektore batera edo bestera lerratu, eta ezin da sinesmen jakin batean oinarrituta manipulatu. Adostasuna lortu beharra dago, sexu-hezkuntza ez dadin jarrera batean edo bestean doktrinatzeko erabili, aukerak zabaltzeko baizik. Horien bidez, pertsona bakoitza aske izango da bere dimentsio afektibo-sexuala erabakitzeko, antolatzeko eta beraren biografian integratzeko.

Adostasun hori lortzeko, eta aurreikusitako xedeak lortzeko bidean aurrerapenak egiteko, eredu bat finkatu behar dugu, ezagutza zientifikoekiko koherentea, errespetuzkoa eta zehatza izango dena. Sexu-hezkuntza hezkuntza-sisteman integratzeko programa honek eredu biografiko-profesionala defendatzen du; hots, Salamancako Unibertsitatean Sexualitatearen Psikologiako katedradun Félix Lópezek proposatutakoa (López, 2005).

Erreferentzia-eredu hori baliagarria izango da anbiguotasunak desagerrarazteko, nahasgarriak izan daitezkeen gune zehaztugabeak ezabatzeko, eta jarduketa-esparrua argitzeko eta zehazteko.

Ereduaren jomuga nagusia norberaren sexu-identitatea onartzea eta garatzea da. Horrez gain, aniztasun-espektro zabal batean, emakume zein gizon izateko dauden modu pertsonalen garapenean protagonismoa norberarena dela ikusarazten lagundu behar du. Ikasleak bere sexualitatearen esperientziak bizitzea, eta beraren biografian txertatu ahal izango dituen gaitasunak ezagutzea eta ikastea bultzatu behar du; era horretan, tartean dauden pertsonek printzipio etiko pertsonal eta sozialetan oinarrituta hartuko dituzte erabakiak.

Eredu horri dagokionez, Félix Lópezek aipamen honetan proposatutako irizpideei atxikiko gatzaizkio:

> *«Eredu honen oinarrizko helburuak bi dira: batetik, norberaren sexu-identitatearen onarpen positiboa sustatzea, eta, bestetik, adin bakoitzean, eta tartean diren pertsona edo pertsonen arabera, sexualitateari dagokionez dauden aukerak ezagutzea. Edukiek ez dute ez aurreiritzirik ez topikorik, eta ahalik eta informazio zientifikoena eskaintzen dute. Onartuta dago askatasun osoz desiratutako sexu-plazera izateko eskubidea; eta eskubide hori ez dago adin batera, ezkontzara, genitalitatera, heterosexualitatera edo espeziea ugaltzera mugatzen. Sexu-hezkuntzak gizartearen funtzionamenduaren analisi kritikoa egiteko tresnak eskaini behar ditu; baina, aldi berean, gizarte demokratiko batean dauden sinesmen eta ideiak onartu eta errespetatu behar ditu. Sexu-hezkuntzak gizarte-erantzukizunaren eta etikaren beharrean jarri behar du enfasia, pertsonen artean arriskuak eta esplotazio-harremanak ekiditeko. Sexu-*

hezkuntzak ez die ikasleei doktrina moralik edo politikorik irakatsiko; aitzitik, ikasleak partaide aktiboak dira informazioa bilatzeko eta partekatzeko orduan. Horren bidez, desadostasunak konpontzen saiatuko dira, eta besteen iritziak ezagutuko dituzte. Azken batean, eredu honen bidez, informazio profesionala eskaini nahi da, sexualitatearekiko jarrera positiboak sustatu, eta harremanetan zentzu etikoa piztu». (López, F., 2005)

Aurreko puntuan deskribatutako bost puntuak presente daude egungo gizartean, era batera edo bestera, hezkuntza-eskaintzaren arabera. Gure iritzian, aipatutako bost ereduen artean azkena da egokiena, ez duelako sexu-hezkuntzako printzipioak nahiz edukiak helburu ideologikoekin manipulatzeko inolako xederik. Askatasun osoa ematen dio pertsonari, nork bere biografia osa dezan. Ekarpen zientifikoen objektibotasunean oinarritutako edukiak proposatzen ditu, nahikoa egiaztatuta daudenak. Ikasleek kalitatezko sexu-hezkuntza jasotzeko duten eskubidea defendatzen du. Errealitatea behar besteko distantziaz analizatzeko espiritu kritikoa sustatzen du. Proselitismoa eta doktrinamendua ekiditen ditu. Sexuen arteko berdintasunaren eta aniztasunarekiko errespetuaren alde agertzen da. Beren sexu-orientazioagatik baztertuak izan daitezkeen pertsonak babesten saiatzen da, eta, eskolako esparruan, jarrera sexisten eta homofoboen efektua orekatzen. Harremanen etika sustatzen du, pertsonen arteko harremanak erregulatzeko modu gisa, hertsadura, inposizioak eta indarkeriaren aurkako antidoto gisa.

Eredu irekia da, ez dagoelako jardueren errezeta-bilduma edo erantzunen eskuliburu soil moduan pentsatuta. Konfiantza osoa du irakasleen profesionaltasunean eta berrikuntzarako ahalmenean, eta balioetsi egiten ditu haien ezagutzak, sormena eta esperientzia –hezkuntza-proposamen honetakoa baino handiagoa izan daitekeena–.

3.- Pertsonen arteko harremanen etika

Esperientzia erotikoa, harremanetan oinarritutako esperientzia da batez ere. Heredatutako programazio genetikoetan errotutako giza psikologiaren barne-barnetik abiatzen da, eta psikologia pertsonalak konfiguratu eta aberastu egiten du biografian zehar, sentimenduak, atxikimenduak eta emozioak tarteko.

Sexu-harremanak, partekatu egiten direnez, kode moral bat osatzen duten arauen bidez erregulatuta daude. Jatorri judu-kristaua duen gure testuinguru kulturalean, moral kristauak erregulatu izan du sexualitatea. Edonola ere, pertsonen arteko harreman afektibo eta sexualak erregulatzen dituzten printzipio etikoak birdefinitzeko beharra sortu da, aldaketa garrantzitsuak jazo baitira azken garaiotan: ekonomikoak, kulturalak nahiz teknologikoak; aurrerapenak osasun-zientzietan eta psikologian; gizartearen sekularizazioa, estatu ez-konfesionalak sortuta; pentsamendu liberal eta sozialaren hedadura, emakumeen liberalizazioa, eta homosexualen eta transexualen eskubideen aldeko mugimenduak, besteak beste.

Testu honen sarreran, adierazi dugu sexu-hezkuntza hezkuntza-sisteman integratzeko programa honen funtsezko oinarriak bi direla: eredu biografiko profesionala eta harremanen etika. Félix Lópezek proposatu ditu biak ala biak, eredu honen erreferentziazko autorea denak. Puntu honetan harremanen etikaren oinarrizko alderdiak garatuko ditugu.

Félix Lópezen iritziz, pertsonen arteko harremanen etikak oinarri hauek izan behar ditu. Lehenik eta behin, harremanen etika **unibertsala** da: pertsona oro duina eta balioduna da, eta ezin da tresna gisa erabili.

Zoriontasunera bideratu behar da; hots, norberaren eta besteen ongizatea lortzera, oinarrizko beharrak asez. Beheko koadroan harremanen etikaren oinarriei buruzko Félix Lópezen proposamena dago transkribatuta.

HARREMANEN ETIKAREN OINARRIAK

1.- Gizaki ororentzat: **UNIBERTSALA**

«Pertsona oro duina eta balioduna da, eta ezin da tresna gisa erabili».

2.- **ZORIONTASUNERA** bideratuta

a.- Ongizate pertsonala eta soziala sustatzea.

b.- Pertsonen arteko beharrei erantzutea.

c.- Gatazkak ekiditea eta horiek konpontzen laguntzea.

3.- Hainbat iturri ditu:

a.- Adimenaz baliatzea: **arrazoimen zuhurra**.

b.- Bihotz ona izatea: **enpatia.**

c.- **Giza eskubideen** testuinguruan.

d.- **Maitasuna/atxikimendua** esperientziarekin.

Iturria: Félix López (2005)

Adimen orokorraren eta emozionalaren jardueran oinarritzen da; hau da, autoreak **arrazoimen zuhurra** deitzen duen horretan. Haren bidez baino ezin dira behar afektibo eta erotikoak kudeatu, norberaren desirak eta beste pertsonarenak gatazkan sartzen direnean. **Enpatia** harremanen etikaren oinarrian dago; ezinbestekoa da harremana erregulatzeko. Enpatia behar-beharrezkoa da beste pertsonaren egoera emozionala egokiro antzemateko eta haren beharrak ezagutzeko –eta erantzun egokia eman ahal izateko–.

Atxikimenduaren esperientzia ere sartuko dugu harremanen etikaren oinarrian, maitasunezko esperientziaren motorra baita, zalantzarik gabe; gainera, biografia pertsonaleko behar indartsuenetako bat da, behar erotikoarekin batera. Giza eskubideen testuinguruan ikusiko dugu hori guztia.

Oinarri etikoak finkatu ostean, Félix Lópezek pertsonen arteko harreman afektibo-sexualei heltzeko moduak zehazten ditu: baimenaren etika, plazer partekatuarena, sexu-osasunarena, leialtasunarena, berdintasunarena, lotura eta desloturarena, eta utopiarena. Proposamen interesgarria da oso, errealitatera jaitsi eta eguneroko egoeraz jabetzea ahalbidetzen duelako. Harremanen etikaren alderdiok proposamen eraginkor bilakatzen dira, eta horiekin modu zehatzean lan egiteko aukera ematen digute. Uste osoa dugu sexu-hezkuntzaren muina, sexualitatearen inguruko ezagutza zehatzak irakastea baino gehiago –hezkuntza-sistemak bermatu behar dituenak–, harremanekin lotutako egoerak intimitatearen esparruan kudeatzeko gaitasuna irakastea dela. Gara ditzagun alderdiok.

3.1.- Baimenaren etika.

Eredu biografikoaren arabera, oso garrantzitsua da pertsona orok bere sexualitatea askatasun osoz garatzeko askatasuna duela ulertzea. Ez da dogmarik ezarri behar, ez eta inor doktrinatu ere. Gizaki bakoitzak bere ezaugarrien, biografiaren gorabeheren eta testuinguru soziokulturalaren arabera osatuko du bere garapen psikosexuala. Horrenbestez, baimenaren etikak dio pertsonek erabateko eskubidea dutela BAI edo EZ esateko.

Sexu-harremanak izateko, ezinbestekoa da beste pertsonak, askatasunez, horretarako baimena ematea. Inork ez du eskubiderik bere desira erotikoa beste pertsona bat behartuz, erasoz edo haren aurka indarkeria erabiliz asetzeko. Onespenaren etikak, hortaz, negoziatzeko eta frustrazioa onartzeko gaitasuna izatea eskatzen du.

Sen onak adierazten du sedukzio-estrategiek non dituzten mugak; haren arabera erabakiko da, beraz, egoerak noiz diren bortxazkoak. Ez dago inor erabiltzerik, norberaren probetxurako, bere borondatearen aurka.

Printzipio etiko hori onartu ezean, sexu-indarkeria genuke, bere adierazpen orotan.

3.2.- Plazer partekatuaren etika

Plazer partekatuaren etikak dio bikotekidearen ongizatea eta esperientzia erotikoaren kalitatea norberaren helburu ere izan behar direla. Printzipio hori ikaslearen gidoi kognitiboan barneratuta eta integratuta egon behar da, eta ikaskuntzaren bidez bereganatu beharko litzateke. Printzipio horrek zehaztu behar du bikotekide bakoitzaren iruditeria erotikoa, partekatzen duten errealitatera egokitu dadin; eta horrek halako uko-egite bat eskatuko du, noski. Enpatia funtsezkoa da prozesu honetan: bestearen behar erotikoak behar bezala antzemateko gaitasunaz gain, haren egoera emozionalaz jabetzeko aukera ematen du. Printzipio honen aplikazioaren adibide bat baieztapen honetan ikus daiteke: «…Guk biok sexu-harremanak izaten ditugunean gertatzen zaizun guztia, onerako (plazerra, ongizatea) nahiz txarrerako (sexu-portaerarekin lotutako arriskuak), niri ere badagokit».

Printzipio etiko hori ez izateak beste pertsona objektu soil gisa erabiltzeko bidea ematen du.

3.3.- Sexu-osasunaren etika

Sexu-osasunaren etika pertsona bakoitzak sexu-harreman partekatuetan duen erantzukizunarekin dago lotuta. Nork bere burua eta bikotekidea zaintzeko erantzukizuna bere gain hartzea da. Baina ez bakarrik osasun fisikoari, sexu-transmisioko infekzioei eta nahi gabeko haurdunaldiei dagokienez; izan ere, osasun psikologikoa, esperientzien kalitatea, hazkunde pertsonala, balioak, autonomia, ongizate pertsonala eta kolektiboa ere sartzen dira.

Printzipio etiko honek garrantzi handia du amatasun-aitatasun arduratsuaren esparruan. Haur bat izateko edo ez izateko erabakiak printzipio horretan oinarritu behar du, kontuan hartuta zer-nolako ondorioak izango lituzkeen osasunaren esparruan izaki berri batentzat.

Berriro ere, gaitasun enpatikoa izatea ezinbestekoa da printzipio hau aplikatzeko orduan. Gizarte honek indibidualismoa eta lehia saritzen dituen arren, guk, osasunaren etikaren bidez, besteak zaintzearen aldeko jarrera eta gaitasuna indartu behar ditugu. Gogora dezagun: «*Zuri gertatzen zaizun guztia, onerako nahiz txarrerako, niri ere badagokit*».

Printzipio etiko hau ez izateak portaera sexualari lotutako arriskuak ugaltzea ekar lezake.

3.4.- Leialtasunaren etika

Pertsonen arteko harremanak egian eta zintzotasunean oinarritzea eskatzen du leialtasunaren etikak. Félix Lópezek adierazten duen moduan, komunikazioan leial izaten ahalegindu behar gara; horrela, beste pertsonak hobeto ezagutuko ditu harremanaren inguruan bikotekideak dituen xede eta helburuak, eta martxan jarriko dituen baliabideak. Adibidez, pertsona bat oso desleiala izango da beste batekin oso maiteminduta dagoela esaten badu, baina esperientzia erotiko bat izatea besterik nahi ez badu. Pertsona batekin konpromisoa duen norbaitek noizbehinkako harreman sexuala badu beste pertsona batekin eta horrek lotua berriak sortzen baditu, leialtasunaren etikak pertsona horrek konpromisoa duen beste pertsonari jakinaren gainean jartzeko zintzotasuna eskatzen du.

Leialtasunaren etikarik ez dagoenean, engainatu egiten da. Desleialek bikotekidea manipulatzeko erabiltzen dute engainua, beren helburuak asetzeko xede bakarrarekin; eta, horretarako, baliabide bidegabeak erabiltzen dituzte.

3.5.- Berdintasunaren etika

Berdintasunaren etikak jarraitzen duen printzipioa hauxe da: bikote-sistema bat osatzen duten pertsonek eskubide berbera izango dute gizabanakoen askatasuna erabiltzeko, maila berean egongo dira biei dagozkien erabakiak hartzerakoan, erantzukizun bera izango dute zeregin partekatuak betetzearen gainean, eta baldintza berdinetan egongo dira harremanaren barruan boterea erabiltzeari dagokionez. Bikote-sistemaz ari garenean, ez

gara bikote eratu eta finkoez soilik ari; esperientzia esanguratsu bat partekatzea —adibidez, esperientzia erotiko bat— erabakitzen duten pertsonak ere sistema horretan sartzen dira.

Berdintasunak, era berean, beste pertsonaren balioa eta duintasuna kontuan hartzea esan nahi du. Halaber, bestea autonomo, burujabe eta aske dela aitortzea esan nahi du, bai eta, askatasunez, beste batekin harremana izan nahi duela onartzea ere.

Printzipio etiko hori ez izateak berdintasun eza, botere-abusua eta bikotekidea tresna gisa erabiltzea ekar dezake.

3.6.- Loturaren eta desloturaren etika

Gizakion behar garrantzitsuenetako bat besteekin loturak izatea da. Loturok estuak izan daitezke garrantzi berezia daukaten pertsonekin; hala nola senideekin, lagunekin edo bikotekidearekin. Harremanean bi pertsonak parte hartuko dutenez, harremana zuzenduko duten arauak aplikatu behar dira. Loturaren eta loturatik askatzearen etikak dio gizaki orok eskubidea duela loturak ezartzeko, bere behar afektibo eta emozionalak asetzeko xedez. Aldi berean, loturatik askatzeko eskubidea ere aitortzen du. Inor ez da inoren jabe. Inor ezin da menpean eduki edo tresna gisa erabili. Gizaki orok har dezake lotura batetik askatzeko erabakia, egoki iruditzen zaizkion arrazoiak direla medio.

Félix Lópezek ondo baino hobeto adierazten duen moduan, «pertsonen arteko harreman-moduak askatasunaren erreinuan sartu behar dira, bikote bakoitzak nahi bezala ezar dezan bere lotura (egoera zibila, harremana, eta abar); betiere, bikotekide bakoitzak bere eta bestearen eskubideak aitortu behar ditu». Haren arabera, lotura ezartzeko, bi pertsona dira beharrezko; baina, lotura apurtzeko, nahikoa da haietako bakarraren borondatea.

Printzipio etiko hori ez izateak bikotekidearekiko mendetasuna eta babesgabetasuna ekartzen ditu.

3.7.- Utopiaren etika: zainketa

Félix Lópezen iritzian, *... amodiozko harremanak maila gorenera iritsi daitezke bikotekideek, oinarrizko etika hori betez, elkar zaintzeko sistema garatzen badute, maitatzeko ahalmenean oinarrituta. Eta maitatzeko ahalmena, azken batean, bikotekidea beste pertsona bat dela onartzean datza, haren helburuak lortzen lagundu ahal izateko».*

Elkar zaintzeko sistema jokabideen eta jarreren multzoa da, besteen sufrimendua edo beharra gutxitzera eta segurtasuna nahiz ongizatea sustatzera bideratuta dagoena. Bikote-harreman batean elkar zaintzeko sistemak ondo funtzionatzen badu, maite den pertsonarekiko segurtasun emozionala eta esker ona areagotu egingo dira. Sistema horrek giza gaitasun eta gaitasun etiko handiak eskatzen ditu, etika konbentzionalaren oinarrizko alderdiak gainditu gauzatzen dena. Horregatik, maila hori utopiaren etika dela dio Félix Lópezek.

4.- Sexualitatearen kontzeptua. Hizkuntza komunaren bila

Gure mendebaldeko kulturan, seguruenik tradizio judu-kristauaren eraginez, isilpean gorde izan da sexualitatea. Axiologia kristauan, plazeraren esperientzia bekatu gisa hartu izan da, eta sufrimendua, aldiz, bertute gisa. Plazer-iturri handienetako bat erotismoa da, sexu-portaeraren bidez. Bestalde, ugaltzeko bidea ere bada, seme-alabekin eta familiarekin lotzen dena. Tradizio horren arabera, erotismoa, plazer-iturria den aldetik, familiaren aurkako mehatxu gisa ikusi denez, baztertu egin izan da, artearen bidez goraipatutako adierazpenetan edo gizarte-balioko beste gai batzuetan izan ezik.

Sexua, sexualitatea, sexu-portaerak eta gisa horretako gainerako terminoak gizakion alderdi arriskutsu, bekatuzko, oldarkor eta ez-moralekin lotu izan dira. Horregatik, mendebaldeko gizarteak aurrerapausoak eman dituen arren aniztasunaren eta demokraziaren bidean, sexualitatea ulertzeko hainbat moduen baterako existentzia ahalbidetzen, oraindik ere gai berezi, delikatu eta deserosotzat hartzen da sexualitatearena.

Orokorki begiratuta, sexualitatearen kontzeptua sexu-portaera esplizituetara mugatzen da. Adibidez, haurren edo nerabeen sexualitateari buruz hitz egiten denean, gehien-gehienek —profesionalek barne-— haurren eta nerabeen portaera autoerotikoez edo partekatuez mintzo garela pentsatuko dute. Ikuspegi hori oso murriztailea da, ordea.

Sexualitatearen kontzeptua askoz ere errealitate zabalagoa da. Eboluzioaren ikuspegitik, egokitzeko modurik hoberentzat sexu-ugalketaren sistema aukeratu zuten espezieetako bat da gizakia. Sexu-ugalketak bi forma edo bi sexu sortzea eskatu zituen. Hori dela-eta, sexuekin lotutako guztia sexualitatearen zati da: gorputz sexudunak, gorputzaren irudia, sexu- eta genero-identitateak, estereotipoak eta genero-rolak giza sexuazioaren zati dira, eta hortaz, sexualitatearenak.

Eboluzioaren ikuspegi horretatik bertatik, sexu-ugalketak ugalketa ahalbidetzeko bi pertsonaren arteko erakartze-sistema sortu zuen, nerbio-sisteman oinarrituta antolatuta eta genetikoki transmititutа. Hori da motibazio sexualaren jatorria: sena, espezie azpigizatiarretan, eta irrika, gizakien kasuan. Desira erotikoaren jatorria da, gogobetetzerako joera sortzen duen emozio gisa eratua. Emozio bizi hori, erregulatu daitekeena eta erregulatu behar dena, iruditeria erotikoan eta sexu-portaeretan adierazten da. «Sexualitatea» sexu-portaera hutsetara murrizten duen ikuspegiak horietan bakarrik jartzen du arreta.

Katchadourian-ek (1979) esandakoari jarraikiz, sexualitatearen esanahiak bi kategoria handitan taldeka daitezke:

a) **Emakumeen eta gizonen arteko banaketa organikoari** eta horiek bereizten dituzten ezaugarriei buruzkoa.

b) **Portaera erotikoari** eta erotikotasunarekin lotutako alderdi zehatzei (fisikoak edo nortasunarenak) buruzkoa.

Gure ikuspegitik, bi alderdiok sexualitatea ulertzeko oinarrizko bi puntu adierazten dituzte: Dimorfismo sexuala eta motibazio sexuala . Garapen filogenetikoak sexuaren sorrerarekin lotzen gaitu zuzenean, hau da, espezie berearen sorrerarekin. Programazio genetikoaren bidez, sexua ontogenesian adierazten da, eta gorputz sexudunaren erantzule den **dimorfismo sexual**a lortzen da. Hori, batetik sexu-identitatearen zein generoaren

oinarria da, eta **motibazio sexuala**, bestetik, desira erotikoa, haren konfigurazioa, orientazioa eta horrekin lotutako sexu-portaerena.

Azken batean, amaierako emaitza da interesatzen zaiguna; alegia, dibertsitate zabalaren barruan, emakume zein gizon izateko modua. Amaierako emaitza hori ulertzeko, kulturak prozesu osoari nola eragiten dion begiratu beharra dago. Kulturak, oro har, sozializazioaren sorreratik gaur arte, ekarpenak egin dizkio sexuaren errealitateari; hau da, emakume eta gizonez espero den zereginari buruzko edukiak txertatu ditu. Eduki horiek harreman ezberdinak, asimetrikoak eta hierarkizatuak sortzen dituzten diferentziak ezartzen dituzte, eta emakumezko denaren aurrean gizonezkoaren alde egiten duten botere-harremanak eragiten. Ukaezina da kulturaren efektuak baduela eraginik identitateak eraikitzeko prozesuan.

Sexualitatea munduan gizon zein emakume gisa bizitzeko modu pertsonala da, errealitatea erreferentzia soil gisa hartuta, eta ez kategoriatzat. Emakume zein gizon izateko adina modu daude pertsona izateko. Hori ulertzeko, nahitaez aitortu behar da aniztasuna.

Horregatik, eta profesionalek sexu-hezkuntzan duten esku-hartzearen ikuspegitik, baliteke sexualitatearen inguruan oso kontu ezberdinez aritzea, nahiz eta gauza berdinez ari direla baieztatu. Interesgarria izango litzateke oso **hizkuntza komun** bat erabiltzea. Horretarako, berrikusi egin behar da sexualitatearen kontzeptua, eta parte hartzen duten profesionalak (hezitzaileak, osasun-langileak edota gizarte-baliabideetako profesionalak) erreferentziazko adostasunera iritsi behar dira.

4.1.- Sexualitatearen kontzeptua eta sexu-hezkuntza

Aurreko arrazoibidearekin jarraituz, abiapuntutzat hartzen den sexualitatearen kontzeptualizazioak badu bere garrantzia; izan ere, hura nolakoa, halakoa izango da emango den sexu-hezkuntza. Adibidez, norbaitek sexualitatearen kontzeptua ugalketara mugatzen badu, ugalketaren anatomiari eta fisiologiari buruzko ikasgaiek osatuko dute sexu-hezkuntza. Beste batek sexualitatea sen sexualera mugatzen dela uste badu, hain indartsua eta arriskutsua, non zehaztutako morala galbidera baitezake, sexu-hezkuntza moral jakin bati buruzko irakaspen doktrinaletan oinarrituko da. Laikotasunari jarraikiz, sexualitatea sexu-portaerari berezkoak zaizkion arriskuetara mugatuz gero, sexu-hezkuntzak hiesari, sexu-transmisiozko infekzioei eta metodo antikontzeptiboei buruzko informazioari helduko die.

«Sexu-hezkuntza irakastea, landuz joango diren elementuak sorraraztea da» (Amezúa, 1973); hortaz, hezkuntza afektibo-sexualaren funtzioa da heziketa-prozesu guztian zehar, munduan emakume zein gizon gisa egoteko berezko modua eraikitzeko eta garatzeko behar diren elementuak sorraraztea. Ikuspegi kontzeptual batetik, hori da abiapuntu-egoera. Euren sexu-bulkaden biktima potentzial gisa hartu ordez, gure ikasleak denborak aurrera egin ahala eta beste prozesu psikologikoen laguntzaz euren sexuazioa bizitzeko modua garatuko duten izakitzat jo beharko genituzke.

Hori bai, diskurtsoa airean utzi ordez, «izaki sexudun gisa munduan egoteko modua» esaldiari edukia gehitu behar diogu. Adierazi bezala, gorputz sexudunetik abiatuta kokatzen gara gutako bakoitza munduan, emakume nahiz gizon gisa. Jaiotakoan, sexuazio biologikoak sexu-estereotipoen aplikazioan ikus daitekeen kultura-erreakzioa eragiten du. Emaitza nor bere sexu-identitateaz jabetzea da. Sexu-hezkuntzak pertsonei gorputz sexuduna egokiro integratzen eta emakume zein gizon izateko modu pertsonala kritikoki garatzen laguntzen

duten elementuak eskaini behar ditu. Zalantzarik gabe, sexuen artean tradizionalki egon den desoreka konponduko duten elementuak eskaini beharko ditu.

Ikusi bezala, sexu-desira sexuazioaren elementu garrantzitsuetako bat da. Desira erotikoaren gogobetetzea kudeatzeko era munduan emakume zein gizon gisa izateko moduaren zati da. Sexu-hezkuntzak honetan lagundu behar digu gizakioi: sexu-desira ezagutzen, haren adierazpenak norberarengan eta besteengan ezagutzen eta horretan jatorria duten jokaerak era arduratsuan konpontzen. Bistan dago gizonezkoen eta emakumezkoen artean, heterosexualen eta homosexualen artean, sexu-desira esperimentatzeko eta kudeatzeko moduak ez direla berdinak. Sexu-hezkuntzak gaiok lantzeko guneak sortu behar ditu.

Emakume edo gizon izateko modua atxikimenduekin ere lotzen da. Afektibitate-loturak nabarmen baldintzatzen ditu pertsonen arteko harreman-estiloak. Maitatzeko eta maitatua izateko beharrak, bai eta gogobetetze sexualarenak ere, bat egiten dute intimitatearen eremuan. Eta hura autoestimuaren, segurtasun emozionalaren eta oinarrizko konfiantzaren osagarria da. Argi dago sexu-hezkuntzak, eskolatze-aldian zehar, ekarpenak egin ditzakeela zentzu horretan.

Amaitzeko, munduan emakume zein gizon gisa egoteko modua sexualitatearen gizarte-erregulazioarekin erlazionatzen da. Sexu-hezkuntzak sexuen araberako erregulazio-modu diskriminatzaileak erauzten lagundu behar du. Norberaren autonomia bultzatu behar du, sinesmen edo ideologia jakin batzuetatik datozen aginduen aurrean. Besteen beharrak era egokian interpretatzeko gaitasun gisa enpatia sustatu behar du, jazarpenak eta erasoak prebenitzeko modu bakarra den aldetik. Azken batean, sexu-harremanak ulertzeko hainbat modu dauden gizarte demokratiko batean etika pertsonalaren eta sozialaren garapena indartu behar du.

Azken hiru hamarkadetan, tradizio sexistan oinarritutako iraganeko mitoak deuseztatzeko ahaleginetik mito berriak inposatzera pasa gara. Horietako bat osasuna sexu-jarduerarekin lotuta dagoela pentsatzea da. Beste era batera esanda, sexu-jarduera handiena duten pertsonak osasuntsuagoak diren ustea dago, eta hori zenbait iritzi korrontek adoretzen duten mito berri bat baino ez da. Programa honen oinarria eredu biografiko-pertsonala da; horri jarraiki, sexualitatearen alorrean osasuntsuagoak diren pertsonak sexuak euren bizitzan duen esanahiaren inguruko erabakiak askatasunez hartzen dituztenak dira. Horren arabera, batzuek beren biografian sexu esperientzia zabala txertatzea erabaki dezakete; beste batzuek, aldiz, horri uko egiteko aukera dute, arrazoirik izanez gero. Bistan dago bi egoerak bateragarri direla sexu-osasunaren irizpideekin. Desberdina izango litzateke sexu-jarduerarik eza zailtasun fisikoen edo gatazka psikologikoen ondoriozkoa izango balitz.

5.- Sexualitatearekiko jarreraren eta jarreren egitura

Ikuspegi estrategiko batetik, irakasleriak eredu biografiko-profesionala onartu beharko luke. Hau da, profesional gaitua eta erreferente garrantzitsua den aldetik, ikasleei gaitasunak lortzen lagundu beharko lieke beraren esperientzia eta ezagutzak baliatuz. Eredu biografiko-profesionalaren garapenean esan dugu, funtsean, irakasleen jarreren baitan egongo dela irakasleen inplikazioa eta eredu hori bere egitea (norberaren sinesmenekiko objektibotasuna eta ezagutza zientifikoen transmisioa ezaugarritzat dituena).

Jarrera gauzekiko aurretiko jarrera ona da. Berez, ez da portaera bat, ikasgai zehatz bati lotutako jokabideak zehatzen dituen prestasuna baino. Sozializazio-prozesuan zehar, gizakiok mota guztietako gaiekiko aurretiko jarrerak ditugu. Gertaera jakin batzuen aldeko edo kontrako balorazioak emateko prestasunak dira, hortaz, gauzak ebaluatzeko prestasunak dira. Errealitatearen analisi hutsean beha dezakegu jarrera jakin bat sortzen ez duten gai ugari daudela, hala nola izar-espazioa edo haize alisioak. Hala ere, beste batzuk aurretiko prestasun handia eskatzen dute; adibidez, arrazismoa, xenofobia, liberalismoa, sozialismoa, nazionalismoa, homofobia eta matxismoa.

Diferentzia da zenbat eta inplikazio pertsonal handiagoa eta jarreraren objektua den gaia eztabaidatuagoa, orduan eta markatuagoak eta zehatzagoak izango direla jarrerak. Gure kulturan, sexualitatea etengabe eztabaidatzen ari garen gaia da, eta inplikazio pertsonal handia eskatzen du. Gai polemikoa da eta inplikazio pertsonal bizia sortzen du. Zalantzarik gabe, sexualitatearekiko jarreren sorrera profesionalengandik jasotako sexu-hezkuntzatik abiatzen da, eta hori, aldi berean, gizarteratze-ingurune menderatzailetik. Ez da berdina errepublikan, diktaduran edo demokrazian heztea. Ez eta testuinguru kontserbadore edo progresista batean ere, terminook erlatibizatuz beti.

Sexualitatearekiko jarrerak berrikustea interesgarria da edozeinentzat, arrazoizko ongizate mailaren lorpenean eragina duelako; hezkuntza profesionalen kasuan, ordea, eskakizuna izan beharko litzateke. Modu horretan, ideologian bertan sorburu izan dezaketen interferentzietatik babestuko litzateke profesionalen esku-hartzea, eta ezagutzen transmisioan objektibotasun zientifikoaren maila gorena lortzen lagunduko luke.

Zentzu horretan, eta eredu biografiko-pertsonalaren jarraibideen arabera, irakasleak, oro har, sexualitatearekin lotutako gaien inguruko iritzi pertsonalak ez lituzke hezkuntza-premisa gisa erabili behar. Haren lana edukien eta kontzeptuen inguruko argudioak ematea izan beharko litzateke, ezagutza zientifikotan oinarrituta, ikasle bakoitzak bere irizpidea sortzeko. Ezagutza zientifiko gisa, haien inguruan nahikoa ebidentzia enpirikoa ditugunak hartuko ditugu.

Jarrerak hiru faktorez osatutako egitura eratzen du: kognitiboa, afektibo-emozionala eta jokabidea. Zenbat eta kohesio handiagoa egon faktoreen artean, orduan eta sendoagoa izango da jarrera, eta zailagoa izango da aldatzea. Definitu ditzagun hiru osagaiok:

Jarrera-egiturak osagai **kognitiboa** du euskarri. Hau da, jarrera oro ideiatan, kogniziotan oinarritzen da. Haien jatorria edukien asimilazioa da: informazioa prozesatzearen emaitza da, gizarte-testuinguru jakin batean eta sozializazio-prozesu zehatz bati lotuta gertatzen dena. Azpimarratu behar da gizarte-testuingurua erabakigarria izan daitekeela. Adibidez, duela zenbait hamarkada Hegoafrikako *apartheid* giroan sozializatutako arraza zuriko haur baten kasuan, litekeena da hurrengo ideiak bereganatu izana: arraza beltzekoak gutxiago dira, adimen txikiagokoak, arriskutsuak eta zurien mende egon behar dira; zuriak, aldiz, goi-mailakoak dira, adimentsuagoak, eta dagokien lekuan jarri behar dituzte beltzak. Sustraitutako ideia horiek adibideko haurrek ziur aski izango duten jarrera arrazistaren oinarri kognitiboa dira.

Jarreraren beste egitura-faktoreetako bat **afektibo-emozionala** da. Erreakzio subjektiboen edo bereziki esanguratsu edo garrantzitsuak diren estimuluen aurreko erreakzioak dira emozioak, oro har, erreakzio psikofisiologikoa eta atribuzio kognitiboa dutenak. Emozioek biziraupenera zuzendutako egokitze-funtzioa garatzen dute. Adibidez, paniko egoera baten aurrean beldur erreakzioa sortzen da, gizabanakoa mehatxuzko egoeratik babesten duena. Animaliek genetikoki aurrez programatutako mekanismoak dituzte, egoera ebaluatzea

eta beren burua defendatzea ahalbidetzen dietenak. Zentzu horretan, estresa organismoak ekintzarako (sinplifikatuz, erasotzeko edo ihes egiteko) prestatzen duen aktibazio egoera da. Hala ere, gizakiok askoz konplexuagoak gara, eta gugan, emozioak osagai nabarmen subjektiboa du, egoera emozionala, sentimenduena, zentzu ezagunenean. Esperientzia subjektiboa da, egoera konkretu bera mehatxuzkoa izan daitekeelako batzuentzat, eta besteentzat ez.

Jarri ditzagun adibide batzuk. Pertsona batek beldur-erreakzio emozional handia izan dezake bidaiari gisa doanean 100 km/h-tik gorako abiaduran, auzo-bide batetik eta tenperatura 0º C azpitik dela. Beldur-erreakzio emozionala, egoera horretan bizitako estresa, objektiboki begiratuta logikoa dela onar dezakegu. Hala ere, baliteke hala ez jotzea igogailu baten aurrean sentitu daitekeen izua, pertsona hori igogailuak erabili ezin izatea eragin dezakeena. Azken kasu horretan, ez dago arrazoi objektiborik esateko igogailua erabiltzeak bizi arriskua eragiten duela. Orokorrean, jarreraren objektuak pizten duen sentsazio, sentimendu eta egoera emozionalen multzoa da haren oinarri afektibo-emozionala osatzen duena.

Amaitzeko, jarrerek **jokabidearen** osagaia dute. Aurreko bi osagaien emaitzak egiturarekin era koherentean jokatzeko joera markatzen du. Adibidez, jarrera arrazista, jarreraren objektuarekin koherenteak diren ideiak eta sentimenduak dituzten pertsonek era arrazistan jokatuko dute neurri handiagoan nahiz txikiagoan, gizarte-testuinguruaren arabera. 4. grafikoak modu eskematikoan irudikatzen du jarrera.



4. Grafikoa. - Jarreraren egitura.

Ikusi dugun moduan, sexualitatearekiko jarrera horrekiko prestasuna da. Hura positiboa edo negatiboa izan daiteke. Pertsona oro positibotasunetik negatibotasunera luzatzen den continuumean kokatuko litzateke.

Sexualitatearekiko jarrera positiboa izakion sexu-dimentsioa betetasunean bizi beharreko aberastasun-iturri dela ulertzeak ezaugarritzen du. Continuum horren aldean daudenek erotikoa denarekiko ideia positiboak dituzte, erotismoa lantzeko konpromiso pertsonala hartzen dute, emozio positiboak igortzen dituzte, besteen aukera

sexualekiko irekiak dira eta horiek errespetatzen dituzte, ez dute sexuari buruz hitz egiteko zailtasunik eta sexu-hezkuntza beharrezkoa dela uste dute.

Sexualitatearekiko jarrera negatiboa duten pertsonek uste ohi dute sexuarekin lotutako oro arriskutsua dela, kaltegarria izan daitekeela, mina eta sufrimendua eragin ditzakeela, horietatik emozio negatiboak sor daitezkeela (adibidez, gehiegizko erru sentimenduak, beldurra eta lotsa), eta sexu-hezkuntza oso gai labaina delakoan daude, zeinaren erantzukizuna gurasoek baitute, oro har gai horretan ezgai direnak eta ondorioz, adituen esku uzten dutenak.

Sexualitatearekiko jarrera ez da gai hutsala. Arlo profesionalean, oso garrantzitsua da konturatzea sexualitatearekiko jarrera hezkuntzaren esparruko esku-hartzeak baldintzatzen duela. Horregatik, hezkuntza afektibo-sexualean lan egin nahi duen orok bere jarrerak berrikusi behar ditu, hezkuntza-prozesuaren zati izango direlako, zalantzarik gabe. Edozein pertsonarentzat, sexualitatea lantzea eta horrekiko jarrerak berraztertzea pertsona gisa hazteko interesgarriak badira, giza harremanen arloan (osasunean, gizarte-zerbitzuetan eta, bereziki, hezkuntzan) lan egiten dutenentzat eskakizuna izan behar da. Horregatik da hain garrantzitsua hura ikertzea.

Literatura zientifikoan esparru hori landu duten bi sorkuntza daude: erotofobia-erotofilia sorkuntza eta sexuarekiko erru sentimenduak (ikus 5. grafikoa).



5. Grafikoa.- Sexualitatearekin lotutako jarrerak.

5.1.- Sexu-erruduntasun sentimenduak

Hainbat arrazoirengatik, gure kulturan, erotismoa –sexualitatean adierazpide gisa ulertua– modu negatiboan balioetsi ohi da. Gizaki askorentzat, sexu-esperientziak izatea arauak urratzea da neurri handiagoan edo txikiagoan. Errua araua urratzean sortzen den emozioa da. Ebidentziak dio, bestalde, erruak lotzen den joerarekiko efektu inhibitzailea sortzen duela. Hortaz, sexuarekiko erru sentimenduak sexu-esperientzian

nahasten dira. Ukaezina da hainbat arrazoi direla bide, erruaren efektuekiko sentiberagoak diren pertsonak daudela.

Ez litzateke harrigarria izango, beraz, sexuarekiko erru sentimenduak oro har arauak haustearekiko sentiberagoak diren pertsonengan adieraztea. Haustearen beraren efektua litzateke hori eta jokabidea inhibituko luke, jarrera urratzaile baten desioaren aurrean, erru-sentimendua aurrez sor baitaiteke.

Sexu-portaerak kultura guztietan daude erregulatuta. Morala (latinezko mores terminotik dator, ohitura esan nahi duena) giza talde jakin baten jokabideak ohituran oinarrituta erregulatzen dituen kodigoa da. Mendebaldeko sexu-morala, hortaz, mendebaldeko kulturaren berezko sexu-portaeren kode erregulatzailea da, beste iturrien artean, tradizio judu-kristauan oinarritzen dena. Egungo gizartean, sexu-moral bat baino gehiago dituen gizarte aniztunean bizi bagara ere, iraganeko joera indartsuaren eraginez, ezin ditugu sexu-esperientziak portaera edo fantasien bidez izan nolabait arauak hausten ari garen halako sentsazio subjektibo bat izan gabe. Adierazi dugun moduan, araua urratzeak erru sentimenduak eragiten ditu, eta horiek orokorrean sexualitatearekin edo haren alderdi zehatzekin lotutako edozein egoerarekiko hurbilketan efektuak dituzte.

5.2.- Erotofobia - Erotofilia dimentsioa

Erotofobia-erotofilia sorkuntza garatzen duten autoreek, ikaskuntzaren paradigmaren bidez, pertsona bat erotismoarekiko prestasun positiboa edo negatiboa izatera nola iritsi daitekeen azaltzen dute, eta, era horretan, norberaren portaera baldintzatzen dute.

Erotofobia-erotofilia honela definitu daiteke: dimentsio positibo-negatiboan sexuarekin lotutako kontuei erantzuteko prestasuna. Autoreen arabera, barne-trinkotasuna du eta nortasun-ezaugarritzat har daiteke. Baieztapen hori hobeto dokumentatzeko, beste nortasun-aldagaiekin zuen lotura ikertu zuten, hala nola autoritarismoarekin, dogmatismoarekin, genero rol tradizionalarekiko atxikimenduarekin, ortodoxia-tasekin eta sexu-portaeraren hainbat alderdirekin.

Erotofobia edo erotofiliarekiko joerek sortzen dituzten ikertutako efektuak, orokorrean, sexuarekiko erru sentimenduekin lotutakoen antzekoak dira. Izan ere, esparru teoriko askotarikoetatik abiatu arren, errealitate berari dagozkion bi sorkuntza dira. Izan ere, erotofobiarekin eta sexuarekiko erru sentimendu handien arteko erlazio handia dago.

Jarrera hori, bada, nola sortzen da? Ezinbestean, mendebaldeko kultura funtsean sexofobikoa dela azpimarratu behar dugu, iraganetik jasotako oinordearen arabera. Testuinguru horretan, benetan zaila da sexu-garapena lantzeko aurrekarien inguruan sakonki ikertzea. Ikaskuntzaren –erotofobia-erotofiliaren teorikoen erreferentziazko testuingurua– teorikoak, jarrera ikasten dela defendatzen duen hipotesiaren aldekoak dira.

Hemen ezin dugu eredua garatu, baina, laburbilduz, esan dezakegu gizaki bat jaiotzen den unean bertan, sexualitatearekin lotutako kontuen eta ondorioen arteko lotura ezartzen dela. Mendebaldeko kultura-testuinguruan oso ohikoa da sexuarekin erlazionatutako guztiari kutsu negatiboa ematea. Autore horiek afektuaren teoria erabiltzen dute hura indartze aldera, eta, horren arabera, zentzu zabalean estimulazio sexualtzat hartutako orok afektu positiboa edo negatiboa (plazera edo antsietatea) eragin dezake eta ingurunearen mende egongo da. Afektuak erantzun ebaluatibo sorta bat sendotuko du, sexualitatearekiko

aurretiko prestasun (jarrera) positiboa edo negatiboa markatuko duena. Esan dezakegu zentzu horretan, sexualitatearen sozializazioa ezinbestekoa dela.

Pubertaroan, aurretiko jarrera hori indartsua da, eta informazio sexuala bereganatzea, gordetzea eta erabiltzea eta erotismora hurbiltzea, bertan integratzea eta saihestea baldintzatzen ditu.

Azken batean, continuumean zehar kokatzen dira pertsonak, eta haren poloak erotofobia eta erotofilia izango lirateke. Jarrerazko prestasuna iragazki bihurtzen da, jokabideez gain, sexualitatearekin lotutako kontuen pertzepzioa eta horren inguruko informazioaren prozesatzea baldintzatzen dituena. Arrazoi horregatik, sexuarekiko erru sentimenduekin lotutako ikerketen esparruan bezala, hainbat ikerketatan aztertu diren efektuak eragiten ditu.

Horretatik guztiatik ondoriozta dezakegu sexu-hezkuntzaren oinarrizko xedeetako bat jarrera positiboak sortzea dela. Beste era batera esanda, funtsik gabeko erro-sentimenduak edo jarrera erotofobikoak —deskribatu ditugun moduan— neutralizatzean datza. Horretarako, sexu-hezkuntza funtsik gabeko ideiak errotik kentzen saiatu behar da, nahikoa egiaztatuta dauden ezagutza zientifikoak emanez.

Zentzu horretan, programa honen erreferentziazko eredu biografiko-profesionalak ez du arau bakarra eta urratu ezin dena inposatzen, iraganean bezala. Eta ez du ezagutza partekatuan hastea estaltzen edo saihesten, baizik eta norberaren printzipio moralak —nahikoa egiaztagarriak diren ezagutza zientifikotan oinarritzen direnak eta pertsona arteko harremanen etikak erregulatzen dituenak— integratzeko norberak duen askatasuna defendatzen du.

5.3.- Sexismoa eta heterosexismoa

Sexualitatearekin lotuta, sexismoa eta heterosexismoa dira aintzat hartu behar diren beste joera batzuk.

Sexismoa sexuaren (arra-emea) arabera, eta zehatzago esanda, generoaren (emakumezko-gizonezko) arabera pertsonak diskriminatzeko prestasuna da. Diskriminazioa gertatzen da estandar kulturalek sexuen arteko harremana hierarkizatzen dutelako, emakumezkoena gizonezkoenaren mende ezarriz. Matxismoak gizonezkoen estereotipoa (nagusitasuna, indarra) goresten du, haren rol tradizionalaren arabera; emakumezkoak kaltetzen ditu, zeinen rola (mendekotasuna, ahultasuna) azpiratu eta zokoratu egiten baita gizarte-ordenan. Jarrerazko prestasun horrek sexuaren araberako desberdintasunerako jarrera sortzen du.

Sexu-dibertsitatearen ikuspegitik, heterosexismoa, sexismoaren forma berezia, sexualitateen hierarkiaren sineste gisa definitzen da, eta heterosexualitatea maila gorenean jartzen du. Kasurik onenean, homosexualitatea osatugabea, halabeharrezkoa eta gaiztoa dela esaten du, eta txarrenean, berriz, patologiko, kriminal, ez-moral eta zibilizazioaren suntsitzailetzat hartzen du.

Aurrez adierazi dugun bezala, oso errotuta dauden jarrera horiek jarreraren egiturarekin bat datoz, hortaz, osagai kognitibo batez osatuta daude, alegia, emakume eta gizonezkoen ezaugarriei buruzko sinesmenez; osagai afektibo-emozionala ere badute, hau da, harreman-egoera jakin batzuetatik sortzen diren erreakzio emozionalak, bai eta jokabidearen joera ere.

Egun, ezin dugu jarrera gailenez hitz egin. Pertsona guztiak ezin dira oso matxista edo sexistatzat hartu. Ez dagozkie sexuei, emakume eta gizonezko sexistak baitaude. Badirudi adinen arteko nolabaiteko erlazioa dagoela: adineko pertsonek gazteek baino matxistagoak izateko joera izango lukete, nahiz eta gazteengan ere, sexismo maila handia den. Edonola ere, bistakoa da ezarritako gizarte-ordenak oso sexista eta homofoboa izateko joera duela. Hezkuntza afektibo-sexualaren helburu nagusien artean berdintasunerako jarrerak lortzea da, hau da, ez sexistak ez homofoboak.

5.4.- Homofobia eta transfobia

Orientazio sexualari buruzko ikerketaren esparruan, haren sorrera azaltzen saiatzen diren lan asko eta asko daude. Hala ere, homosexualitatearen jatorria ikertu ordez, haren gizarte-bazterketaren, hots, **homofobiaren** inguruko ikerketa hasi berria da. Lehen hurbilketan, esango dugu homofobia homosexualitatea psikologikoki eta sozialki baztertzen duen jarrera dela. Beharrezkoa da, hala eta guztiz ere, kontzeptu hori argitzea.

Borrillok (2001) adierazten duen moduan, homofobia terminoa lehendabiziko aldiz erabili zuena K.T. Smith izan zela uste da. Bere artikuluan, honela definitu zuen homofobia: «homosexual batekin gune itxi batean egoteko beldurra, eta, homosexualei dagokienez, norberarekiko gorrotoa». Ikusten dugunez, definizio hori fobiaren kontzeptu klinikora mugatzen da soilik. Aldiz, homofobiak, zentzu zabalagoan –eta, ondorioz, psikosozialagoan–, bi esanahi ditu.

Lehenengoa fobiaren kontzeptu klinikora egokitzen den banakako dimentsioari dagokio, eta honela adierazten da: homosexualari edo homosexualitateari beldurra izatea, ikara psikologikoa, antsietatea, etab.Adierazi bezala, homosexuala den pertsonari beldur izatea edo homosexuala izateagatik bere burua ez onartzea da.

Bigarren esanahiak homosexualitatearen gizarte-bazterketari heltzen dio eta jarrera psikologikoaren kontzeptura egokitzen da gehiago. Jarrera-portaerarako prestasuna da, hiru osagaiez osatutako egiturak eratzen duena: kognitiboa, afektiboa eta jokabidearena. Homofobia, ikuspegi horretatik, ordena psikologiko, sozial, mediko, moral, juridiko, antropologiko, eta abarreko ideietan (osagai kognitiboa) oinarrituko litzateke, bai eta beldurra, sumindura, amorrua, haserrea eta abar erreakzio emozionaletan (osagai afektibo-emozionala) eta jokabidearen joeran ere, hauetan islatuko litzatekeena: ageriko bazterketa, segregazioa, eraso fisikoa edo hitzezkoa, marjinazioa, diskriminazioa, eta abar (jokabidearen osagaia).

Homofobia kontzeptuak, hortaz, errealitate beraren bi alderdi adierazten ditu:

a) Izaera afektiboko dimentsio pertsonala, homosexualak baztertzean islatzen dena.
b) Dimentsio kulturala, izaera kognitiboa duena, non arbuiatzen dena ez baita homosexuala gizabanako gisa, baizik eta homosexualitatea, fenomeno psikologiko eta sozial gisa.

Transfobia kontzeptu berri samarra da. Azkenaldian sortu da, gizabanakoen askatasunekin lotuta, giza eskubideen aplikaziotik eratorritako sexu-aniztasunaren adierazpenaren emaitza gisa. Transexualei edo transgenerikoei beldur izatea edo horiek baztertzea da. Jarrerari dagokionez, homofobiaren inguruan esandako guztia aplikatu daiteke. Edonola ere, transfobia esleitutako sexuaren erlatibizazioarekiko muturreko erreakzioa da; sexismoaren fruitu da, muturrekoa ere dena.

Sexu-identitatea zalantzan jartzeak eragiten duen segurtasunik ezan du sorburua. Hezkuntzaren arloan, kontuan izan behar dugu transfobia dela gizartean emakume zein gizon izateko moduekiko intolerantziaren muturreko adierazpena.

5.5.- Sexualitatearekiko jarreren eragina heziketa-prozesuan

Jarreren efektua ikaslearen garapen pertsonalean: esan genezake pertsona erotofobikoek sexu-esperientzia eurengan ez onartzeko joera dutela; hortaz, ezin dute aurreikusi, jarrerak ez dielako horretarako baimentzen. Beste era batera esanda, pertsona horiek pentsatu ohi dute esperientzia erotikoa besteen gauza dela, ez eurena. Gauzak horrela izanik, arriskua sortzen da, ezin baitira jabetu esperientzia erotikoak berekin dakartzan arriskuetatik norbera eta bikotekidea babesteko behar diren baliabideak eskuratu behar direla. Erotofilikoetatik aurkakoa espero da, eta pentsa dezakegu sexu-esperientziak desiratzen eta ilusioz beteak horien zain dauden pertsonak direla, zeinen aurrean babes-neurriak hartzen baitituzte.

Hortaz, jarrera positiboen sustapenak lagundu egingo die ikasleei beren prozesu biografikoan integratuko dituzten sexu-esperientziak era osasungarrian eta eraginkorrean kudeatzen. Zehazki, baieztatu daiteke preserbatiboaren erabilera egokia sexualitatearekiko jarrera positiboari esker lortuko dela, batik bat, eta ez erabili behar dela errepikatzearen errepikatzeaz.

Arriskuaren prebentzioari dagokionez, aurkikuntza hori garrantzitsua da, gerta daitekeen sexu-harremana aurreikusi ezin izatea, sexualki aktiboa den pertsona gisa sentitu ezin izatea edo ezin onartzea direlako, zalantzarik gabe, arrisku-faktoreetako batzuk, prebentziozko neurriak ere aurreikusi ezin baitira. Egoera hori, funtsean, erotofobiarako joera duten pertsonei dagokie, bai eta sexuarekiko erru sentimendu handiak dituztenei ere. Ondoriozta dezakegu, hortaz, jarrera positiboak, erotofilia edo sexuarekiko erru sentimendu txikiak sustatzea arriskuetatik babesteko faktore potentziala dela.

Alor horretan egindako ikerketetatik atera dezakegu sexualitatearekiko jarrera negatiboa duten pertsonek kontzepzio eta kontrazepzioaren inguruko informazio gutxiago dutela. Antza denez, hurbileko etorkizunean koito-portaerak aurreikusteko aukera txikiagoa dute. Horrez gain, litekeena da babesteko baliabideak (preserbatiboa, metodo antikontzeptiboak) ohikoak ez diren saltokietan erostea. Eta kontrazeptzio-neurriak hartzearen egokitasunaren inguruan, ez dute euren bikotekidearekin hainbeste hitz egingo edo zailtasun handiagoarekin egingo dute. Antisorgailuak gutxiagotan erabiliko dituzte. Antisorgailuak erabiltzearekiko jarrera oro har negatiboak izango dituzte.

Sexualitatearekiko erotofobia-erotofilian oinarritutako jarrerek edo sexuarekiko erru sentimenduek portaera homosexualetan ere badute eragina. Ondoriozta dezakegu arrazoi berberak direla medio, prebentzio-neurriak hartzea, preserbatiboak erabiltzea eta sexu seguruko teknikak baliatzea sexualitatearekiko jarreraren mende egongo direla. Erotofobia edo sexuarekiko erru sentimendu handiak dituzten pertsonek arazo handiagoak izango dituzte beren burua erotikoki aktibo gisa hartzeko, eta, hortaz, norbera babesteko arazo nabariak izango dituzte.

Jarrera negatiboa izateko joera duten pertsonek arrisku portaerak izatea, paradoxikoa izan daitekeen arren, jarrera bera baino indartsuagoak izan daitezkeen aldagaiak agertzearen mende dago, hala nola lotura afektiboa izateko beharra edo boterea izateko beharra; horiek izango dira, hain zuzen, pertsona horiek arriskutsuak diren

sexu-portaerak izatera bultzatuko dituztenak. Hau da, desira erotikoa beste behar batzuen zerbitzura jarriko litzateke, eta horren emaitza esperientzia erotikoaren kalitate urria izango litzateke. Deskribatutako babeste zailtasunek hartutako arriskua azalduko lukete.

Jarreren efektua irakasleengan: aipatu dugun moduan, hainbat ikerketak aztertutako efektuak eragiten dituzte sexuarekiko erru sentimenduek nahiz erotofobia-erotofilia sorkuntzak. Luzeegia izango litzateke hemen guztiak azaltzea.

Jarreraren aldetik, irakasleriak oso kontuan izan behar du sexualitatearekiko prestasuna, frogatuta baitago heziketa-prozesuan ondorioak sortzen dituela. Egituraren analisian adierazi dugun bezala, sexualitatearen inguruko ideiak oso lotuta daude barru endotimikoarekin erlazionatu daitezkeen emozio sakonekin. Bertan daude sentimenduak, emozioak, gogo-aldarteak eta joerak, eta ni kontzienteak ezin du hori zuzenean kontrolatu. Ahulagoak egiten gaituen lekua da, horregatik, sexualitatearen aurkako jarrerazko erreakzioak ahultasun horren defentsa moduan interpreta ditzakegu.

Sexualitatearekiko jarrera negatiboak ez daude zuzenean ideologiaren –kontserbadorea zein progresista– mende, niaren segurtasunari lotutako istorioa emozionalaren baitan baino. Arrazoi hori dela eta, hezkuntzarekin eta pertsona arteko harremanekin lotutako lanbide guztiek arrazoimenean oinarritutako ahalegin bat egin beharko lukete jarrerazko prestasunak ezagutzeko, ulertzeko eta kudeatzen jakiteko erotismoa eta horrekin lotutako afektuak bezalako gai labainen inguruan, erreakzio irrazionalek euren lanean eraginik ez izateko helburuarekin.
Sexu-jardueraren ikuspegitik, erotofiliarako joera duten hainbat pertsonak alferrikako arriskuak hartuko lituzkete. Erotofiliarako joera izateak ere ez ditu portaera erregulatzeko behar diren baliabideen ezta funtsezko printzipio etikoen gaineko bermerik ematen. Horregatik da hain garrantzitsua sexu-hezkuntza.

Aurrekoa adierazteko, hezitzaileen prestakuntzan dugun esperientziatik ateratako adibide bat jarriko dugu. Behin ariketa hau egin genuen: boluntario bat eskatu genuen, taldeari ugalketaren fisiologia azaltzeko. Ondo baino hobeto egin zuen, diskurtsoa arina izan zen, arbelean grafikoak marraztu zituen, dena xehe-xehe azaldu zuen. Jarraian, plazeraren fisiologia azaltzeko eskatu genion. Urduri jarri zen berehala, totelka hitz egiten hasi zen, listu jarioa ugaritu, eskuak izerditzen hasi eta arazo askorekin, ia ulergaitza zen diskurtsoa egin zuen. Ikus daitekeenez, jarrerak huts egin zion eta efektu nabariak eragin zituen harengan (ikusi erreakzio fisiologikoak). Azalpen baten eta bestearen arteko diferentzia da lehenengoaren objektua neutroa zela, bigarrenean objektua erotismoarekin zuzenean lotuta zegoen bitartean. Egia esan, boluntarioak nahikoa informazioa zuen giza erantzun sexuala azaltzeko, azken batean, hura baitzen azaltzeko eskatu geniona. Jarrerak haren diskurtsoa oztopatu zuen.

6.- Garapen psikosexuala DBHn

Etapa horretan, ikasleria pubertaroan dago, non aldaketa garrantzitsuak gertatzen baitira. Garapen psikosexualaren ikuspegitik, bi aipatu behar dira: gorputzaren morfologia eta pubertaroko erotismoa (ikus Moneyren eskema 6. grafikoan).



MONEY, J. y EHRHARDT, A. E. (1972). *Man and Woman, Boy and Girl.* . Baltimore: Johns Hokins University Press).

6. Grafikoa. - Genero-identitatearen garapena.

6. grafikoak genero-identitatearen garapena erakusten du; hau da, gizakiok sexuazio-prozesuan egiten dugun bidea. Ibilbide horretan, generoaren oinarrizko identitatea bereganatzen dela nabarmendu behar da, hiru urte inguru ditugunean. Grafikoan adierazten den moduan, neska edo mutila den jakiteko umetoki-barneko sexu-bereizketaren emaitza baliatzen da, eta hori dimorfismo genitalean adierazten da. Lehenengo hiru urteotan, umetxoak besteen portaera aktibatzen duen gorputz sexudunaren eskema integratzen du, sexuaren araberako heziketa-materialetan gauzatzen dena eta genero-edukiak dituena. Moneyk izendatutako heziketa-sexua da hori.

Ikusten dugunez, fetuaren hormona-mailak sexuazioaren oinarri biofisiologikoak osatzen ditu, sexu- eta genero-identitatearen lehenengo ideia sortzen laguntzen duena, hiru urte inguruan. Aurrerago, pubertaroan, pubertaroko hormona-maila aktibatzen da eta horrek bi efektu eragiten ditu. Lehenik eta behin, gonadotripinek gorputzaren sexuazioaren azken fasea martxan jartzen dute, eta gorputzari forma ematen dioten bigarren mailako ezaugarri sexualak agertzen dira, pubertaro-nerabezaroko morfologia eratuz. Gorputz sexudun berria sexu-identitatearen oinarrizko euskarria da. Hortaz, gorputzaren aldaketek identitatea birdefinitzea eskatzen dute, ezinbestean.

Bigarrenez, pubertaroko erotismoa aktibatzen da, oinarrizko hezkuntzan gehien ahaztutako fenomenoa, dudarik gabe. Testosterona-mailak nabarmen igotzen dira, nesken zein mutilen artean. Ondorioz, desira erotikoa aktibatzen da eta itxuratu behar da.

Sexu-hezkuntza ikasleriaren une psikosexualera egokitu behar da, hortaz, jarraian azaltzen ditugun hiru garapen-ildoak aintzat hartu beharko dira:

a) Sexu- eta genero-identitatea

b) Desira erotikoaren antolaketa eta itxuraketa

c) Sexualitatearekin lotutako afektuak

6.1.- Sexu- eta genero-identitatea

Garapen psikosexualaren ikuspegitik, gorputzean gertatzen diren aldaketak ezin dira testuingurutik kanpo azaldu. Hain zuzen ere, etapa horretan gertatzen diren gorputz-aldaketen ezaugarri gisa sexuazio fisikoaren azken fasea direla har dezakegu, eta horrek zuzeneko eragina du identitatearen garapenean.

Sexu-hezkuntzaren ikuspegitik, ikasleak ezagutu behar ditu haren gorputzean nola beste sexuan izango diren aldaketak. Pubertaroko aldaketek funtzio berriak sortzen dituzte, hala nola ugalkortasun-ahalmena eta esperientzia erotikoa.

Psikologiaren aldetik, gorputzaren aldaketek gorputzaren irudi berria garatzea eta integratzea eskatzen dute. Horrek bai autokontzeptuan bai autoestimuan izango du eragina.

Ahalmen kognitibo berriek errealitatea era konplexuago batean analizatzeko bide ematen dute. Horregatik, umeak hiru urte inguruan bereganatu bazuen oinarrizko nortasuna, garapenaren une horretan, aurrenerabeek euren nortasuna berriro definitu beharko dute. Sexu-identitatea da pertsona bakoitzak, gorputz sexudunari jarraikiz, emakume nahiz gizon izateko duen kontzientzia. Genero-identitatea da norberak emakume zein gizon izateko duen kontzientzia, mendeetan zehar kulturak sexuazioaren gertaera biologikoari egindako esleipenen arabera. Esleipenok genero estereotipoak osatzen dituzte.



7. Grafikoa. - Identitatearen garapena.

Sexu-hezkuntzaz baliatuta, pertsona oro gai izan behar da aniztasuna antzemateko, dela gorputzeko diferentzietan dela gizon nahiz emakumezko izateko moduetan. Hain zuzen ere, aniztasuna erreferentziatzat hartuta, sexu-hezkuntzaren helburuetako bat da pertsona bakoitza bere sexuazioaren diseinuaren protagonista sentiaraztea.

Mendebaldeko gizarteak aurrerapauso handiak egin baditu ere berdintasunari eta aniztasuna errespetatzeari dagokienez, ezin da ahaztu ikasleriaren sozializazio-esparruaren edukiak sexistak direla oraindik. Inertzia kulturala dela bide, estereotipo sexualek erreferentziazkoak izaten jarraitzen dute oraindik ere; horregatik, horiekin bat ez etortzea —emakume edo gizon izateko moduan edota sexu-desira bideratzeko moduan ere— oztopo handia izan daiteke autokontzeptuaren eta autoestimuaren garapenean.

Hori dela eta, sexu-hezkuntza pubertaroko gorputzaren aldaketez baliatu behar da ikasleei rol tradizionalak erlatibizatzeko eta zalantzan jartzeko aukera emateko, kontsumismoak inposatutako edertasunaren arauen tiraniaz jabetzeko, sexu-aniztasuna bereizi ahal izateko, guztia norberaren garapenaren protagonista izan ahal izateko helburuarekin.

Ezin da zalantzan jarri sexuazioarekin lotutako aldaketak ez direla isolatuta gertatzen, banakako prozesu baten moduan; horren ordez, pertsona arteko harremanean garatzen dira erreferentziazko gizartearen berezko diskurtso sexuala eta generikoa duen truke esparruan. Identitatearen beraren edukien zati garrantzitsu bat osmosi gisa transmititzen da sozializazio-ingurunean, genero-rolen bidez. Nerabera bere gizarte-ingurunean dago, eta haren identitatearen garapena ingurumenarekin ezartzen duen ispiluko harremanean gauzatzen da. Besteak bere burua ikusten duen ispilua dira. Besteek nerabeak proiektatutako irudia itzultzen diote. Irudi hori, neurri handiagoan edo txikiagoan distortsionatu daitekeena, sexuduna da ezinbestean, formaren (gorputzaren irudia) nahiz edukiaren (genero-rolak) aldetik.

Modu horretan, puntu horretako helburuak dira, batetik, ikasleriak bere burua gai ikustea etapa horretan gertatzen diren sexuazio-aldaketek sorrarazten dituzten sentimenduak ulertzeko eta kudeatzeko, eta, bestetik, etapa horri dagozkion zailtasunak prebenitzea.

Aipatu dugun bezala, pubertarotik aurrera gertatzen den eraldaketak ez du kanpoko itxura fisikoan soilik eragina, pubertaroko erotismoaren agerpenean ere. Hala, gorputzaren aldaketaren eta jarraian garatuko dugun desira erotikoaren arteko lotura ezarriko da.

6.2.- Desira erotikoa

Gehiegizko sinplifikazio batek desira erotikoa edo sexu-desira testosteronaren efektua besterik ez dela adieraziko luke. Horrek adoretu egin du gizonezkoengan batez ere, kontrolaezina izan daitekeen aktibazioa eragiten duela dioen sinestea. Horregatik, sexu-desira bulkada arriskutsutzat hartu ohi da, kontrolatzen zaila dena. Gainera, mendebaldeko kulturaren tradizio judu-kristauan oinarritutako ikuspegitik begiratzen badugu, ez da harritzekoa giza dimentsio hori, erotikoa, tabu bihurtu eta ondorioz, oso labaintzat hartu izana, norberaren intimitatearen zati eta eskolako esparruan tratatzea desegokia dena.

Zorionez, sexu-desiraren inguruan egun ditugun ezagutzek emozio gisa aurkezten digute. Desira erotikoa, hain zuzen ere, emozio konplexua da, eta hala, oinarri biofisiologikoak ditu euskarri, kognitiboki egituratzen da, eta neurri batean, gizartean eraikitzen da.



8. grafikoa. - Sexu-desiraren garapena.

Pubertaroan aldaketa kualitatibo bat gertatzen da: haurtzaroko erotismo autoerotiko eta egozentrikotik pubertaro-nerabezaroko erotismora pasatzen da, eta hura ikuspegi horretatik erakargarriak diren beste pertsonengana bideratuko da. Hortaz, haurtzaroko esperientziak aintzat hartuta, sexu-desira une horretatik abiatuta eratuko da.

Desira erotikoaren eraketaren funtsa pertsona bakoitzarentzat balio erotikoa izango duten edukiak ezartzea da, iruditeria erotikoa eratzeko bide emanez. Iruditeria, esaten ari garen bezala, irudi eta irudikapen mentalen multzoa da. Horiek ahalmen aktibatzaile handia dute eta emozio oro bezala, ekiteko joera eragiten dute, hau da, portaera espezifikoen bidez lortutako gogobetetze erotikora bultzatzen duen motibazioa sorrarazten dute.

Desira erotikoaren eraketan funtsezkoa den elementuetako bat orientazioa da. Izan ere, gaia landu duten autore nagusiek adierazten duten moduan, desira erotikoa pubertaro aurreko urteetan bideratzen da, eta portaeren aurrekoa da. Beste era batera esanda, sexu-portaerak, autoerotikoak edo partekatuak, homoerotikoa zein heteroerotikoa izan daitekeen aurretiko orientazioak bideratzen ditu.

Desiraren eraketa ez da giza psikismoan era isolatuan jardun duen dimentsioa. Aldiz, heterosexualitatea eta homosexualitatea emakume edota gizon gisa munduan kokatzeko moduarekin lotuta daude zuzenean, hau da, sexu- zein genero-identitatearekin. Desiraren orientazioa autokontzeptuaren (ni naiz ni, eta emakume/gizon izateko berezko modua dut, eta definitzen nauten ezaugarrietako bat homosexuala izatea da), eta autoestimuaren (autokontzeptuaren balorazio pertsonala eta globala) zati da.

6.3.- Lotura afektiboa

Helduen esperientzia erotikoaren kalitatea intimitatera sartzea ahalbidetzen duen oinarrizko segurtasunak baldintzatzen du. Aldi berean, hura bizi garapenean zehar bizitako harreman sozioafektiboen kalitatearen mende dago. Bizitzako lehenengo uneetan ezarritako lotura harremanek barne-ereduak finkatzen dituzte, pertsona esanguratsuekin izandako eragin-trukeen emaitza gisa sortzen diren irudikapen mentalez osatuta daudenak. Barne-ereduak atxikimendu estiloetan adierazten dira. Barne-eredua osatzen dute: norberaren ereduak autoestimuarekin lotuta, eta besteen ereduak besteekiko konfiantzari dagokionez.



9. grafikoa. - Lotura afektiboaren garapena.

Pertsonak honela taldeka ditzakegu: beren buruan konfiantza dutenak eta konfiantzarik ez izateko joera dutenak. Azken horiek izan ohi dituzten harremanetan antsietatea eta anbibalentzia edo saihestea dira nagusi. Beren buruan konfiantza dutenak enpatikoagoak izaten dira, emozioak era koherenteagoan erregulatzen dituzte, inguruko pertsonak sentiberatasunez zaintzeko joera handiagoa dute eta intimitatearen esparrura segurtasun eta konfiantza handiagoz sartzen dira.

Harreman pribilegiatuak ezartzen ditugun pertsona esanguratsuei atxikimendu-figurak deritzegu. Haurtzaroan, atxikimendu-figurak ama eta aita izan ohi dira; baliteke, ordea, beste pertsona heldu esanguratsuak izatea. Atxikimendu-figurek segurtasun-oinarria izan eta estutasun- edo babesgabetasun-egoeretan babesa eman behar dute. Eboluzioaren ikuspegitik, lotura afektiboaren inguruan nerabezaroan gertatzen diren aldaketa esanguratsuenetako bat kidekoen arteko atxikimendu-figura berrien eraketa da. Pixkanaka, atxikimendu-figuren berezko funtzioak kideko, lagun min eta lehenengo bikoteek hartuko dituzte. Hala ere, ama, haurtzaroko atxikimendu-figura nagusia den aldetik, bizi zikloan zehar mantenduko da, bigarren mailan bada ere.

Eta dinamika horretan indartsu agertuko dira sexualitateari —ikuspegi zabaletik begiratuta— bereziki dagozkion atxikimendu batzuk, besteak beste, maitasuna, maitemina eta pertsonen arteko erakarpena.

Sexu-desirak eta lotura afektiboak partekatzen duten alderdia bi emoziook beste pertsonarekin harreman intimoak izatera bultzatzen dutela da. Ulertu beharra dago sexu-desira eta maitasuna bi dimentsio ezberdin

direla, jatorri ezberdinekoak, eta, ondorioz, behar ezberdinak sortzen dituztela. Zenbaitetan, hala ere, nahastu egiten dira, eta pasioa deitu ohi den horretan biltzen dira. Sexuak eta maitasunak bat egiten dutenean, bi gauza gerta daitezke: a) elkarri indarra ematea, edo b) elkarri enbarazu handia egitea.
Hezkuntzaren xedeetako bat zera da, gai horiek lantzea, ulertzea, ikastea eta eztabaidatzea, ahal dela, esperientzia afektibo-sexuala gertatu baino lehen.

6.4.- Identitatearen, lotura aftektiboaren eta desira erotikoaren batura

Hezkuntzak, orokorrean, pertsonak modu integralean prestatu nahi ditu, beren garapen pertsonalean laguntzeko era horretan. Pertsona bakoitzaren funtsezko nukleoa bere nia da, hau da, identitatea. Hori da, hain zuzen, kontzientzia, norberari buruz bakoitzak garatzen duen teoria. Identitatearen bi ezaugarri bereiz ditzakegu: 1) identitate existentziala: «Ni naiz, existitzen naizelako». 2) Kategoria-identitatea: «Ni naiz, eta hainbat kategoriaren bidez definitzen naiz». Sexu-terminoetan, sexu-identitatea eta genero-identitatea niaren kategoria iraunkorrak dira.

10. Grafikoan beha dezakegu deskribatutako hiru dimentsioek —identitatea, lotura afektiboa eta desira erotikoa— identitatea, nia eratzen laguntzen dutela eta hura osatzen dutela.



10. grafikoa. - Garapen-ildoen arteko erlazioak.

Bigarren zatia

7.- Sexu-hezkuntza hezkuntza-sisteman integratzea

1. puntuan, gida honen aurkezpenean, programa kontzeptuaren inguruko gogoeta kritikoa planteatu dugu. Bertan egindako oharrak aintzat hartuta, gogoratzen dugu testu hau ez dela sexu-hezkuntzako programa bat aplikatzeko gida bat, ezpada sexu-hezkuntza hezkuntza-sisteman integratzeko gida. Hau da, derrigorrezko hezkuntzako curriculuma zehazten duten legezko testuek adierazten dituzten edukiak eta gaitasunak eguneratzea da helburua, giza sexualitatea bere adierazpen guztietan gaitzat dutenak.

Hainbat ezagutza-arloetako derrigorrezko programen edukiak aztertzen badira, sexualitatearekin lotutako hainbat gai aurkituko ditugu, hala nola gorputzaren ezagutza, giza ugalketa, harremanen etika, generoa, sexu-aniztasuna, osasuna, etab. Programa honek ikastetxeen baliabideak optimizatu nahi ditu, gaiak hobetuz eta eguneratuz giza sexualitateari buruzko ezagutza zientifikoak aurrera egiten duen heinean, eta teknologia berrietan sorburu duten beste baliabideetara egokituz.

11. grafikoan adierazten den moduan, eskolatze-aldiak sexualitatearen esparruan beharrezkoak diren gaitasunak lortzeko gai garrantzitsuak jorratzen direla bermatu beharko luke. Horretarako, programa honek berak emango dituen testu homologatuen bidez edukiak irakatsiko direla ziurtatu behar du. Zalantzarik gabe, curriculumeko oinarrizko gaiak programazioetan zehaztu eta ebaluatuak izan behar dira.

Sexualitatea dimentsio anitzeko errealitatea denez, diziplinarteko ikuspegia baliatu behar dugu hura lantzeko. Hortaz, ezagutza-arlo bakoitzak bere edukiak txertatu beharko ditu. Adibidez, natura-zientzien arloari dagozkio gorputzaren ezagutza, sexu-erantzuna eta sexu-osasunarekin lotutako alderdiak (sexu-portaerarekin lotutako arriskuak prebenitzeko baliabideen ezagutzea, preserbatiboaren erabilera, metodo antikontzeptiboak, etab.). Gizarte-zientzien ardura dira sexuaren araberako pertsona arteko harremanei dagozkien gaiak eta sexuen ondoriozko genero-inplikazioak: genero-rolen analisi kritikoa, sexu- eta genero-aniztasunaren oinarriak, etab. Herritartasunerako etika eta hezkuntzaren eta giza eskubideen alorrari dagozkio harremanen etikaren eta eskubide eta betebehar sexualen gaiak jorratzea, eskubideok eta betebeharrok harremanen etikaren, sexualitatearen esparruko indarkeriaren prebentzioaren, aniztasunarekiko errespetuaren, eta abarren ondoriozkoak direla ulertuta. Tutoretza-jarduerak esparru guztiak integratu beharko lituzke, bizitza errealean eta egunerokoan praktikoki aplikatu ahal izateko. SEXUMUXU aplikazioa alor guztiek bat egiteko esparru gisa planteatu dugu.

Helburua da arlo bakoitzak bere edukiak lantzea, xede orokor bat erdietsi ahal izateko***: DBH bukatutakoan, ikasleriak behar afektiboak eta sexualak kudeatzeko behar dituen gaitasunak bereganatzea.***

11. grafikora itzuliz, ikus dezakegu curriculumeko gaiak irakaskuntzako programazioetan egon behar diren ikasgelako edukietan gauzatzen direla. Irakasleriak lan hori egiteko behar adina baliabideak izan behar ditu. Baliabideok sexualitatearekin lotutako oinarrizko gaiei[2] buruzko testu eguneratuetan mamitzen dira, eskolako curriculumean sartzen direnak, bai eta jarduera osagarritan ere.

[2] Gaiok 8. puntuan zehazten dira.



11. Grafikoa. - Sexu-hezkuntza hezkuntza-sisteman integratzea.

SEXUMUXU aplikazioa objektu digital hezigarrien multzo bat da, bi xedeetarako pentsatua eta diseinatua:

1) Irakasleriaren ikasgelako jarduerarako baliabidea izatea.

2) Ikasleriaren ikaskuntza autonomoa sustatzeko baliabidea izatea.

Inolaz ere, SEXUMUXU aplikazioak ezin du ikasgelako ikaskuntza arautua ordeztu. Azpimarratzen dugu irakaskuntza-ikaskuntza prozesua laguntzeko diseinatuta dagoela.

Programa honek **ikastetxeen baliabideak optimizatu** nahi ditu, gaiak hobetuz eta eguneratuz giza sexualitateari buruzko ezagutza zientifikoak aurrera egiten duen heinean, eta teknologia berrietan sorburu duten beste baliabideetara egokituz.

Ez da zeharkakotasunean oinarritzen, ezpada **diziplinartekotasunean**. Horrek esan nahi du alor bakoitzak bere gain hartzen duela bere espezialitateak sexualitateari buruz ematen dituen curriculum-edukien gaineko erantzukizuna.

Oinarrizkotzat hartzen diren gai guztiak DBHn emango direla bermatzeko, alor bakoitzeko **irakaskuntzako programazioetan** txertatuta egon behar dira.

Tutoretzak arloen **ekarpenak globalizatzeko eta integratzeko** funtzioa du, horiek eguneroko bizitzan aplikatu ahal izateko.

Objektu digital hezigarriak (ODH) irakaskuntzarako baliabideak dira, teknologia berrietan oinarritzen direnak, baina inolaz ere horien ordezkoak izan ezin direnak.

7.1.- Sexu-hezkuntza

Ez litzateke egokia izango hezkuntzaren kontzeptu orokorraz mintzatzea hemen, baina haren bi funtziotan jarriko dugu arreta: informazioa eta prestakuntza.

Heztea informatzea dela suposatuta, heziketa eskolatze-aldian zehar ezagutzak transmititzea izango litzateke. Sexu-hezkuntzaren funtsa, hortaz, giza sexualitatearen oinarrizko edukien inguruko ezagutzak transmititzea izango litzateke. Baina, zer eduki?

Eredu biografiko profesionalaren arabera, transmititu beharreko edukiak izan behar dira ebidentzia enpirikotan oinarritutako nahikoa babes zientifikoa dutenak. Ezagutza gaitasunen eskurapenaren zerbitzura jartzean datza. Programa hau eduki eguneratuak ematen saiatzen da.

Heztea prestatzea bada, heziketa-prozesuan «lan egiteko guneak» sortu beharko lirateke. Bertan, ikasleriak bere burua besteekin eta ingurunearekin aurrez aurre jarriko luke beraren bizitzan garrantzitsuak diren gaietan, eta pertsona aske, autonomo, kritiko eta arduratsu gisa heziko litzateke; hala, nork bere nortasuna eraikitzeko eta behar afektibo eta sexualei erantzuteko baliabideak bereganatuko eta integratuko lituzke, beharrezkoak diren gaitasunen eskurapenaren bidez.

Horregatik, eta bi funtzioak baliotsuak direla aintzat hartuta, hona hemen programa honetarako erabili dugun sexu-hezkuntza kontzeptuaren definizioa:

"Sexu-hezkuntza baliabide-, estrategia- eta jarduera-multzo bat da, eta haren helburua da heziketa-prozesuan zehar, ***lan egiteko guneak*** *sortzea, non ikasleak bere sexualitatea eraikitzeko behar dituen* ***GAITASUNAK*** *bereganatu ahal izango baititu, hau da, non aniztasunean oinarrituta, emakume zein gizon izateko modu pertsonala garatu ahal izango baitu. Ondorioz, sexu-hezkuntzak honako hau bermatu behar du:*

a) Xede horretarako behar diren ***ezagutzak bereganatuko*** *direla bermatu behar dio ikasleriari.*

b) Trebetasun pertsonalak eta sozialak (gaitasunak) eskuratuko direla ziurtatu behar du, pertsona aske eta autonomoak izateko modua berretsiko duten esperientziak haren biografian txertatu ahal izateko, sexu-edo genero-orientazioa gorabehera.

Sexu-hezkuntzak eman behar ditu esperientzia erotikoez era egokian eta sexu-portaerari berezkoak zaizkion arriskuetatik babestuta gozatzeko behar diren baliabideak.

Horretarako, beharrezkoa da ikasleria garatuko den ingurunea behar bezala ezagutzea: bertan bi sexuen arteko harremanen inguruko gizarte-diskurtsoa da, eta sexismoa eta desberdintasunerako joera nabaria du ezaugarritzat".

7.1.1.- Hezkuntza afektibo-sexuala terminoaren inguruan

Giza sexualitatearen ikerketaren esparruan, sexu-hezkuntza izendatzeko hainbat termino erabili dira. Egin dezagun gogoeta labur bat. Termino bakoitzaren erabilerak erabiltzaileek eman nahi dioten enfasiaren adierazle dira.

Hala, profesional batzuk hezkuntza afektibo-sexuala terminoa erabiltzen dute; horren bidez, azpimarratu nahi dute proposamenaren euskarriak ez direla zentzu hertsian sexualak diren alderdiak, hots, sexu-portaerari bakarrik dagozkionak, aldiz, sexu-esperientziarekin erlazionatutako alderdi afektiboak ere sartzen direla. Zentzu horretan, eta nazioarte-mailako ikuspegitik, bizikidetzarako hezkuntza, hezkuntza sexuala eta afektiboa eta harremanen hezkuntza eta sexu-hezkuntza terminoak erabili izan dira.

Beste batzuk sexu-hezkuntza terminoa erabiltzen dute soilik. Horietako batzuen edukia sexu-portaerak eta esperientzia erotikoa dira bakar-bakarrik. Besteek, aldiz, eduki zehaztugabeak dituen termino generiko gisa baliatzen dute.

Erabiltzen diren terminoek, neurri batean, jarrera ideologikoa ere adierazten dute. Baten batek uste du sexual adjektiboari beste edozein termino gehitzean hura indargabetzen dela eta beste jarrerekiko beligerantzia erakusten duela. Afektibo terminoaren azpian, kutsu kontserbadorea ezkutatzen dute beste batzuek. Gainera, kontuan izan behar dugu batzuetan, termino bat edo bestea erabiltzea moda kontua baino ez dela, denborarekin edo une bakoitzean politikoki zuzena denaren arabera aldatzen dena.

Sexu-hezkuntza adieraren edukia, aurreko adierazpenak alde batera utzita, abiapuntutzat hartzen duen sexualitatearen kontzeptuaren mende egongo da, batik bat. Sexualitatearen barruan sexu-portaera eta ugalketarekin lotutakoa baino ez bada sartzen, sexu-hezkuntza gaion inguruko informazioa ematera mugatuko da. Sexualitatea gai morala dela uste bada, sexu-hezkuntza zentzu jakin batean doktrinatzeko erabiliko da. Programa honetan sexu-hezkuntza erabiltzea erabaki dugu, hurrengo arrazoi hauengatik:

Lehenik eta behin, hezkuntza kontzeptuaren edukiak laugarren puntuan adierazi dugun sexualitatearen kontzeptuaren oinarri teorikoari egiten diolako erreferentzia. Hori dela eta, programa honetan erabilitako sexu-hezkuntza terminoak honako hauek barne hartzen ditu:

a) Sexuazioa bizitzeko moduekin lotutakoa: gorputz sexudunak, sexu- eta genero-identitatea, aniztasuna, sexuen arteko harremanak.

b) Motibazio sexualarekin, desira erotikoarekin, horren orientazioarekin eta horretan jatorria duten sexu-portaerekin lotutakoa.

c) Atxikimenduekin, emozioekin, esperientzia erotikoari dagozkion sentimenduekin erlazionatutakoa.

Sexu-hezkuntza terminoa aukeratzeko beste arrazoi bat izan da literatura zientifikoan, deskribatzaile ohikoena «sexual education» dela. Hala, azterketa- eta ikerketa-esparrua mugatzen laguntzen dugu.

7.1.2.- Sexu-hezkuntzaren helburuak

Puntu honetan derrigorrezko eskolatze-aldian zehar sexu-hezkuntzak erdietsi behar dituen helburuak aurkeztuko ditugu.

1.- Ikasleriak behar afektibo eta sexualak erregulatu ahal izateko behar dituen gaitasunak garatzen eta eskuratzen laguntzea.

Jomuga horren enuntziatuak oso lausoa den irudipena sor dezake. Alabaina, nabarmen zehaztu dezakegu. Lehenik eta behin, gaitasuna terminoa operazionalizatu behar da: termino horrek pertsona orok bere bizitza sexuala bideratzeko eta kontrolatzeko izan behar dituen elementuak barne hartzen ditu. Guk, besteak beste, hauek aukeratu ditugu:

Ezagutzak: giza sexualitatearen inguruko informazio objektiboa, zorrotza eta zientifikoa. Eduki zehatzak programaren egiturari eskaini diogun kapituluan definitu ditugu.

Sexualitatearekiko jarrera positiboa: badakigu sexualitatearekiko[3] jarrera positiboak behar afektibo-sexualen integrazioari mesede egiten diola pertsona gisa hazteko prozesuari. Esperientzia erotikoa izaten laguntzen du. Babes-faktoreekin erlazionatu ohi da, alegia, esperientzia erotikoari berezkoak zaizkion arriskuak kudeatzeko gaitasuna hobetzearekin.

Autoestimua eta autonomia. sexuen arteko harreman desorekatuek autoestimua eta autonomiaren garapena baldintza dezakete. Emakumeen eta gizonen subjektibotasunaren eraikuntza emakumeen mendekotasuna sustatzeko joera duen gizarte-ingurunean garatzen da. Edonola ere, lotura afektiboari dagokionez, besteekiko (lagunak, bikotekidea, etab.) mendekotasunaren eta autonomia pertsonalaren maila hobezinaren arteko oreka baliabide ezinbestekotzat jotzen dugu.

Gizarte-trebetasunak. behar afektibo nahiz sexualak antolatzeko, integratzeko eta asetzeko behar den gaitasuna izateko aukera ematen dute. Beste pertsona bati esperientzia erotikoak partekatzeko eskatzeko gaitasuna adierazten du. Bai eta ezetz esateko gaitasuna ere, beharrezkoa denean. Frustrazioarekiko tolerantzia eta oinarrizko beharrak asetzeko bilaketa-jarrera eskatzen ditu, bai eta une zailetan laguntza eskatzeko gaitasuna ere, arrazoizko ongizate maila lortze aldera.

Enpatia. Esperientzia erotikoan, enpatia beste pertsonaren lekuan jartzeko ahalmena da, haren sentimenduekin bat egiteko, haren beharrak egokiro interpretatzeko: *«Sexu-harremanak partekatzen ditugunean, zuri gertatzen zaizuna niri ere badagokit».* Zalantzarik gabe, baliabide hori duten pertsonak ez dira babestuagoak egongo bakarrik, arduratsuagoak izango dira ere. Eta, aldi berean, alferrikako arriskuetatik babestuko dituzte euren bikotekideak.

[3] Ikus jarreren inguruko atala.

2.- Ezagutza zientifikoa eta sexu-hezkuntza berdintasunezko harremanak sustatzeko erabiltzea. Sexualitatea emakume edo gizon izateko modu ezberdinek osatzen dute, eta hala izanik, programa honen funtsezko helburuetako bat berdintasunezko harremanak sustatzea da. Horrek ez du esan nahi izateko moduetan uniformetasuna defendatzen dugunik; aldiz, botere-asimetriaren ondoriozkoak ez diren eta inposiziorik, azpiratzerik edo esplotaziorik gabeko pertsonen arteko harremanen alde egiten dugu, horiek izan baitira, tradizionalki, emakume eta gizonen arteko harremanak markatu izan dituztenak. Horrekin guztiarekin pertsonen arteko berdintasunezko harremanak erdietsi nahi ditugu –sexua eta sexu-joera gorabehera– pertsona gisa garatzeko aukera berdinak ezarriko dituztenak.

3.- Ezagutza zientifikoa eta sexu-hezkuntza erabiltzea aniztasunaren errespetua sustatzeko orientazio sexualari dagokionez. Balio tradizional sexistek heterosexualitatea eta homosexualitatea maila ezberdinetan jartzen dituzte. Egun, homosexualak onartu arren, homosexualitatea ez onartzeko joera ikus dezakegu. Maila txikiagokoa dela uste da. Era horretan, orientazio sexuala dela-eta homosexualak desberdintasun egoera handi samarrean mantentzen dituen halako jarrera homofobiko ez esplizitu batek dirau.

Helburu horrek nahi du orientazio homosexualeko pertsonei ez eragitea, euren garapen psikosexualean eta pertsonalean, hezkuntzako zein gizarteko testuinguruan jarrera homofoboek sortzen duten diskriminazioa.

4.- Emakume eta gizonezkoen arteko izatezko eta zuzenbideko berdintasuna sustatzea bikote-harremanetan biolentzia-arazoak prebenitzeko. Biolentzia —harreman afektibo eta sexual hertsatzaileetan nahiz indarkeriazkoetan jatorria duena— emakumeen azpiratzearen adierazpen garrantzitsutzat hartu behar dugu; horren arrazoia, euren muga eta gabezia pertsonalen eraginez, askotan, biztanleriaren sektore batek sortutako botere-egitura. Sexismoa emakumeen aurkako biolentzia tasa areagotzen laguntzen duen faktore bat da. Programa honen xede nagusietako bat pertsonen arteko harremanak berdintasunezkoak izatea da, inposizioak alde batera utziz.

5.- Gizonen eta emakumeen eskubide eta betebehar sexualak aitortzea sexu-abusuko arazoak konpondu eta prebenitu ahal izateko. Sexu-desira eta horren eraketa nerabezaroan zehar da sexu-hezkuntzaren esparruko gaien artean, deserosoenetako bat. Sexu-abusua, beste gauzen artean, sexu-desira erregulatzeko porrota da. Programa honek sexu-abusua prebenitu nahi du, bi zentzutan: batetik, sexu-desiraren gogobetetzea behar bezala bideratzen lagundu nahi die gizabanakoei; bestetik, abusuzkoak izan daitezkeen egoerak antzemateko eta horietatik babesteko behar adina baliabide eman nahi die ikasleei.

7.1.3.- Hezitzaileen zeregina sexu-hezkuntzan

Irakasleen aldetik programa hau oinarritzen den eredu biografiko-pertsonalaren baldintzak betetzea espero da. Horretarako, ikus gida honen 2. puntua. Eredu horren arabera, komenigarria litzateke irakasleek honela jokatzea:

a) Sexualitatearekiko jarrera positiboa: arreta ikaslearengan jarri behar da, eta sexualitatea bizitzeko modua haren belaunaldiari eta biziko diren une historikoari dagozkiola dela pentsatu behar da. Irakasleriak ulertu beharko du ikasleriaren ongizate psikosexuala ez dagoela haren esku. Baina

ukaezina da profesionalen esku-hartzeak, ausarta eta tinkoa eskolatik bertatik, pertsonen arteko berdintasunezko harremanak sustatzen lagunduko duela sexuei eta identitateei dagokienez, eta esperientzia erotikoaz babestuta gozatzeko gaitasunak izaten lagunduko diola ikasleriari. Sexu-ekintzari lotutako indarkeria errotik kentzen ere lagunduko du, hala nola emakumeen aurkako biolentzia eta sexu-desirarekin erlazionatutako menderakuntza-, jazarpen- edo abusu-ekintza ororen azpian dagoen biolentzia.

b) Jarrera hezitzailea. Ezagutza eta esperientzia profesional guztia ikasleek hezkuntza afektibo sexualaren esparruko gaitasunak garatzera bideratzea da. Hezitzaile moduan, alde batetik, eta hainbat arlotako aditu moduan, bestetik, ezagutzen transmisioan oinarritutako hezkuntzaren esparruko esku-hartzea funtsezkoa da.

c) Ikasleen eta beren ongizate psikologikoaren eta sozialaren arteko bitartekotzarako prestasuna. Horren arabera, heziketa-prozesuak pertsonen oinarrizko beharrak asetzen lagundu behar du. Beharrok ikasleen garapen eta hazkunde pertsonalera bideratutakoak izango dira, eurak gizartean modu osasungarrian txerta daitezen. Horretarako, irakaslea ikaslearen eta haren heziketa-beharren arteko bitartekaria da.

d) Partaidetzarako, gaurkotzerako eta berrikuntzarako prestasuna. Hezkuntzara aplikatutako teknologia berriak eta giza sexualitatearen inguruko ezagutza berrien garapen azkarra ikusita, irakasleria irekita egon behar da alderdiok bere heziketa-lanean eransteko.

7.1.4.- Gurasoen zeregina sexu-hezkuntzan

Gurasoen zeregina beren seme-alabentzako oinarrizko erreferentzia-figurak izatea da. Horiek mundua ikertu, deskubritu egin behar dute eremu guztietan, bai eta atxikimenduen eta sexuaren esparruan ere.

Pertsona gisa garatzeko ahalmena, hein handi batean, esploratzeko gaitasunak baldintzatzen du. Eta hori, aldi berean, figura esanguratsuenekin ikasleek duten lotura afektiboaren kalitatearen mende dago; garrantzitsuenak ama eta aita izango dira, baina nerabezaroan, berriz, kidekoak.

Egun ditugun datuek, ikerketa fidagarrietatik lortuak, adierazten dute sexu-esperientzia osasungarria, hau da, arriskurik gabekoa, bi gurasoekin duten loturaren kalitatearen baitan dagoela hein handi batean. Azpimarratu behar dugu gurasoen paperak neska zein mutilen artean duen garrantzia.

Hortaz, euren zeregina seme-alabekiko emozionalki gertu mantentzea da, funtsean. Horrek esan nahi du distantzia egokira egon behar direla. Ez du esan nahi ez estugarriegia izateagatik, autonomiaren garapena eragoztea, ez eta hain hotza izatea, non seme-alabak galduta sentitzen baitira.

Gurasoen funtzio nagusia da oinarri segurua eta laguntza emateko prest dagoena izatea, euren seme-alabei mundua esploratzeko aukera emango diena behar ebolutiboak, afektiboak eta sexualak asetzeko.

Gurasoen funtzioa ez da sexualitatearen inguruko edukiak irakastea, hori eskolaren ardura da. Ez eta sexualitateari buruzko azalpen teorikoak ematea ere. Uste ohi dugu seme-alabekin sexualitateari buruz hitz egitea ez dela lotura afektibo ona eratzea bezain garrantzitsua.

Gurasoek seme-alaben une emozionala ulertu eta distantzian, laguntzeko prest egon behar dute. Eta ez da batere erraza.

Edukiak baino gehiago, gurasoek beren esperientziaren berri eman beharko lukete, intimitatea babestuz, betiere. Ez datza, inondik inora, seme-alabei intimitate sexualak kontatzean. Seme-alabei babes-neurriak hartzea ahalbidetuko dieten bizi-esperientzia ematean datza.

Gurasoek ere eredu biografiko profesionala erabili beharko lukete, eta euren seme-alabak doktrinatzea saihestu. Hau da, aukera dute euren balioak, sinesmenak eta uste sendoak erreferentzia garrantzitsu gisa erakusteko, baina onartu egin behar dute euren seme-alabek ez dituztela horiek ezinbestean bere egiteko obligaziorik.

Edonola ere, mugak adostu behar dira, eta horiek jokoaren arauetan daude, hau da, harremanen etikan.

7.2.- Tutoretzaren eta ezagutza-arloen funtzioa sexu-hezkuntzaren integrazioan

7.2.1.- Tutoretzaren zeregina sexu-hezkuntzaren integrazioan

Hezkuntza integratuaren ikuspegitik, tutoretza-jarduera ezinbesteko elementua da heziketa-prozesuan. Ikasleriak eskolan egiten dituen jarduera guztiak bateratzen eta integratzen diren lekua da. Tutorearen eta ikaslearen arteko banan-banako harremana eratzen du, bai eta kidekoen arteko harreman espezifikoa ere, non jarreren, gaitasunen, ezagutzen eta interesen arteko dinamika jokoan jartzen baita.

Hona hemen tutoretza-jardueraren ezaugarri garrantzitsuenak:

a) Prozesu jarraitua da, ez aldizkako jarduera.

b) Modu aktiboan eta dinamikoan garatzen da.

c) Sistematikoki planifikatu behar da.

d) Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua sortzen du.

e) Hezkuntza-eragile guztien lankidetza eskatzen du.

f) Eskolako curriculuma du hura garatzeko erreferentziazko esparru gisa.

g) Diziplinarteko ikuspegitik abiatuta antolatzen da.

h) Autoorientazioa ahalbidetu behar du.

i) Autoprestakuntza eta taldeko prestakuntza ahalbidetu behar ditu.

Hoha hemen tutoretza-jardueraren xedeak: ikasleek beren burua ezagutzea eta onartzea, beren sozializazio-prozesua hobetzea, erabakiak hartzen eta bere arazoak konpontzen ikastea eta bere bizitza-programaren protagonista sentitzea.

Tutoretza-jardueraren funtzioaren xedea hezkuntza benetan integrala eta pertsonalizatua izatea da, ez ezagutzen trasmisio soila. Hortaz, tutoretza-jarduerak heziketaz harago doazen hezkuntzako elementuetan jarri behar du arreta, ikasleriari bere bizi-programarako gaitasunak eta ahalmenak garatzea xede duen prozesua gauzatzeko aukera emango diotenak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, heziketa-prozesuan zehar ikasleek emaitza hobeagoak ateratzeko eta euren interesak eta beharrak hobeto ezagutzen laguntzeko gunea da Orientazioa eta Tutoretza.

Etapa horretan, tutoretzak zeregin garrantzitsua du. Prestakuntza-gune bat osatzen du, hain zuzen ere, eta bertan, ikasleen heziketa-prozesuaren eta gazteengan gaitasunak eta trebetasunak areagotzera bideratutako estrategien planteamendua eta garapenaren jarraipena egin daiteke.

Orokorki begiratuta, aurreko guztia heziketa-prozesuan ezinbestekoa bada, are gehiago sexu-hezkuntzan. Gaitasunen garapenaren mesedetan, edukiak, balioak eta jarrerak integratzeko gunea izan behar du tutoretzak. Gogora dezagun sexu-hezkuntzaren funtsezko xedea dela ikasleari behar adina baliabide ematea, modu pertsonalizatuan behar afektibo eta sexualak asetzeko haren proiektu pertsonalean.

Aurrez aipatu bezala, proposamen honen nahia ez da sexu-hezkuntzako programa bat eskaintzea bakar-bakarrik, sexu-hezkuntza hezkuntza-sisteman integratzeko prozesu bat aurkeztea baizik. Eskolak ezagutza-multzo bat transmititzen du jada curriculum-garapeneko ezagutza-arloetan; hala ere, prestakuntza integralak hezkuntzako zenbait alderdi hobetuko lituzkeelakoan gaude. Proposamen hau diseinatuta dago gaitasunetan oinarritutako curriculum garapenetik hasita, ikaslearen prestakuntza bermatzeko sexualitatearen eta afektibitatearen arloan, hezkuntza-sistemaren berezko baliabideak oinarri hartuta.

Sexu-hezkuntzaren curriculum-garapenean eta aipatutako ikuspegitik, tutoretzak berebiziko garrantzia du. Deskribatutako funtzioak tutoretzarenak dira berez, eta horiei jarraiki, hurrengo lanak bete beharko lituzke ere:

a) Giza sexualitateari eta pertsona arteko harremanei buruzko edukiak integratu ahal izateko lan egiteko guneak sortzea eta arlo bakoitzari dagozkion curriculum-edukietan aurreikustea. Horiek aurrerago azalduko ditugu.

b) Aniztasuna ezaugarri nagusitzat duen gure testuinguru soziokulturalean, giza sexualitatearen tratamendua diziplinartekoa da; hori dela eta, tutoretzak eztabaidak proposatu beharko lituzke. Horietan jarrera ezberdinak aurrez aurre jarriko lirateke, eta eskolatze-aldian zehar bereganatutako baliabide guztiak erabiltzeko aukera izango luke ikasleriak, ezagutza zientifikoetan eta balioetan oinarri dutenak, hala nola besteak ulertzea eta onartzea, tolerantzia eta arrazoiaren erabilera.

c) Autoprestakuntzako gaitasuna sustatzea.

Sexualitatea, programa honetan planteatzen den moduan, sexu-ekintzaz harago doa eta bizikidetzarako hezkuntzan txertatzen da. Suediako gobernua, 1954an, lehenengoa izan zen sexu-hezkuntza ikastetxeetako derrigorrezko programetan sartzen. 1975ean egindako berrikuspenean izena aldatu zion, eta elkarbizitzarako hezkuntza jarri. Izan ere, sexualitatearen kontzeptualizazioari eskainitako puntuan adierazi bezala, sexu-hezkuntza sexuen, aldeen, sexudun pertsonen arteko harremanean biltzen da. Horregatik dago sexu-hezkuntza hain lotuta jokoaren arauekin; hau da, harremanen etikarekin, eta erregulazio emozional afektibo eta sentimentalekin.

Horrek esan nahi du sexu-hezkuntzaren pisua ez dela tutoretzan bakarrik jarri behar, hainbat arlotatik egiten diren ekarpenetan baino, curriculumak adierazten duen bezalaxe. Tutoretzaren eginkizuna da edukiak

koordinatzea eta eduki horiek pertsona arteko eta gizarteko harremanen esparrura hedatzea banan-banan eta taldeka, ikasleriari bizitzarako gaitasunak emanez era horretan. Félix Lópezek esango lukeen moduan, behar afektibo eta sexualei modu pertsonalizatuan erantzuten laguntzen duten gaitasunak izango lirateke, eta horretarako tresna nagusia arrazoimen zuhurra erabiliko litzateke.

9. puntuan ikusiko dugun moduan, SEXUMUXU aplikazioa interes handiko tresna da tutoretzatik bertatik ikasleriaren autoprestakuntza sustatzeko.

7.2.2.- Arloen zeregina sexu-hezkuntzaren integrazioan

Bizitzarako gaitasunen eskurapenaren ikuspegitik, sexualitatea errealitate dimentsioaniztun gisa ikusten dugu, hainbat espezialitatetik landu behar dena. Horregatik, alor edo sail bakoitzak gai hauei eman beharko lioke erantzuna:

1. Giza sexualitatearekin lotutako zein gai **daude dagoeneko** gure programazioan **txertatuak**?

2. Sexualitatearekin lotutako zer eduki **txertatu behar dira** gure ezagutza-arloko curriculum-programazioan?

3. DBHko mailen artean, zein da gai bakoitza lantzeko **une egokiena** ikaslearen garapen psikosexualari dagokionez?

4. Zeintzuk dira gainerako arloek egiten dituzten ekarpen garrantzitsuenak, DBHko zein mailatan lantzen dira eta **nola artikulatzen dira** gure arloetakoekin?

5. **Nola artikulatzen dira** gure **arloak tutoretzatik** ematen diren sexualitatearen inguruko edukiak?

Arlo bakoitzak sexualitatearen inguruko gai garrantzitsu batzuk lantzeko aukera eman behar dio ikasleari, haietako bakoitzari esleitutako gaitasunen eskurapenaren ikuspegitik. Jomuga ez da, beraz, edukiak «landu behar diren» gai gisa antolatzea; sexualitatearen diskurtsoa eskolako esparruan normalizatu nahi da, aldiz. Hau da, sexu-hezkuntzaren esparruko gaitasunekin erlazionatutako edozein gai naturaltasunez lantzea da. Irizpideak dituzten ikasleak prestatu nahi dira, sexualitatearen inguruan argudiatzeko, eztabaidatzeko eta euren jarrera defendatzeko gai izango direnak.

Zentzu horretan, sexu-hezkuntza ezin da programa itxi baten moduan sortu –hura jarduera-sorta gisa ulertuta–, baizik eta eskolatze-aldian zehar berariazko gaitasunak bereganatzeko prozesu baten moduan.

Alor bakoitzeko edukiak Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculuma txostenean daude definituta. Aurreragoko puntuetan aipatuko ditugu, laburpen moduan. Jarraian, esparru afektibo-sexualean hainbat arlok egin ditzaketen ekarpenen inguruko zenbait ohar agertzen dira.

7.2.2.1.- Natura-zientzien arloa:

Eskuliburu honen lehenengo zatian aipatu dugu DBHko garapen psikosexualaren ikuspegitik, aldaketa oso garrantzitsuak gertatzen direla, hauek, zehazki: sexu-identitatea berrantolatzen da, sexu-desira eta horrekin lotutako jokabidearen elkarrekikotasunak osatzen dira. Sexu-identitatearen euskarria gorputz sexuduna da;

horregatik, gertatuko diren gorputzaren aldaketak gertatu aurretik aztertu behar dira. Sexu-desirak jokabide autoerotikoak eta geroago partekatuak eragingo ditu; horregatik, ikasleriak ezagutu behar du zertan datzan giza erantzun sexualaren bidez adierazitako erotismoa.

Hezkuntzaren xedeetako bat da bizitzen ari diren esperientziei euskarri teorikoa ematea ikasleei.

7.2.2.2.- Gizarte-zientzien arloa:

Sexualitate gisa pertsona sexudunek munduan egoteko duten modua ulertzen dugu. Sexualitatearen sozializazioa, egun, emakume eta gizonezkoen arteko desberdintasuna nagusi den testuinguruan garatzen da. Sexu-identitatearen oinarrizko jomugetako bat ikaslearekin lankidetzan aritzea da, emakume nahiz gizon izateko berezko modua garatu dezan aukera-berdintasunean. Garapen-prozesu horretan, zientzia arloak gorputz sexudunaren ezagutzaren berri ematen du, baina gizarte-zientziak sexuazioaren esanahia lantzeko guneak sortu behar ditu. Era berean, sexuen arteko harremanak eztabaidatzeko guneak sortu behar ditu, bizitzen ari garen une historikoan rol-aldaketa sakona gertatzen ari baita. Jarduerok ahalbidetu behar dute norbera eta besteak ulertzea, aniztasuna onartzea eta sexu-aukerak errespetatzea.

Natura-zientziaren arloak giza erantzun sexualaren ezagutzaren inguruan lan egingo du; gizarte-zientzietan, berriz, sexu-portaeraren gizarte-ondorioak landu beharko dira. Besteak beste, sexu-portaeren gizarte-erregulazioa eta sexualitatearen funtzioak (plazer, lotutako atxikimendu eta ugalkortasunaren iturri). Ez zaigu egokia iruditzen, ordea, arlo horretan gai hauek lantzea: nahi gabeko haurdunaldiak, borondatez eteten diren haurdunaldiak eta sexu-eraso eta abusuak.

7.2.2.3.- Hizkuntza eta literatura arloa

Hezkuntzako profesional gehienak sexualitatea ezkutatzen zen testuinguruan prestatu dira. Horretaz hitz egitea desegokia zen eta lekuz kanpo zegoen, eta hortaz, diskurtso normalizatutik at gelditzen zen. Sexualitatearekin lotutako alderdiak ahal bezala ikasten ziren, eskolako esparrutik kanpo, normalean. Joera hori hizkuntzan hutsune nabarmenak sortuz joan da. Hain handiak dira hutsuneok, non sexualitatearekin lotutako kontuak modu egokian adierazteko hitzak falta baitira. DBHn eskuratu behar diren gaitasunei dagokienez, arlo horren ekarpena sexualitatearekin lotutako hiztegiaren ezagupena bermatzea izan beharko litzateke. Batetik, kontzeptu nagusien inguruko hiztegi teknikoa. Bestetik, ezagutu eta aztertu behar dira konnotazio matxistak, diskriminatzaileak eta iraingarriak dituzten adiera arruntak. Komeni da kontuan hartzea, halaber, lagunarteko edo tokiko terminoak.

Hizkuntza eta literatura arloak testuen analisi eta iruzkinetan giza sexualitatearen fenomenologiarekin erlazionatutako edukia duten testuak txertatzen ditu, eta hori da, hain zuzen ere, gaitasunen eskurapenean egiten duen beste zeharkako ekarpen bat.

Lan literarioak giza esperientziatan aberatsak dira. Eleberriek, antzerki-lanek eta olerkiek oso modu aberatsean adierazten dituzte giza sentimendu, desio eta behar sakonenen fenomenologia, ardatz afektibo-sexualean txertatuta egon ohi direnak. Adibidez, DBHko une batean Shakespeareren Romeo eta Julieta obra analizatu eta pasioaren, sexu-desiraren, maitasunaren kontzeptua ikertu beharko balitz. Beste era batera esanda, Romeoren

eta Julietaren arteko harremanean, zer da amodioa?; zer da sexu-desira?; kontzeptu ezberdinak dira?; zertan bereizten dira?; zertan dira berdin?

Sexualitatearen kontzepturako hurbilketan, esan dugu hori munduan emakume edo gizon gisa egoteko modua dela. Sexuazioa norberarena da, pertsona bakoitzak bere sexualitatea du, emakume edo gizon izateko modu berezia, norberaren biografia. Gai horrek errealitate hori irudika dezake hainbat sexualitate, hots, emakume zein gizon izateko hainbat modu adierazten diguten pertsonaia literarioen bidez. Zentzu horretan, gizadiaren emakumeen alde egin duten emakume handien diskriminazio positiboa egitea komeni da, gizonen aldeko gizonek nahikoa ondo ordezkatuak baitaude normalean. Sexu-aukera ezberdinak azpimarratzea ere komeni da, hainbat sexuazio-modu sortzen dituztenak. Interesgarria da, beraz, gizadiaren istorioan zehar garrantzitsuak izan diren emakume eta gizonezko homosexualak nabarmentzea.

7.2.2.4.- Etika arloa

Ezinbestekotzat jotzen dugu etikaren arloan, sexualitatearekin lotutako balioen esparrua jorratzea. Hasieran aipatu bezala, eredu biografiko-profesionalaz gain, programa honen beste euskarrietako bat harremanen etika da. Sexumuxu aplikazioan, harremanen etika jokoaren arauak izango balira bezala planteatzen dira, pertsona arteko harremanak izateko ezinbestekoak.

Esparru afektibo-sexualean gaitasunak bereganatzeko proposatzen ari garen modua soziologiaren aldetik aniztasunak ezaugarritutako ingurunean garatuko da. Sexu-portaeren erregulazioa ulertzeko hainbat modu daude, eta polo kontserbadoretik hasi eta aurrerakoieneraino iritsiko litzatekeen continuum baten bidez adieraziko lirateke. Ez dugu balio-judiziorik egin nahi, aldiz, esparru horren errealitate soziologikoa adierazi nahi dugu.

Proposamenaren funtsen azalpenean adierazi dugun bezala, eskolak aniztasuna errespetatu behar du, eta hori eskuliburu honen lehenengo zatian definitutako eredu biografiko-profesionalaren bidez egingo du.

Sexu-harremanen etikari dagokionez, programa honen nahia da eskolak ematea ikasle bakoitzak sexu-harremanekiko etika pertsonala eta soziala garatzeko beharrezkoak diren elementuak. Harremanen etikaren printzipioak aplikatzeko gaitasuna esparru afektibo-sexualean izan beharreko gaitasunen zati da.

Sexu-portaerak erregulatzeko hainbat modu daude. Programa honen helburua da ikasle bakoitzak bere printzipio etikoak garatzea sexuzko eta afektuzko harremanei dagokienez; horretarako ezagutza zientifikoa eta asimilazio kritikoa baliatu eta hainbat jarrera –familiarenak, eskolarenak, kidekoen taldearenak edo komunikabideenak– ulertuko ditu. Norberaren erabakiekiko autonomia pertsonala sustatzean datza, irizpide kritikorik izan gabe inposatutako balioen mende ez egoteko, baliook gorabehera.

Esan gabe doa, sexu-portaeren mugei dagokienez, gizarte-adostasuna nahitaezkoa da. Horiek balioen garapenean eratzen dira. Oro har, funtsezko muga besteen askatasunaren errespetuan jartzen da. Behar erotikoak asetzeko eskubideak ez du inondik inora pertsonen edo egoeren aurkako indarkeriaren erabilera justifikatzen, jazarpenak, erasoak, abusuak, azken batean, indarkeria sortzen dituztenak. Aldiz, eskolak

arrazoimena erabiltzeko ahalmena sustatu behar du, ikasleek norberaren eta harremanekin lotutako arazoak ebazteko bide gisa baliatu dezaten.

Harremanen etikaren garapenak altruismoa, enpatia, dibertsitatearekiko errespetua eta tolerantzia izan behar ditu euskarri, beste balio batzuen artean.

8.- Curriculum-proposamena

Proposamen honen printzipio orokorretan jada adierazi dugun moduan, funtsezko xedea ikasleei laguntzea da, euren garapen biografikoak eragindako behar afektibo-sexualei erantzuteko aukera emango dizkieten gaitasunak eskuratu ditzaten. Gaitasunak, ezagutzak, trebetasunak, ahalmenak eta jarrerak barne hartzen ditu, norberaren errealizazioa eta garapena erdiesteko beharrezko direnak.

Sexu-hezkuntzari dagokionez, gaitasuna eskuratzeko ikasleriak behar dituen ezagutza gehienak eskolako curriculumean txertatuta daude, hortaz, derrigorrezko eskolatzeak horiek bermatu beharko lituzke, programazioetan erantsiz.

Atal honetan garatutako curriculum-proposamenean honako hauek aipatzen dira:

a) Ikasleen **garapen psikosexualarekin** lotutako gaitasunak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan zehar eta gida honen laugarren eta seigarren puntuetan (8.1, 8.2, 8.3 eta 8.4 puntuak) garatutako sexualitate kontzeptutik abiatuta.

b) Ikasleen **curriculum-garapenarekin** lotutako helburuak, curriculum-edukiak eta gaitasunak, ikasgaika banatuta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan zehar (8.5 puntua).

Logikoa den legez, curriculum-garapena seigarren puntuan laburbildu dugun garapen psikosexualarekin paraleloan joan behar da.

Curriculum-proposamen honen oinarria diziplinartekotasuna da. Sexualitatea dimentsio anitzeko errealitatea denez, diziplinarteko ikuspegia baliatu behar dugu hura lantzeko; eskolako esparruan, alor eta sailetan adierazten da hori, ikasgaien bitartez.

8.1.- DBHko lehenengo eta bigarren mailak

6. puntuan –nerabezaroko garapen psikosexualari buruzkoa– adierazi dugun bezala, DBHrekin batera pubertaroa hasten da, eta une horretan aldaketa sakon eta funtsezkoak gertatzen dira nola biologiaren hala psikologiaren ikuspegietatik. Garapen psikosexualaren ikuspegitik, aldaketa biologikoek bi garapen-ildo sortzen dituzte, elkarren artean lotutakoak: aldaketa anatomikoak eta neuroendokrinologikoak. Lehenengoek gorputzaren irudi berria eragiten dute, eta bigarrenek, desira erotikoaren agerpena. Bi ildook sexu-identitatearen birdefinizioan bat egiten dute. Gainera, pubertaroan lotura afektiboen antolakuntza heltzen da eta behar eta sentimendu berriak, adiskidetasuna, maitasuna, maitemina eta pertsona arteko erakarpena, adibidez, agertzen dira.

Familiarekin batera, eskola da pertsona gisa hazteko eta gizarteratzeko beharrezkoak diren gaitasun pertsonalak garatzeko esparru garrantzitsuena. Horregatik, eskolak hiru esparrutan –identitatea, erotismoa eta atxikimenduak– adierazten diren oinarrizko beharrak behatu, ulertu, horiei babesa eman, ezagutzak transmititzeko eta kudeatzeko prestatu behar ditu ikasleak.

Sexu-identitatea

Garapen psikosexuala ulertzeko eta laguntzeko ahalegin horretan eta **sexu-identitateari** dagokionez, oso garrantzitsua da **gorputzaren aldaketak** lantzea, haiek gertatu aurretik. Ikasleei beharrezkoak diren elementuak, ezagutzak eta jarrerak ematean datza, aldaketok ulertzeko eta naturaltasunez bizi ahal izateko. Xedea da bai neskek bai mutilek bi sexuetako gorputzen funtzionamendua eta horietan gertatzen diren aldaketak ulertzea.

Gorputzaren aldaketek gorputzaren irudia sortzen dute, zeina pertzepzio subjektiboa baita. Hortaz, eskolak edertasun-ereduen balorazio kritikoa egiten lagundu behar du. Haien erlatibizazioa eta norberaren gorputzaren irudiaren onarpena bultzatzea da, autoestimua garatze aldera. Areagotu egin behar da gorputzaren eraldaketaren nagusitasuna norberaren bizipenetan, autokontzeptuan eragin handia baitu.

DBHko lehenengo mailatik bertatik hasi behar gara emakumezkoen eta gizonezkoen arteko harremanak lantzen. Gizarte tradizional matxistaren eta sexuen eskubide- eta aukera-berdintasunean oinarritutako gizartearen artean dauden aldeak aztertzea komeni da. Horretaz jabetu behar gara, beraz, eta eguneroko praktikatik lan egin, genero-asimetriatan oinarritzen diren botere-abusuak erakusten dituzten ikasgelako jokabideak **hautemanez eta zuzenduz**. Helburua eztabaida hori pertsonalizatzea da, bai eta ikuspegi horretatik, ikasgelan dauden ikasle guztiak, beren izaera sexuala gorabehera, munduan kokatzen laguntzea ere, era pertsonalizatuan eta arrazoimenean oinarrituta. Ez gara errealitate horretara teorikoki hurbildu nahi, baizik eta neska eta mutilen arteko eguneroko harremanetan adierazi behar da, ikasgelan bertan. Ikuspegi horretatik, zalantzarik ez dago baterako hezkuntzara bideratutako programak hemen aurkezten dugunaren osagarri direla.

Ezin dugu alde batera utzi nerabezaroaren une horretan, nork bere identitatea bereganatzea ikasleriaren xede nagusietako bat dela. Ondorioz, eta sexu- eta genero-identitatearen ikuspegietatik, emakume nahiz gizon izateko hainbat modu daude, norberaren subjektibotasuna eraikitzearekin lotzen direnak. Subjektibotasunek asimetrikoki eraikitzeko joera dute, era desorekatuan eta ezarritako genero-rolen arabera; hortaz, hezkuntza-baliabideak integratzea da hezkuntza-sistemak aurrean duen erronka, zeinen bidez prestatzen ari diren pertsonek berdintasunezko harremanak ezartzeko gai izango baitira.

Desira erotikoa

Pubertaroko aldaketen artean, pubertaroko erotismoaren agerpena aipatu behar dugu. Heltze neuroendokrinoak testosterona mailak igotzen ditu gizonezkoen zein emakumezkoen artean, eta hala, desira erotikoaren[4] oinarri biofisiologikoak ezartzen ditu. Desira erotikoa emozio bat den neurrian, sexu-hezkuntzak hura erregulatzeko gai izango diren pertsonak prestatzen lagundu behar du. Emozio orok bezala, sexu-desirak ekintzarako joera sortzen du, sexu-portaera esplizitutan adierazi daitekeena. Lehenengoak autoerotikoak izaten dira. Zentzu horretan,

[4] Ikus oinarri teorikoaren inguruko kapitulua.

beharrezkoa da kontuan hartzea eta ikusgai bilakatzea emakumezkoen autoerotismoa eta masturbazioa, hori izan baita euren sexualitatearen tabu handienetako bat.

Eskolak errealitatea ulertzea ahalbidetzen duten ezagutza teorikoak eman behar ditu, baina kasu honetan eskolaren erantzukizuna ere da sexu-erantzunaren (desira, kitzikapena eta orgasmoa) ziklo psikofisiologikoa ulertzeko beharrezkoak diren edukiak ematea, masturbazioan, eta, ondoren, sexu-portaera partekatuetan pizten dena.

Aurrez, hainbat ezagutzen berri emango da era normalizatuan, hala nola mutilen nahi gabeko lehenengo eiakulazioak eta nesken hilekoa. Gaiok ezin dira ezagutzen transmisio soil gisa landu; aitzitik, eta jarrerazko ikuspegitik, horiekin lotu ohi diren antsietatea eta tabua gainditzen saiatu behar gara. Horretarako, partaidetzazko metodologia erabili behar da, non hasiera batean neskak eta mutilak bananduta, eta ondoren batera, gaiok esperientziatik abiatuta eta ez ikuspegi akademikotik bakarrik jorratuko baitituzte.

Desira erotikoaren eraketa sexu- eta genero-identitatean txertatzen da, orientazioaren arabera. Desira erotikoak joera heterosexuala, homosexuala edo biak izan ditzake.

DBHren hasieran, pertsonekiko erakarpenaren inguruko lehenengo emozioak eta desiraren orientazioa azaleratzen hasten dira. Hasieran, desira erotikoa emozio lausoa da. Lehenengo fantasia erotikoak agertzen dira eta autoerotismoa eta masturbazioa deskubritzen dira. Horregatik, DBHko lehenengo mailan erotismoaren aurkezpena egitea proposatzen dugu. Lehenengo sentimendu homosexualak adin horietan agertzen dira, eta hezitzaileak kontuan hartu behar ditu. Puntu horretan, eskolaren eginkizunak bi dira:

a) Taldeari dagokionez: homofobiaren aurka borrokatzea eta aniztasunarekiko ulermena eta errespetua sustatzea, pertsona gisa hazten laguntzeko ingurune ezin hobea lortzeko asmoz.

b) Gizabanakoei dagokienez: norberaren onarpenean oinarritutako garapen ezin hobea izateko beharrezkoak diren elementuak ematea. Horretarako, beharrezkoa da norberaren garapenean eragin negatibo handia izan dezaketen elementuak neutralizatzea; adibidez, jarrera sexistak eta homofoboak, homosexualitatearekiko ezjakintasunean oinarritzen diren sinesmen faltsuak eta indartsua ahulari nagusitzen zaien botere-egituren defentsa. Azken horietan sexua ez da kontuan hartzen, eta normalean indarkeria, marjinazioa eta diskriminazioa eragiten dituzte.

Ugalkortasuna sexualitatearen funtzioetako bat da, aurreko etapetan dagoeneko aztertu dena. Maila horretan, ugalkortasunarekiko hurbiltasuna pertsonalizatuagoa izan behar da, eta aldaketa biologikoen arabera nerabeek beren gain hartzen dituzten erantzukizunetik abiatuta aztertu. Ikasleria adin horietan lortzen duen ugalkortasun-ahalmenaz ohartu behar da. Kontzepzio eta kontrazepzio-mekanismoak ezagutu behar dituzte. Hala, ugalkortasun-ahalmena borondatezko aukera gisa planteatzean da, bikotekideek era arduratsuan hartzen dutena eta biografia pertsonaletan behar bezala kokatu behar dena. Maila hori egokia da kontrazepzio-metodoei lehen aldiz heltzeko.

Sexu-abusua eta sexu-harreman hertsatzaileak adin guztietan aurki ditzakegun errealitatea dira, zoritxarrez. Biktimak haurtzaroan eta nerabezaroko lehenengo urteetan egoten dira. Eskolak, hortaz, hori prebenitzen lagundu behar du.

Badakigu ikasle gehienek sexu-erantzunaren oinarrizko kontzeptuak ezagutzen dituztela, hala nola orgasmoa, sexu-kitzikapena eta desira, eta oro har, eskolatik kanpo bereganatzen dituztela. Programa honen oinarrizko printzipioetako bat eskolako esparruan sexualitatearen tratamendua normalizatzea da. Hezkuntza-komunitatearen jarrera hau izan beharko litzateke: *«kalean denetarik entzungo duzu, eskolan zorroztasunez irakatsiko dizugu».* Hala ere, desira erotikoaren esperientzia –zeinaren egiazko adierazpena iruditeria erotikoa baita– eta sexu-portaera autoerotikoak –une ebolutibo horri dagozkionak– errespetatu beharreko intimitatean sartzen dira.

Programa honen printzipioekin koherentea izanda eta eredu biografiko-pertsonalean oinarrituta, helburua da nork bere biografia diseinatzeko behar dituen elementuak ematea. Pertsona bakoitza, norberaren emozioen ezagupenean eta ulermenean oinarrituta, bere sexualitatea erregulatzeko erabat aske izan behar da. Ez datza inolaz ere doktrinatzean. Horren ordez, nork bere eboluzioaren erritmoen eta esperientziek biografian hartzen duten esanahiaren inguruan erabaki ahal izateko baliabideak eta guneak eskaini behar dira. Beste modu batera esanda eta zehatuz, masturbazioa, adibidez, ez da derrigorrezkoa, eta beharrezkoa denik ere ezin dugu esan. Osasuna ez dago jokabide esplizituen mende, ezpada norberaren motibazioak ulertzeko eta era askean horien inguruko erabakiak hartzeko gaitasunean.

8.2.- DBHko bigarren maila bukatutakoan izan beharreko gaitasunak

Beste atal batean definitu dugun bezala, gaitasuna izateak esan nahi du ezagutzea eta egiten jakitea, hau da, behar sexualekin lotutako gaiak kudeatzea lortzea, DBHko lehenengo zikloa bukatu ondoko une ebolutiboari dagozkionak. Horretarako, ikasleriak ezagutza eta trebetasun egokiak lortu behar ditu. Ondoko taula honetan DBHko 2. maila bukatutakoan ikasleek izan beharko lituzketen gaitasunen adierazleak proposatzen dira.

.

DBHko bigarren maila bukatutakoan izan beharreko gaitasunak
Gaitasun-adierazleak:

Sexu- eta genero-identitatearen esparruan	1.- Pubertaroan gertatzen diren aldaketak identifikatzea. 2.- Norberaren eta beste sexuko gorputzaren ezaugarriak bereiztea. 3.- Norberaren gorputza sexu- eta genero-identitatearen oinarri gisa, gizon edo emakume izateko modu pertsonal gisa aitortzea eta onartzea. 4.- Aniztasunaren ikuspegitik eta besteekiko harremanari dagokionez, norbera gizon edo emakume gisa sentitzeko modua ulertzea. 5.- Gorputzaren eta sexu- eta genero-identitatearen arteko erlazioa analizatzea. Sexu-aniztasuna onartzea. 6.- Emakume edo gizon izateko moduak deskribatzea aniztasunaren ikuspegitik. 7.- Sexu-diskriminazioaren formak identifikatzea. 8.- Eguneroko bizitzako portaera sexistak identifikatzea. 9.- Sexuaren, generoaren edota sexu-aukeren ondoriozko gutxiengoen aurkako portaera eta eraso-jarrerak identifikatzea.
Esperientzia erotikoaren esparruan esparruan	1.- Gorputzaren aldaketan jatorria duten funtzio erotikoak ezagutzea. 2.- Lehenengo emozio erotikoak eta horiek adierazteko moduak antzematea sexu-fantasien bidez. 3.- Desira erotikoen adierazpenak aukeratzea eta antolatzea. 4.- Sexu-desira heterosexualitatera edo homosexualitatera bideratzen den modua identifikatzea. 5.- Sexu-portaerak deskribatzea. 6.- Autoerotismoa (masturbazioa) desira erotikoaren jokabidearen adierazpen gisa ezagutzea eta baloratzea.
Atxikimenduen esparruan	1.- Norberarengan konfiantza izaten laguntzen duten pertsona esanguratsuekin izango den hurbiltasun-harreman mota aukeratzea. 2.- Adiskidetasun-loturak identifikatzea. 3.- Fidatzen zaren pertsonekin barne-barneko sentimenduak balioestea. 4.- Pertsona arteko erakarpen-sentimenduak eta, beste atxikimendu batzuen artean, maitasuna eta maitemina onartzea

Osasunaren esparruan	1.- Norberaren garapenean osasunak duen garrantzia ezagutzea. 2.- Ohitura osasungarriak identifikatzea (elikadura, kirola, sexua). 3.- Arrisku-egoerak orokorrean, eta sexualitatearekin lotutakoak bereziki, identifikatzea eta aurreikusteko gai izatea. 4.- Gizarte demokratikoan sexu-portaerak erregulatzeko dauden moduak aukeratzea eta antolatzea.
Etikaren esparruan	1.- Sexu-ezaugarriak, izateko modua, desiraren orientazioa, etab. dela-eta gaizki tratatzen diren pertsonek jasaten duten sufrimendua identifikatzea. 2.- Eguneroko bizitzako sexuen arteko desberdintasun-egoerak identifikatzea. 3.- Eguneroko bizitzako homofobia-egoerak interpretatzea. 4.- Inguruko pertsona garrantzitsuak zaindu beharra baloratzea.

8.3.- DBHko hirugarren eta laugarren mailak

Kontuan hartuta gorputzaren aldaketak sendotuz joaten direla eta hirugarren mailan haurtzarotik baino lehen gaztarotik hurbilago daudela gazteak, egokia iruditzen zaigu **identitatea** garatzeko testuinguruaren barruan, gorputzaren irudiarekin lan egiten jarraitzea, biok **autokontzeptuaren eta autoestimuarekin** lotuta baitaude. Sexu-hezkuntzak prebentziozko funtzioa bete behar du, eta, horregatik, norbera onartzea eta norberaren balioak garatzea bultzatu behar ditu. Horrez gain, komunikabideek etengabe egiten duten edertasun estereotipoekin lotutako merkataritza-manipulazioaren aurka borrokatu behar du.

Euskal nerabeen sexu-portaerari buruzko txostenaren[5] datuek adierazten dute DBHko 4. mailako neska-mutilen % 19k sexu-harreman koitalak dituztela. Horri gehitzen badiogu % 15ek sexu-harreman biziak dituztela, hau da, koitotik hurbil baina koitora iritsi gabe, gutxi gorabehera maila horretan dauden ikasleen herenak sexu-jarduera maila altua du. Sexu-harreman motei dagokienez, ez dago sexuen arteko ezberdintasunik. 2005az geroztik, hasiera-adina urtebete aurreratu da. Hortaz, eskolak, ardura berarena soilik ez bada ere, esperientzia hori integratzailea eta arriskurik gabekoa izateko baliabideak eskaini behar ditu.

Horregatik, maila horretan zehar sexu-harremanen gaia landu behar dela irizten diogu. Ikerketa fidagarriek erakusten dute sexu-hezkuntza nerabeak jarduera horretan hasi baino lehen aurrera eraman behar dela. Ikerketon arabera, gurasoekin eta eskolan benetakoa eta irekia den komunikazioa izan duten pertsonek ez dute hasiera-adina aurreratzen, eta horrez gain, arduratsuagoak dira.

Sexu-esperientzia hurbileko etorkizunean gertatuko den errealitate moduan planteatu behar da. Norberaren garapenean garrantzitsuak diren hainbat funtzio hartzen ditu, hala nola komunikazioa, plazera eta atxikimenduak. Biografia pertsonalean era egokian kokatu behar den esperientzia da. Pertsona batzuen kasuan lehenago

[5] Ikerketa hau EHUk egin du, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak hala eskatuta.

gertatzen da, besteen kasuan beranduago. Ez dago zertan aurreratu. Esperientzia erotikoa beste pertsona batekin partekatzen den zerbait da –esperientzia heterosexuala zein homosexuala izan–; hortaz, funtsezkoa da hura erregulatu behar duten printzipio etikoak eratzea.

Maila horretan sexu-esperientzia landuz gero, etorkizunean horren gaineko ardura hartzea ahalbidetuko dion proiekzioa egin ahal izango du ikasleak. Heziketa-prozesuaren beste esparruetan, proiekzio hori egiteko bultzada emango zaie ikasleei, adibidez, laneko bizitzari dagokionez. Xedea da etorkizunean zertan lan egin nahi duten pentsatzera animatzea ikasleak, orainaldian prestatzen eta behar diren baliabideak eskuratzen joateko (prestakuntza, espezialitateak, hizkuntzak, etab.), ez pentsatzen dugulako hurrengo hilabetean hasiko direla lanean; aldiz, pertsona gisa garatzeko beharrezkotzat jotzen dugu. Logikoa dirudi eskolak gauza bera egitea sexu-portaerari dagokionez, ez esperientzia hurrengo hilabetean izango delako; aitzitik, garapen pertsonal eta sozialerako ezinbestekoak direla uste dugulako.

Sexuen arteko harremanaren ikuspegitik, sexu-portaeraren esanahiak direla-eta diferentzia nabarmenak aurki ditzakegu. Esperientzia erotikoa hainbat beharren mesedetan jar daiteke. Adibidez, norbera onartzeko edo behar afektiboak asetzeko erabili daiteke. Ez dago frogatuta sexuen oinarrizko beharrekin lotutako erotismoa esperimentatzeko modu ezberdinak faktore kulturalen edo gizakiaren eboluziotik hartutako berezko aurretiko jarreren ondoriozkoak direnik. Hala ere, ezin dugu alde batera utzi gure kulturaren tradizio sexistaren garrantzia, non sexuen arteko harremanak ageriko botere-asimetrian oinarrituta ezarri baitira.

Harreman desorekatuok botere-harremanetan funtsatzen diren edozein testuingurutan gertatzen dira; bertan, pertsona batek beste bat azpiratzen du, indarkeria erabilita. Horietan dago harremanen esparruan etorkizunean indarkeria, eta bereziki emakumeen aurkakoa, bilakatu daitekeenaren enbrioia. Gerta daiteke, era berean, indarkeria-egoerak aurkako norabidean edo sexu bereko pertsonen artean izatea. Horregatik, programak azpimarratu egiten du emakumeen eta gizonen arteko eztabaida teknika zuzentzailerik erabili gabe landu behar dela, autonomia pertsonala sustatuz. Zenbat eta handiagoa izan aurreko mailetako talde-lanen arintasuna, orduan eta emankorragoak izango dira aipatutako eztabaidak maila honetan.

Esperientzia erotikoa, sexu-portaeretan adierazita, norberaren eraikuntzan aparteko balioa duen dimentsioa da; hala ere, berekin dakartzan arriskuei ere heldu behar diegu. Hona hemen nagusiak:

- Arrisku psikologikoak: esperientzia desegokitan, sexu-erasotan, frustrazio afektibotan edo sexu-portaerari berezkoak zaizkion zailtasunetan jatorria duten sufrimenduak.

- Ugalkortasunarekin erlazionatutako arriskuak: nahi gabeko haurdunaldiak, haurdunaldiak borondatez etetea, amatasun-aitatasun goiztiarrak.

- Osasunarekin lotutako arriskuak: sexu-transmisiozko infekzioak, adibidez, hiesa.

Programa honen erreferentziazko eredu biografiko-profesionalak arriskuen prebentzioan arreta jartzen duen sexu-hezkuntzaren eredua gainditzen du, baina hura integratu ere egiten du. Planteamendua hauxe da: sexu-hezkuntzaren helburua eboluzioaren garapenak norberaren biografian zehar planteatzen dituen behar afektibo eta sexualei aurre egiteko baliabideak eskaintzea bada, ikuspegi horrek arriskuen prebentzioa barne hartzen du inplizituki. Horiek txanponaren beste aldetik lantzean datza, hau da, iritzi positiboetatik.

Nahi gabeko haurdunaldien prebentzioaren ikuspegitik, egokia iruditzen zaigu antikontzeptiboak lantzea, baina ez teknika antikontzeptiboen inguruko ezagutzen transmisio soiletik, baizik eta erabiltzeko irizpideetatik, hau da, kostu eta onuren balorazioa egingo da, sexu-ekintzaren esanahiaren aurretik zehaztuko, aitatasun-amatasun arduratsua landuko da, etab. Erabakigarria da, era berean, mutilekin lan egitea nahi gabeko haurdunaldien eta horren prebentzioaren gainean duten erantzukizunaz mintzatzeko. Nahi gabeko haurdunaldien arriskua ezin zaie emakumeei soilik esleitu.

Sexu-transmisiozko gaixotasunen prebentzioari eta, zehazki, hiesaren prebentzioari dagokionez —nahi gabeko haurdunaldien arriskuaz bestalde—, hainbat eta hainbat ikerketak berretsi du sexu-portaerarekin erlazionatutako arriskuari lotutako bitartekari afektibo-emozionalen eragina garrantzitsua dela.

Hortaz, helburua ikasleei arrisku potentzialeko egoerak kudeatzeko gaitasunak ematea da. Horiek ezagutzak (jakitea) eta gaitasunak (egiten jakitea) hartzen dituzte, eta aldagai afektibo-emozionalak bitartekari afektibotzat jo behar ditugu sexu-portaerarekin erlazionatutako arriskuaren kasuan. Hori dela eta, segurtasun emozionala, autoestimua, enpatia eta tankerako aldagaiak gaitasunetan sartzen dira.

Oro har, adin horietan, nerabeek informazio ugari izaten dute sexu-esperientziaren inguruan, hortaz, funtsezkoa ez da ezagutza teknikoak transmititzea, euren zalantzak, beldurrak, emozioak partekatzeko guneak sortzea baizik.

8.4.- DBHko laugarren maila bukatutakoan izan beharreko gaitasunak

Jarraian dugun taulan ikasleek DBH bukatutakoan izan beharko lituzketen gaitasunen adierazleak proposatzen dira.

DBHko laugarren maila bukatutakoan izan beharreko gaitasunak
Gaitasun-adierazleak:

Sexu- eta genero-identitatearen esparruan	1.- Norbera gizon zein emakume gisa sentitzeko duen modua onartzea aniztasunaren ikuspegitik. 2.- Gorputzaren eta sexu- eta genero-identitatearen arteko erlazioa ezagutzea. Pertsonen sexuazio-moduak ezagutzea. 3.- Emakume zein gizon izateko modua ezberdinak interpretatzea, norberaren onarpen-maila hobetzeko. Sexu-estereotipo tradizionalak eta horiek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunezko harremanetan dituzten eraginak balioztatzea. 4.- Bereiztea sexuarengatiko diskriminazio-portaerak eta berdintasuna eta errespetua bermatzen dituztenak. 5.- Eguneroko bizitzako portaera sexistak identifikatzea. 6.- Sexuaren, generoaren edota sexu-aukeren ondoriozko gutxiengoen aurkako portaera eta eraso-jarrerak identifikatzea.
Esperientzia erotikoaren esparruan	1.-Desira erotikoaren orientazioa ulertzea sexu- eta genero-identitatearen barruan. 2.- Norberaren eta besteen desiraren orientazioa (heteroerotikoa, homoerotikoa) onartzea. 3.- Gizarte demokratikoan sexu-portaerak erregulatzeko dauden moduak balioztatzea. 4.- Sexu-portaera autoerotiko eta partekatuen kudeaketaren inguruko erabaki pertsonalak aukeratzea eta antolatzea. Har daitezkeen erabakiak balioztatzea. 5.- Honako funtzio hauek bereiztea: ugalkortasuna, plazer erotikoa, komunikazioa, lotura, atxikimenduak eta emozioak. 6.- Giza sexu-erantzuna (norberarena eta aurkako sexuarena) eta hura sexu-portaeretan nola adierazten den ezagutzea. 7.- Sexualitatearen inguruan pertsona esanguratsuekin elkarrizketak izatea, zalantzak, kezkak eta esperientziak adieraziz. * SEXUMUXU aplikazioak 1., 2., 3., 5. eta 6. gaitasun-adierazleak barne hartzen ditu.
Atxikimenduen esparruan	1.- Norberarengan konfiantza izaten laguntzen duten pertsona esanguratsuekin dugun hurbiltasun-harremanak identifikatzea. 2.- Adiskidetasun-loturak interpretatzea. 3.- Norberak konfiantza duen pertsonekin sentimendu intimoak adierazteko gaitasuna baloratzea. 4.- Pertsona arteko erakarpen-sentimenduak eta, beste atxikimendu batzuen artean, maitasuna eta maitemina onartzea 5.- Besteak ez maitatzeak eragiten duen frustrazioa ulertzea. Balioztatu 6.- Inguruko pertsona esanguratsuak zaintzeak duen garrantziaz jabetzea. 7.- Erotismoa beste pertsonekin harreman intimoa ezartzeko modu gisa onartzea, plazeraren eta beste atxikimenduen artean, erakarpena, maitasuna eta maiteminaren bidez. * SEXUMUXU aplikazioak 3., 4. eta 6. gaitasun-adierazleak barne hartzen ditu.

Osasunaren esparruan	1.- Ohitura osasungarriak ezagutzea (elikadura, kirola, sexua). 2.- Arrisku-egoerak orokorrean, eta sexualitatearekin lotutakoak bereziki, identifikatzea eta aurreikusteko gai izatea. 3.- Sexu-portaera osasungarriak (sexu-transmisiozko infekzioak kutsatzeko arriskurik ez dutenak) arrisku-praktiketatik bereiztea sexu-harremanetan. 4.- Babesteko baliabideak balioztatu: arriskurik gabeko praktikak, preserbatiboaren erabilera egokia. 5.- Preserbatiboaren erabilera egokia ezagutzea. 6.- Sexu-harremanak partekatzen ditugun pertsonaren osasuna babesteko baliabideak aukeratzea. 7.- Une zailetan (alkoholaren edo bestelako substantzien gehiegizko kontsumoaren ondorioz) arriskuak ekiditeko jokabideak. 8.- Kanpoko presioen aurrean, norberaren irizpidea balioestea: BAI esateko gai izatea, EZ esateko gai izatea. 9.- Jaiotza-tasa kontrolatzeko moduak identifikatzea. 10.- Norberaren oinarrizko beharrez jabetzea, ongizate maila osasungarria lortzeko modu gisa. * SEXUMUXU aplikazioak 2., 3., 4., 5., 6. eta 10. gaitasun-adierazleak barne hartzen ditu.
Etikaren esparruan	1.- **Jokoaren arauak** ezagutzea pertsona arteko harremanetan. Harremanen etikarekin bat datozen portaerak identifikatzea. 2.- Sexu-ezaugarriak, izateko modua, desiraren orientazioa, etab. dela-eta gaizki tratatzen diren pertsonek sufritzen dutela onartzea. 3.- Eguneroko bizitzako sexuen arteko desberdintasun-egoerak identifikatzea. 4.- Eguneroko bizitzako homofobia-egoerak identifikatzea. 5.- Eguneroko bizitzako sexuen arteko desberdintasun-egoerak identifikatzea. 6.- Pertsonen arteko harremanetan, injustizia-egoerak bereiztea eta salatzea, bai eta sexismoa, hertsadura eta indarkeria ere. 7.- Jarrera ez sexistak behar bezala balioestea. 8.- Norberaren printzipioak sexu-portaerarekin erlazionatzea eta haiek analizatzea (norberaren ideologia, printzipio erlijiosoak, printzipio laikoak). * SEXUMUXU aplikazioak 1., 4., 5. eta 8. gaitasun-adierazleak barne hartzen ditu.

8.5.- Sexu-hezkuntzaren helburuak, curriculum-edukiak, eduki espezifikoak eta hura ebaluatzeko ikasgaien araberako irizpideak

Puntu honetan gaitasunen araberako helburuen laburpen bat aurkezten dugu, dagozkien ikasgaien arabera. Horrez gain, eduki-multzoak curriculuman agertzen diren bezala planteatzen dira, sexu-hezkuntzarekin eta

gaitasunen ebaluazio-irizpideekin zuzenean edo zeharka lotuta. Era berean, programa honetan proposatutako sexu-hezkuntzaren berariazko edukiak adierazten dira.

8.5.1.- Natura zientziak

I.- HELBURUAK, GAITASUNEN ARABERA DEFINITUTA
1. **Errealitatea azaltzen duten eskemak eraikitzea**, fenomeno natural nagusiak interpretatzeko eta gure gizarteko garapenak eta aplikazio zientifiko-teknologikorik garrantzitsuenak analizatzeko, kontzeptu, printzipio, estrategia, balore eta jarrera zientifikoak erabilita. 2. **Arazoak ebaztea eta ikerketa txikiak egitea.** Horretarako banaka zein taldeka zientzien prozedurekin bat datozen estrategiak erabiltzea (hipotesi esplikatzaileak egitea, datuak lortzea eta horietatik emaitzak eta ondorioak ateratzea, iritzi bat ematea ahalbidetzen dutenak) eta iritzia eta froga jakinetan oinarritutako ebidentzia bereizteko gai izatea, interes pertsonaleko edo sozialeko egoera errealak testuinguru jakin batetik jorratzeko eta erabaki arduratsuak hartzeko. 3. **Gai zientifikoen inguruko informazioa lortzea, hainbat iturri baliatuz**, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak barne; horren edukia baloratzea eta baliotasuna aztertzea, batetik, gai zientifikoen inguruko lanak oinarritzeko eta bideratzeko eta, bestetik, horien inguruko **jarrera pertsonal kritiko** eta arrazoituak izateko. 4. **Zientziei buruzko informazioa duten mezuak aktiboki eta kritikoki interpretatzea eta mezu zientifikoak sortzea, ahozko zein idatzizko hizkuntza egoki erabilita**, baita notazioko eta errepresentazioko beste sistema batzuk erabiltzea ere, zientziaren arloan zehatz komunikatzeko eta azalpenak eta argudioak eman ahal izateko. **5. Giza organismoaren jakintza zientifikoa erabiltzea, gorputzaren funtzionamendua eta osasuntsu egoteko baldintzak azalduta. Helburua zaintze- eta arreta-ohiturak garatzea eta norberaren eta komunitatearen ongizatea handitzea da.** 6. Ekosistemen funtzionamenduari buruzko jakintza zientifikoa erabiltzea, gertatzen diren elkarreraginak, oreka eta hori oztopatzen duten faktoreak azalduta. Horren guztiaren helburuak hauek dira: natura baloratzea, kudeatzea eta naturaz gozatzea, zientziak eta teknologiak gizartearekin eta ingurumenarekin duten harremanak kritikoki analizatzea eta garapen iraunkorraren alde aktiboki eta modu arduratsuan parte hartzea. **7. Zientziaren izaeraren ezagutza, saiakera eta sormenezko izaera erabiltzea, dogmei aurre egiteko eztabaida handiak eta istorioan zehar gertatutako iraultza zientifikoak aintzat hartuta, gizadiaren bilakaera kulturalean, gizakion beharren gogobetetzean eta bizi-baldintzen hobekuntzan ezagutza zientifikoaren garrantzia ulertzeko eta balioesteko.**

II. SEXU-HEZKUNTZAREKIN LOTUTAKO EDUKI-MULTZOAK, MAILAKA

1. MAILA:

1. Eduki-multzoa. Eduki komunak

Fenomeno naturalak eta egoera errealak behatzeko irizpideak. Norberaren lanean gogor saiatzea, eta zereginetan jarrera aktiboa eta arduratsua izatea.

5. Eduki-multzoa - Izaki bizidunak eta beren dibertsitatea

Izaki bizidunen ezaugarriak. Beren bizi-funtzioak interpretatzea.

6. Eduki-multzoa. Gizakia

Giza-espeziea: ezaugarri komunak eta bereizleak. Identitate biologikoa, soziala, kulturala, teknologikoa eta planetarioa.
Gizakion bizi-funtzioak.
Elikadura eta osasuna. Dieta osasungarrien analisia. Elikadura-ohitura osasungarriak. Elikadura-portaeraren arazoak.
Pertzepzioa: zentzumen-organoak; beren zainketa eta higienea.
Lokomozio-aparatua. Lesio arrunten eta horien prebentzioaren analisia. Ariketa fisikoaren garrantzia.
Giza ugalketa. Nerabezaroko aldaketa fisikoak eta psikikoak.
Ohitura osasungarrien garrantzia balioestea.

2. MAILA:

1. Eduki-multzoa: eduki komunak

Jarduera zientifikoan lanean ari diren pertsonen ikuspegi estereotipatua gainditzea.

5. Eduki-multzoa. Izaki bizidunen eta ingurumenaren aldaketak

Izaki bizidunen bizi-funtzioak.
Izaki bizidunen ezaugarri eta funtzio komunak: nutrizioa, ugalketa eta harremanak.
Nutrizioa: izaki bizidunek materia eta energia lortzea eta erabiltzea. Nutrizio autotrofoa eta heterotrofoa.
Fotosintesia: Lurreko bizitzan duen garrantzia.
izaki bizidunen arnasketa.
Harreman-funtzioak: pertzepzioa, koordinazioa eta mugimendua.
Ugalketa sexualaren eta asexualaren ezaugarriak.
Animalien eta landareen bizi-zikloak behatzeko eta deskribatzeko irizpideak.

3. MAILA:

1. Eduki-multzoa. Eduki komunak

Fenomeno naturalak eta egoera errealak behatzeko irizpideak.
Fenomeno naturalak ezagutzeko eta ulertzeko jakinmina eta interesa izatea, eta planteatutako galderen erantzunaren bilaketan sormena erabiltzea.
Ikertu beharreko arazoak eta galderak identifikatzeko eta definitzeko jarraibideak zehaztea, kontuan hartuta arazook izan ditzaketen interesa eta garrantzia eta horiek ikertzearen ondorio posibleak.

Zehatza izatea hizkuntza zientifikoa erabiltzean eta horren adierazpenak argiak eta antolatuak izaten ahalegintzea.
Arauak zehaztea taldeko lana egiteko, eztabaidak antolatzeko eta aukeratutako gaien inguruan sortzen diren solasaldietan parte hartzeko.
Talde lana egiteko prest egotea, zereginetan lankidetza eta partaidetza arduratsuak erakutsiz eta pertsonen arteko desberdintasunak errespetatuz eta onartuz.

6. Eduki-multzoa. Gizakia eta osasuna

Osasunaren sustapena.
Giza gorputzaren antolaketa orokorra: aparatuak eta sistemak, organoak, ehunak eta zelulak.
Osasuna eta gaixotasuna. Osasunaren alorreko faktore erabakigarriak. Gaixotasuna eta gaixotasun motak. Infekzio-gaixotasunak.
Higienea eta gaixotasunen prebentzioa. Lehenengo sorospenen oinarrizko teknikak. Ohitura osasungarrien garrantzia balioestea.
Harremanak eta koordinazioa.
Koordinazioa eta nerbio-sistema: antolaketa eta funtzioa.
Sistema endokrinoa: guruin endokrinoak eta bere funtzionamendua. Horien aldaketa nagusiak.
Osasun mentala. Mendekotasuna sortzen duten substantziak: tabakoa, alkohola eta bestelako drogak. Horiekin lotutako arazoak. Jarrera arduratsua osasunarentzat arriskutsuak diren jokabideen aurrean. Gizarteak jokabideetan duen eragina.
Sexualitatea eta ugalketa.
Giza ugalketa. Emakumeen eta gizonen ugalketa-aparatuak.
Ziklo menstruala. Ernalkuntza, haurdunaldia eta erditzea. Metodo antikontzeptiboen analisia.
Sexu-transmisiozko gaixotasunak.
Giza ugalketaren teknika berriak.
Gizakiaren sexu-erantzuna: afektibitatea, sentsibilizazioa eta komunikazioa. Sexua eta sexualitatea. Osasuna eta higiene sexuala.

4. MAILA (maila honetan, NATURA ZIENTZIAK ikasgaia hautazkoa da)

1. Eduki-multzoa. Eduki komunak

Fenomeno naturalak eta egoera errealak behatzeko irizpideak.
Fenomeno naturalak ezagutzeko eta ulertzeko jakinmina eta interesa izatea, eta planteatutako galderen erantzunaren bilaketan sormena erabiltzea.
Ikertu beharreko arazoak eta galerak identifikatzeko eta definitzeko jarraibideak, kontuan hartuta arazook izan ditzaketen interesa eta garrantzia eta horiek ikertzearen ondorio posibleak.
Norberaren lanean saiatzea eta gogor aritzea, zereginetan modu aktiboan eta arduratsuan jokatuz eta norberaren gaitasunetan konfiantza izanda, horretarako autonomia, autokontrola eta gozamena baliatuta.

3. Eduki-blokea. Iraunkortasuna eta bizitzaren eboluzioa

Herentzia eta karaktereen transmisioa.
Gizakion genetika. Sexuaren herentzia. Sexuari lotutako herentzia. Herentziazko zenbait gaixotasunen ikerketa.
Gen kontzeptuari buruzko hurbilketa. Kode genetikoa. Mutazioak.

Biologia eta gizartea

Ingeniaritza eta manipulazio genetikoa: aplikazio, ondorio eta erronka nagusiak. Elikagai transgenikoak. Klonazioa. Giza genoma.
Genetika- eta ugalketa-bioteknologiaren aurrerapenen ondorio ekologikoak, sozialak eta etikoak.

III.- NATURA ZIENTZIAK IKASGAIAN SEXU HEZKUNTZAREN INGURUAN PROPOSATUTAKO EDUKI ESPEZIFIKOAK

Gorputza ezagutzea:

1.- Bigarren mailako ezaugarri sexualen agerpena (1. maila).
2.- Gorputza eta sexu-identitatea. (1. eta 2. mailak).
3.- Menarkia emakumezkoengan (1. maila)
4.- Nahigabeko lehenengo eiakulazioak gizonezkoengan (1. maila)
5.- Sexu-erantzuna eta sexu-portaerak: sexu-portaera autoerotikoak (masturbazioa) eta partekatuak (3. eta 4. mailak).
6.- Ugalketaren fisiologia ezagutzea (2. maila).
7.- Sexualitatearen funtzioak ezagutzea.

Sexu-desira:

1.- Giza sexu-sistemarako oinarrizko sarrera (2. maila).
2.- Desiraren orientazioa: heterosexualitatea, homosexualitatea. Sexu-identitatea eta orientazio sexuala (2. maila).
4.- Desira erotikoa, erregulatu beharreko emozioa (3. eta 4. mailak).
4.- Sexu-erantzuna eta sexu-portaerak: sexu-portaera autoerotikoak (masturbazioa) eta partekatuak (3. eta 4. mailak).
5.- Osasuna eta sexualitatea. Sexu-portaera osasungarriak. Sexu-portaerari lotutako arriskuen prebentzioa. Preserbatiboaren erabilera. Nahi gabeko haurdunaldiak (3. eta 4. mailak).

Afektibitatea eta sexualitatea

1.- Sexu-portaerari lotutako atxikimenduak eta emozioak. Maitasuna eta maitemina (3. eta 4. mailak).

IV.- SEXU-HEZKUNTZAREKIN LOTUTAKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1. MAILA:

8. Izaki bizidunak zelulez osatuta daudela eta materai bizigabetik bereizten dituzten bizi-funtzioak gauzatzen dituztela onartzea.

8.4. Gizakiaren izaera biologikoa onartzen du.

9. Gizakiaren bizi-funtzioak identifikatzen ditu, elikaduraren, harremanen eta ugalketaren oinarrizko alderdiak deskribatuz eta ohitura osasungarriak izateko garrantzia baloratuz.

9.1. Gizakion bizi-funtzioak identifikatzen ditu.

2. MAILA:

9. Izaki bizidunen bizi-funtzioekin zerikusia duten alderdiak interpretatzea organismo sinpleen behaketetik eta horiekin egindako esperientzietatik abitatuta, nutrizio-, harreman- eta ugalketa-prozesuetan aldagai jakinek duten efektua egiaztatuz.

9.2. Ugalketa-moten ezaugarriak deskribatzen ditu.
9.3. Harreman-funtzioan esku hartzen duten oinarrizko elementuak identifikatzen ditu.
9.4. Animalien eta landareen bizi-zikloen eskema sinpleak egiten ditu modu argian eta zorrotzean eta sormena erabilita.
9.6. Zereginaren plangintzan parte hartzen du, esleitutako lana onartzen du eta taldean hartutako erabakiekin bat dator.
9.7. Lan esperimentalaren inguruko interesa du, eta hizkuntza zehatz-mehatz erabiltzen du.

3. MAILA:

1. Lan zientifikoaren ezaugarri bereizleak aplikatzea garrantzitsua den edo gaurkotasuna duen arazo zientifiko edo teknologikoren baten eta horrek pertsonen bizitzan izan dezakeen eraginaren inguruko analisi egiaztatuaren bidez.

8. Alderdi fisikoek, psikologikoek eta sozialek osasunean eragina dutela onartzea, balioetsiz bai bizitza-estiloek gaixotasunen prebentzioan eta bizitzaren kalitatea hobetzean duten garrantzia bai zientzia biomedikoek egiten dituzten ekarpenak.

11. Giza-ugalketaren oinarrizko alderdiak deskribatzea, eta ugalketa, haurdunaldia eta erditzea prozesuak, jaiotza-kontroleko metodoak eta sexu-transmisiozko gaixotasunen prebentzioa azaltzea.

11.1. Sexualitatea eta ugalketa bereizten ditu eta kontrazepzio-metodo nagusiak deskribatzen ditu.

11.2. Emakumeen eta gizonen ugalketa-aparatuen anatomiaren eta funtzionamenduaren alderdi orokorrak deskribatzen ditu.
11.3. Higienezko eta sexu-transmisiozko gaixotasunak prebenitzeko ohiturak identifikatzen ditu, norberaren ongizatea zein osasun kolektiboa sustatzeko ondorioetara iritsiz.

11.4. Zenbait laguntza bidezko ugalketa-teknikaren funtsa azaltzen du.

11.5. Pertsona arteko harremanen oinarria elkarrekiko errespetua izan behar dela onartzen du.

4. MAILA:

5. Zelula-zikloaren ezaugarriak identifikatzea eta zelula-ugalketa deskribatzea, meiosiaren eta mitosiaren arteko desberdintasun nagusiak eta bion esanahi biologikoa adieraziz.

6. Genetikako arazo praktikoak ebaztea gurutzatze-mota ezberdinen kasuan eta Mendelen legeak erabilita, eta gure espeziearen zenbait karaktereren transmisioa ikertzea bereganatutako ezagutzak baliatuta.

8.5.2.- Gizarte-zientziak, geografia eta historia

I.- HELBURUAK, GAITASUNEN ARABERA DEFINITUTA
1.- Identifikatzea gizarte-fenomenoen eta gertaera politiko, ekonomiko eta kulturalen arteko harremanak zuzentzen dituzten prozesuak eta mekanismoak, eta ezagutza hori erabiltzea ulertu ahal izateko egungo gizarteen bilakaera azaltzen duten hainbat zergatiak eta emakumeek eta gizonek gizarte horietan duten zeregina, historiaren ikuspegi zabala eta kritikoa lortzeko. 7.- Norbera bakarra eta konplexua dela onartzea, besteekiko harremanetan norberaren bertuteak eta akatsak identifikatuz; konplexutasun horretan euskal gizarteko kide egiten duten ezaugarri kulturalez jabetzea eta horiek balioestea, aldi berean beste talde batzuen kide dela jakinda, eta, oro har, gizakia dela onartuz, tolerantzia eta errespetuzko jarrerak izanda gizartea eraikitzeko partaidetza aktiborako bidea den neurrian. 13.- Ezagutzea gizarte demokratikoen egitura antolatzaileak eta funtzionamendua, oinarritzat dituzten balore eta printzipioak balioetsiz eta lorpen ukaezin eta bakerako beharrezko baldintza gisa hartuta, helburu honekin: horietan partaidetza kontziente, arduratsua eta kritikoa sortzeko, non jarrera eta egoera diskriminatzaileak eta ez bidezkoak salatuko baitiren eta eskubiderik edo beharrezkoak diren baliabide ekonomikorik ez duten herriei, gizarte-taldeei eta pertsonei elkartasuna adieraziko baitzaien. 15.- Ikasgaiaren edukiak modu pertsonalean, sormenarekin eta zuzenki azaltzea eta komunikatzea, Gizarte Zientzien hiztegi berezitua erabiltzea, bestelako hizkuntzen bidez adierazitako datuak eta informazioa aukeratzea eta interpretatzea eta ikaskuntza-prozesuaz gogoeta egitea.

II. SEXU-HEZKUNTZAREKIN LOTUTAKO EDUKI-MULTZOAK, MAILAKA
1. MAILA 1. Eduki-multzoa. Eduki komunak Gizonezkoek eta emakumezkoek Historian izan duten zeregina balioestea. **2. MAILA:**

1. Eduki-multzoa. Eduki komunak

Gizonezkoek eta emakumezkoek Historian izan duten zeregina balioestea.

Enpatia historikoa trebatzea eta iraganaren eta orainaldiaren arteko erlazioak ezartzea.

Gizarte guztietako arte- eta kultura-adierazpenak balioestea eta errespetatzea.

Euskal gizartean integratzen diren beste kultura batzuetako pertsonak eta taldeak onartzea, errespetatzea eta haiekiko enpatia eta elkartasuna adieraztea, eta aniztasuna elementu aberasgarritzat hartzea.

2. Eduki-multzoa. Biztanleria eta gizartea

Gaur egungo gizarteak. Egitura: adina, sexua, lanbidea, ikasketa-maila, hizkuntzen ezagutza eta mugikortasuna. Aniztasuna. Gizarte kulturaniztunak erreferentziazko herrialdeetan eta beste eremu batekoak diren edota bestelako garapen-maila duten herrialdeetan. Kulturen arteko harremana. Gizarte-desberdintasuna eta gatazkak eragiten dituzten faktoreak: gutxiengoak, emigranteak eta baztertutako taldeak, arrazismoa, gatazka etnikoak, erlijiosoak, genero-indarkeria; eskalak: familiarteko esparrutik nazioarteko eskalara. Espainiako eta Europako gizarteak ezaugarritzea. Migrazio-mugimenduak. Demografiaren arloan eta kulturaren arloan aurreikus daitezkeen ondorioak. Egungo gizarte- eta kultura-mugimenduak.

3. MAILA:

1. Eduki-multzoa. Eduki komunak

Printzipio eta erakunde demokratikoak errespetatzea. Eskubide indibidualak eta kolektiboak hautematea.

Herrialde txiroenekiko elkartasun-jarrera izatea. Gaur egungo pertsonei eta kolektiboei eragiten dieten desberdintasun-, bidegabekeria- eta diskriminazio-egoerak hautematea eta salatzea.

Emakumezkoak diskrimina ditzaketen egoeren eta/edo emakumezkoen aurkako indarkeriazko egoeren aurren jarrera kritikoa izatea.

4. Eduki-multzoa. Antolaketa politikoa eta geografia-espazioa

Politika eta lurraldea antolatzeko zenbait modu. Estatua, gizartea antolatzeko egitura politiko ohikoena. Autogobernurako beste modu batzuk. Lehen zeuden mugen eta egungo bizikidetzarako eremuen arteko bereizketa. Erregimen politiko-motak. Sistema demokratikoak eta sistema autoritarioak. Erregimen demokratikoen printzipioak eta oinarrizko erakundeak. Botere-banaketa, legeekiko eta arauekiko errespetua. Hiritarren parte-hartzea zenbait eskalatako erakunde demokratikoetan. Konstituzioa eta autonomia-estatutuak.

4. MAILA:

1. Eduki-multzoa. Eduki komunak

Aldaketa historikoen prozesuetan parte hartzen duten faktoreak identifikatzeko jarraibideak; kausak eta

ondorioak bereiztea.

Historia-azalpenen kausalitate-aniztasuna aztertzea.

Prozesu historikoetan parte hartzen duten osagai ekonomikoak, sozialak, politikoak eta kulturalak identifikatzea, eta haien artean dauden loturak ulertzea.

Giza eskubideak balioestea eta bidegabekeria, diskriminazio, menderatze eta genozidio guztiak gaitzestea.

Gizonezkoek eta emakumezkoek, bakarka eta taldean, Historian izan duten zeregina balioestea.

III.- SEXU-HEZKUNTZAREN INGURUAN PROPOSATUTAKO EDUKI ESPEZIFIKOAK

Sexu- eta genero-identitatea

1.- Emakume zein gizon izatearen esanahia gure kulturan (1., 2., 3. eta 4.).

2.- Sexuen arteko elkarrizketa, elkar ulertzea eta errespetatzea eta elkarlanean aritzea (1., 2., 3. eta 4.)

3.- Genero-rolak: maskulinotasuna, feminitatea. Androginia: bi sexuetan eman daitezkeen jarrerak, balioak, jokabideak (1., 2., 3. eta 4.).

IV.- SEXU-HEZKUNTZAREKIN LOTUTAKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1. MAILA:

7. – Lehendabiziko zibilizazio historikoetako eta greziar zibilizazioko zenbait ezaugarri nabarmen bereiztea talde-lanean, greziar zibilizazioko jatorrizko elementuak identifikatzea eta ondorioak adieraztea, zenbait euskarri erabilita, horien artean digitala.

9.– Lehendabiziko zibilizazio historikoek (Egiptoko, Mesopotamiako, Greziako eta erromatar zibilizazioak) mendebaldeko gure zibilizazioari egindako ekarpenak deskribatzea.

2. MAILA:

4.– Europa feudaleko oinarrizko ezaugarri sozialak, ekonomikoak, politikoak, erlijiozkoak, kulturalak eta

artistikoak deskribatzea, gizarte-estamentuen funtzioak oinarri dituztela; estatu modernoa sortu arteko bilakaera ikastea. Erromatar Inperioaren gainbeheraz geroztik Behe Erdi Arora arte Europan izandako zenbait lurralde-aldaketa espazioan eta denboran kokatzea.

8.– Bakarka eta taldean, irakaslea lagun dutela, gertaera edo gai baten deskripzio erraza egitea; horretarako, zenbait informazio-iturri erabiliko dituzte (behaketa, prentsa, bibliografia, webguneak, etab.); beharrezkoa duten informazioa bilduko dute eta eskema edo gidoi bat osatuko dute; ondoren, termino egokiak erabilita, gainerakoei behar bezala jakinaraziko diete lanaren emaitza.

9.– Gertaera eta/edo prozesu historiko esanguratsuenen kausak eta ondorioak identifikatzea, beren artean dauden loturak zehaztea eta gertaera sozialak osatzen dituzten kausalitate-aniztasuna ikastea.

3. MAILA:

5.– Erakunde demokratikoen ezaugarriak, oinarrizko printzipioak, horiek nola funtzionatzen duten, nola antolatzen diren eta zer jatorria duten ikastea eta ulertzea; erakunde demokratikoek pertsonen arteko elkarbizitza hobetzeko egin ditzaketen ekarpenak aztertzea.

5.7.– Zuzenbide-estatuetako elkarbizitzarako arauak onartzen ditu eta estatu horiek zuzentzen dituzten oinarrizko printzipioak ezagutzen ditu.

5.8.– Badaki zein diren hiritarren oinarrizko eskubideak eta betebeharrak, eta ezaguera horiek eta ordezkatze-sistemaren printzipioak eguneroko bizimoduan aplikatzen ditu.

5.9.– Elkarbizitzarako arauetara edo legeetara jotzen du, gatazkaren bati konponbidea emateko edo zenbait gizarte-gatazkari aurre egiteko formulatzat hartuta.

12.– Lan errazak edo ahozko azalpenak, bakarka zein taldean, planifikatzea eta gauzatzea, zenbait iturri erabilita (grafikoak, krokisak, gaikako mapak, datu-baseak, irudiak, testu idatziak, internet); ateratako ondorioak zuzen antolatuta, arrazoituta eta modu ulergarrian jakinaraztea, horretarako informazio- eta komunikabide-teknologiek ematen dituzten aukerak erabilita.

13.– Txostenak egitea eta eztabaidetan parte hartzea, honako arazo hauei buruz: gaur egun munduan eguneroko bizimoduan dauden arazoei buruz eta haien ustezko jatorri historiko eta sozialei buruz (bazterketa-egoerak, arazo ekonomikoak, desoreka sozioekonomikoak, sozialak, indarkeriaren kasuak, emakumezkoen aurkako indarkeria, gaztediaren arazoak, etab); horretarako, komunikabideetatik edo beste iturri batzuetatik lortutako informazioa zorrotz erabiltzea, eta ematen diren iritzietan tolerantzia- eta elkartasun-jarrerak izatea.

4. MAILA:

2.– Gertaera eta/edo prozesu historiko esanguratsuenen kausak eta ondorioak identifikatzea, beren artean dauden loturak zehaztea eta gertaera sozialak osatzen dituzten kausalitate-aniztasuna ikastea.

8.– Gaur egun munduan gertatzen den tirabira politiko edo sozialen bati buruzko lanak planifikatzea eta horiek egitea, bakarka eta taldean, gertaera horien aurrerakin historikoak ikertzen direla, eta kausak eta nola amai daitezkeen aztertzen dela; horretarako, informazio-iturri egokiak erabiliko dira, gertaera berari buruz interpretazio desberdinak edo osagarriak ematen dituztenak barne.

10.– Eztabaidetan parte hartzea, gaur egungo alderdiei eragiten dieten aldaketei eta jarraitutasunei buruzko iritzi arrazoituak azaltzea, eta, hori guztia, gizarte-zientzietan oinarritutako arrazoiak emanda, gainerakoen iritziak errespetatuta eta ondorio komunak lortzen eta jakinarazten saiatuta.

8.5.3.- Euskal hizkuntza eta literatura, gaztelania eta literatura, eta atzerriko hizkuntza

I.- HELBURUAK, GAITASUNEN ARABERA DEFINITUTA
1. Hizkuntza erabiltzeko eremu desberdinetatik jasotako ahozko eta idatzizko diskurtsoak ulertzea eta ikuspegi kritikoz interpretatzea, horietan ulertutakoa beste komunikazio-egoera batzuetan aplikatzeko. 2. Ahoz eta idatziz egoki, koherentziaz eta zuzen adierazteko eta elkarrekintzan jarduteko gai izatea, errespetuzko eta lankidetzarako jarrera hartuz; hau da, hainbat komunikazio-egoeraren ezaugarriak eta hizkuntza-arauak kontuan izan behar dira, komunikazio-premia askotarikoei eraginkortasunez erantzuteko. 3. Gure errealitate elebiduna ezagutzea eta interpretzatzea, euskara eguneroko bizitzan erabiltzea sustatzeko oinarrizko ezagutza soziolinguistikoen laguntzarekin. 4. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzak kontuan hartuz, eleaniztasunaren eta kultura-aniztasunaren dibertsitatea ezagutzea eta interpretatzea, hizkuntza-aniztasuna lortzeko bide positibo gisa; dibertsitate hori kultura-aberastasun gisa baloratuko da. 5. Hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea, gizarteko eta kulturako hainbat testuingurutan behar bezala komunikatzeko aukera ematen duten estrategiak hartzeko; horrela, balio-judizioa eta era guztietako aurreiritziak sortzen dituzten hizkuntza-estereotipoak saihestuko dira. 6. Testuak ulertzeko eta sortzeko prozedurak kontuan hartuz, hizkuntza bakoitzaren sistemei buruz hausnartzea, horietako bakoitza behar bezala, koherentziaz eta zuzen erabiltzeko eta transferentzia negatiboak saihesteko. 7. Informazioa bilatzean, hautatzean eta prozesatzean, gizarteko komunikazio-bideak eta informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz eta espiritu kritikoz erabiltzea, eskola-jardueran ahozko eta idatzizko hizkuntza eraginkortasunez erabiltzeko. 8. Norberaren ikaskuntza-prozesuei buruz hausnartzea, beste hizkuntzetan eta alorretan jasotako ezagutzak eta komunikazio-estrategiak transferitzeko; horrela, ikaskuntzan autonomiaz jokatzeko norberak duen ahalmenean gero eta konfiantza handiagoa sentituko dute. 9. Literatura-generoen oinarrizko arauei eta horien bilakaera historikoaren oinarrizko etapei eta obrei buruzko ezagutza erabiltzea, literatura-testuen eta literatura-asmoko testuen ulermena eta produkzioa bultzatzeko. 10. Literatura-ondarea baloratzea norbanakoak eta taldeak historiako eta kulturako hainbat testuingurutan izandako esperientzia sinbolizatzeko; horrela, euskal literaturako, inguruan dauden herrialdeen literaturetako eta literatura unibertsaleko adibide garrantzitsuak irakurriz eta aztertuz, norberaren kultura-identitatea eraiki ahal izango da. 11. Testu garrantzitsuak eta norberak hautatutako testuak irakurriz eta ikus-entzunezko beste eremu batzuk ere kontuan hartuz, literatura-obrez gozatzea, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua eta giza egoera ulertzeko eta sentsibilitate estetikoa garatzeko.

II. SEXU-HEZKUNTZAREKIN LOTUTAKO EDUKI-MULTZOAK, MAILAKA

1., 2., 3. eta 4. MAILAK:

1. Eduki-multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea

Ikasgelan eta ikastetxean gizarte-harremanak eraikitzea helburu duten ahozko eta ikus-entzunezko elkarrekintzetan parte hartzea.

Elkarrizketetan parte hartzea, testuak ulertzeko nahiz idazteko eta era guztietako egoeratan aurki daitezkeen komunikazio-prozesuei buruz hausnartzeko.

Curriculumaren hainbat zereginei bereziki dagozkien komunikazio-egoeratan parte-hartze aktiboa izatea; bereziki, ikaskuntza-jarduerak antolatzeko eta kudeatzeko, informazioa bilatzeko eta horren ekarpenak egiteko, argibideak eskatzeko, taldean lankidetzan aritzeko eta egindako jardueren azken emaitza adierazteko.

Elkarrekintza ezagutzen eta ideien kontzientzia hartzeko eta ikaskuntza-prozesu ororen ulermen- eta adierazpen-prozesuak erregulatzeko baliabidetzat hartzea, bai banakako jardueratan, bai taldeko lankidetzan.

Elkarrekintza norberaren eta besteen sentimenduen kontzientzia hartzeko eta jarrera erregulatzeko baliabidetzat baloratzea.

Elkarrekintzak hasten, mantentzen eta amaitzen laguntzen duten hainbat komunikazio-estrategia erabiltzea.

Ahozko eta ikus-entzunezko testuen informazio garrantzitsuenak ulertzea, bai ikasleen eguneroko bizitzari nahiz ikasle-esperientzietatik hurbil dauden gizarte-eremuei buruzkoak, bai bizitza akademikoari buruzkoak; zehazki, arreta berezia jarriko da narrazio, azalpen labur, jarraibide, argibide eta elkarrizketetan.

Jarduera akademikoarekin lotutako gaiak edo gertaera interesgarriei lotuak ahoz azaltzea.

Aurrez prestatutako gidoi batean oinarrituz, esperientziarekin lotutako gertaerak ahoz narratzea.

Ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, sortutako lanei laguntzeko.

2. Eduki-multzoa. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea

Eguneroko bizitzari buruzko testu idatzietatik eta ikasle-interesen hurbil dauden komunikabideetatik lortutako informazio garrantzitsuena ulertzea eta interpretatzea, eta gertaera sinpleen azalpenetan, deskribapenetan eta narrazioetan arreta jartzea.

Idaztea, paperezko euskarrian edo digitalean eta aurrez aurretik planifikatuta, hainbat testuinguruko eta hainbat komunikazio-asmo dituzten testuak: gutunak, oharrak, abisuak, narrazioak eta deskribapenak; komunikazio-egoera kontuan hartu beharko da, eta testuok egokitze-, koherentzia-, kohesio- eta zuzentasun-maila onargarriak izan beharko dituzte.

3. Eduki-multzoa. Literatura-hezkuntza

Gazte-literaturako lanak eta literatura tradizionaleko eta herri-literaturako lanak (ikasleen adinerako eta intereserako egokiak direnak) autonomiaz eta laguntzaz irakurtzea, eta, gero, norberaren eta besteen esperientziak alderatzea.

4. Eduki-multzoa. Hizkuntzari buruzko hausnarketa

Ahozko komunikazioaren eta idatzizko komunikazioaren arteko nahiz lagunarteko erabileren eta erabilera formalen arteko desberdintasun garrantzitsuak (testuingurukoak eta formari dagozkionak) behatzea, eta gizarteko komunikazio-arauek eta hizkuntza prosodikoak nahiz hitz gabeko mintzairak ahozko hizkuntza eraginkorrean duten garrantzia kontuan hartzea.

5. Eduki-multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala

Hizkuntzak pertsonen arteko harremanak egiteko bitartekotzat eta komunitate baten identitate-seinalerentzat baloratzea.

III.- SEXU-HEZKUNTZAREN INGURUAN PROPOSATUTAKO EDUKI ESPEZIFIKOAK

Hiztegia (1.,2., 3. eta 4.)

1.- Sexualitatearen oinarrizko kontzeptuei dagokien hiztegi tekniko zehatza.

2.- Konnotazio matxistak, diskriminatzaileak eta iraingarriak dituzten adiera arruntak.

3.- Sexualitatearekin lotutako familiarteko eta tokiko terminoen analisia, euskaraz zein gaztelaniaz.

Sexuazio-moduak (1.,2., 3. eta 4.)

1.- Emakume zein gizon izateko modu ezberdinak adierazten dituzten pertsonaia literarioen azterketa, gehien

estereotipatuetatik gutxienetaraino.

2.- Gizadiaren istorioan emakumeen alde egin duten emakumeen diskriminazio positiboa (biografiak)

3.- Hainbat sexu-aukera ikertzea, autore zein pertsonaiatan oinarrituz. Emakume eta gizon homosexualak.

Sexualitatearen inguruko fenomenologia (1., 2., 3. eta 4.)

1.- Giza emozioen analisia testu literarioen bidez (amodio erromantikoa, maitatzea baina besteak ez maitatzea, desamodioa, pasioa, erotismoa).

2.- Esparru afektibo eta sexualean gizakiok ditugun behar nagusien analisia.

3.- Literaturaren bidez, sexualitatearen inguruko ikuspegien analisia egitea aro ezberdinetan zehar (Viktoriar Aroa XIX. mendean, permisibitatea XX. mendearen bigarren erditik aurrera).

4.- Poesia eta maitasun erromantikoa, poesia eta erotismoa.

IV.- SEXU-HEZKUNTZAREKIN LOTUTAKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1., 2., 3. eta 4. MAILAK:

1. Ahozko eta ikus-entzunezko testuak ulertzea, bai ikasle-esperientzietatik hurbil dauden gizarte-eremuei buruzkoak, bai bizitza akademikoari buruzkoak; zehazki, arreta berezia jarriko da narrazio, azalpen labur, jarraibide, argibide eta elkarrizketetan. Horrela, ikaskuntza-zereginak beteko dira, eta, informazio zehatzak identifikatzeaz gain, azterketa gidatua egiteko argibideak jarraituko dira.

1.6. Diskriminazioa adierazten duten adierazpideen zentzua ulertzen du.

2. Ikasleen esperientziatik hurbil dauden gizarte-eremuetako eta bizitza akademikoko testu idatzien esanahia ulertzea eta interpretatzea, eta narrazio- nahiz azalpen-testuetan (deskripziozkoak eta sekuentzialak) arreta berezia jartzea; horretarako, testu-zatiak eta informazio eta datu garrantzitsuak identifikatu eta horietan azterketa egiteko emandako argibideak jarraituko dira.

3. Jarduera akademikoarekin lotutako gaiei edo gertakari interesgarriei buruz ahozko aurkezpen errazak, argiak eta ongi egituratuak egitea; horiek aurrez prestatu beharko dira, eta, gainera, ikus-entzunezko baliabideen eta IKT teknologien laguntza baliatu ahal izango da.

4. Eskola-barruko ahozko elkarrekintzetan parte-hartze aktiboa eta egokia izatea, ikasteko eta gizarte-harremanak bultzatzeko, eta lankidetzarako jarrera positiboa agertzea.

5. Hainbat generotako testu idatziak sortzea (gertaera-narrazioak, ideia- eta kontzeptu-aurkezpenak, jarraibideak eta argumentuak); horretarako, plangintza-prozedurak erabiliko dira, eta, horrez gain, egokitasun-, koherentzia-, kohesio- eta zuzentasun-maila egokia izango da.

6. Hainbat generotako testu idatzien eta ikus-entzunezko testuen (narrazioak eta azalpen deskriptiboak) eduki

osoa ahoz eta idatziz laburtzea, eta horiei buruzko irakurketa hausnartua egitea.

12. Oinarrizko hizkuntza-terminologia ezagutzea –bi hizkuntzetan erabilgarria dena– eta erabilerari buruzko hausnarketa-jardueretan baliatzea.

18. Luzera jakin bateko irakurketa-zatiei edo adin horretarako egokiak diren lanei buruz norberak duen iritzia ematea, eta, aurrez landutako irizpideetan oinarrituta, arrazoitzea.

8.5.4.- Herritartasunerako hezkuntza eta giza eskubideak (oro har, 2. mailan) eta hezkuntza etikoa eta herritarren hezkuntza (4. maila)

I.- HELBURUAK, GAITASUNEN ARABERA DEFINITUTA
1. Giza egoera estimatzea banakako eta gizarte dimentsioetan, norberaren eta besteen identitatea onartuz –euren dimentsio pribatua barne-, gizabanakoen arteko diferentziak eta pribatutasun-eremua errespetatzeko eta autoestimua garatzeko. 2.- Sentimenduak, emozioak eta komunikazio- eta gizarte-gaitasunak garatzea eta adieraztea talde-jardueretan jarrera solidario eta tolerante batekin parte hartzeko, gatazkak konpontzeko elkarrizketa eta bitartekotasuna erabilita. 3.- Kidekoen arteko jardueretan parte hartzea bizikidetza eta partaidetza sustatzeko helburua duten lan-proiektuak antolatuz, betiere errespetua, lankidetza eta indarkeriaren arbuioa oinarri gisa hartuta. 4.- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta Espainiako Konstituzioan sorburu duten eskubideak eta erantzukizunak ezagutzea, onartzea eta balioestea, ezaugarritzen dituzten elkarren mendekotasuna, zatiezintasuna eta unibertsaltasuna identifikatuta eta onartuta eta nola gizarte-gertakari eta egoerei hala norberaren edo taldearen jarrerei buruzko iritzia emateko irizpide gisa hartuta. 5.- Egungo gizarteen aniztasuna, euren hizkuntzak eta kulturak identifikatzea, dibertsitatea elkarbizitza aberasten duen alderdia dela aitortzeko. 6.- Pertsona ororen eskubide- eta aukera-berdintasuna defendatzea, egoera bidegabeak edo sexua, jatorria, arraza, sinesmenak, norberaren edo gizartearen diferentziak, orientazio afektibo-sexuala edo bestelakoak direla-eta egindako diskriminazioak errefusatuta, giza eskubideetan oinarritutako elkarbizitza bidezkoa eta berdintasunezkoa lortzeko. 7.- Emakumezkoen eskubideak onartzea, sexu-diferentzia balioestea, emakume eta gizonezkoen arteko izatezko eta zuzenbideko berdintasuna sustatzea eta bien arteko diskriminazioa sortzen duten estereotipo eta aurreiritziak arbuiatzea, berdintasunezko jarrera sustatuz, garapen pertsonal integrala bermatzeko eta sexuagatiko diskriminazioa eta emakumeenganako indarkeria ezabatzeko. 8.- Hainbat mailatako sistema demokratiko eta erakunde politikoen egitura ezagutzea, hurbilenetatik hasi eta Espainiako eta Europakoetaraino, partaidetza arduratsua sustatzeko aurrera eraman daitezkeen alternatibak eta hobekuntzak proposatuz.

9.- Bizimodu demokratikoaren oinarriak ezagutzea eta balioestea eta haien arabera jarduten ikastea, herritarrek ondasun komunen mantentzean, hobekuntzan eta bizitzarekiko errespetuan dituzten zereginak onartuz, gizarte- eta natura-garapen iraunkorrean laguntzeko.

10.- Bizitza politiko sozialean eta beste antolakuntza-moduetan (lankidetza, asoziazionismoa eta boluntariotza) parte hartzeak duen garrantzia balioestea, gizarte-erantzukizuneko prozesuan duten inplikazioaren sustapenean duten garrantzia onartuz.

11.- Giza eskubideak zapaltzen diren egoerak identifikatzea, egiturazko indarkeria-egoerek (gerrak, pobrezia, muturreko desberdintasuna, etab.), indarkeria terroristak, genero-indarkeriak, kidekoen arteko indarkeriak, etab. sortutakoak, eta bakea, askatasuna, segurtasuna eta zuzentasuna lortzera bideratutako jarduerak balioestea mundu bidezkoagoa eta solidarioagoa eskuratzeko bide gisa.

12.- Euren burua herritartasun globaleko kide gisa onartzea, beste ohitura eta bizimoduekiko errespetu kritikoa adieraziz pertsona eta gizarte-talde ahulekin maila globalean eta tokikoan jarduteko.

13.- Pentsamendu kritikoa izatea eta beste pertsonek eta informazio-iturriek emandako arrazoiak eta argudioak balioestea, euren jarrerak defendatzeko eta haietan besteenak txertatzeko norberaren irizpide eta gaitasunak garatuta.

14.- Teoria etiko nagusiak identifikatzea eta analizatzea, egungo munduko gatazka sozial eta etiko nagusiez ohartuta, komunikabideen eta beste erakundeen bidez transmititzen diren ereduen aurrean jarrera kritikoa garatu ahal izateko.

II. SEXU-HEZKUNTZAREKIN LOTUTAKO EDUKI-MULTZOAK, MAILAKA

2. MAILA:

1. Eduki-multzoa. Eduki komunak

Arrazoimenean oinarritutako eta besteen ikuspegiak barne hartu ditzaketen —erabat edo partzialki— diskurtso pertsonalak egitea (informazioa, interpretazioa, argumentazioa).

Gaurkotasunezko gertaera edo gai baten inguruan jasotako informazioen analisi konparatiboa eta kritikoa eta horren inguruko eztabaida eraikitzailea egitea.

Elkarrizketa eta bitartekaritza erabiltzea gatazka-egoerak era baketsuan konpontzeko estrategia gisa.

Komunikazio eraginkorra ezartzen laguntzen duten elkarrizketa-gaitasunak erabiltzea.

2. Eduki-multzoa. Bizikidetza eta herritarren partaidetza.

Identitatea, autonomia eta norberaren erantzukizuna.

Sentimenduak eta emozioak.

Pertsona arteko eta belaunaldi arteko harremanak. Asertzio-gaitasunak eta jarrerak garatzea eguneroko bizikidetzan. Intimitatea, pribatutasun-gunea eta datu pertsonalen babesa.

Gatazka eta bitartekotza. Biolentzia arbuiatzea gatazkak konpontzeko modu bezala.

Bizikidetza eta partaidetza demokratikoa. Partaidetza ikastetxean eta hurbileko ingurunean.

Guztion ondasunak, natura-ondarea eta zerbitzu publikoak identifikatzea, balioestea eta zaintzea. Kontsumo arduratsua eta zentzuzkoa. Iragarkien mezuaren eragina gizartearen ereduetan eta ohituretan.

Gizakion harremanak bizitzarekin eta ekosistemarekin. Hondamendi naturalak eta gizakiak eragindakoak prebenitzea eta kudeatzea.

3. Eduki-multzoa. Mundu anitz bat.

Dibertsitatea, diferentzia, desberdintasuna.

Egungo gizarteen arteko gizarte- eta kultura-diferentziak.

Eskubide-berdintasuna eta aniztasuna. Herritarrek nork bere gisara erabakitako aukerak errespetatzea eta horiek modu kritikoan aztertzea.

Aniztasuna: asimilazioa, baterako existentzia eta kulturartekotasuna. Gutxiengo etnikoak.

Kidekoen arteko indarkeria eta genero-indarkeria: tratu txar psikologiko eta fisikoa, kontrol-jarrerak eta horiek errefusatzea.

Lanaren banaketa soziala eta sexuala.

Rolak eta balioak transmititzeko gizarte-estrategiak: familia, eskola, publizitatea, komunikabideak, etab.

Jarrera positiboa garatzea emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunarekiko eta bizitzan aurrera egiteko emakumezkoek eta gizonezkoek lanaren gainean duten erantzukizun partekatuarekiko.

Aurreiritziak eta arrazagatiko, sinesmenengatiko eta diferentzia pertsonalen edo sozialengatiko diskriminazioa. Jarrera horiei uko egitea.

Aniztasunaren balioestea egungo gizarteetan.

4. Eduki-multzoa. Gizarte demokratikoak

Giza Eskubideen adierazpen unibertsala, nazioarteko itunak eta hitzarmenak.

Giza Eskubideen urraketa gaitzestea; jarduera judizial arrunta eta nazioarteko auzitegien jarduera. Giza Eskubideak gizakion duintasunaren ezaugarri gisa eta amaitu gabeko garaipen historiko gisa hartzea.

Giza Eskubideak zapaltzen dituzten egoerak justifikatzeko ahalegin guztiei uko egitea. Gure gizartean

biktimak aintzatestea, hobetzeko eta indarraren adibide gisa.

4. MAILA:

1. Eduki-multzoa. Eduki komunak

Gatazkak elkarrizketa eta negoziazioak erabilita konpontzea. Bitartekotza.

Ingurune hurbilean edo mundu mailan dauden arazoen, gaurkotasunezko gaien eta etikaren eta gizarteko dilemen inguruko eztabaidak prestatzea eta egitea, aintzat hartuta existitzen diren jarrerak eta aukerak.

Gaurkotasunezko gertaera edo gai baten inguruan jasotako informazioen analisi konparatiboa eta ebaluazio kritikoa egitea.

2. Eduki-multzoa. Identitatea eta bestetasuna. Hezkuntza afektibo-emozionala.

Adimena, sentimenduak eta emozioak. Identitate pertsonala, askatasuna eta erantzukizuna. Pertsonen arteko desberdintasunak errespetatzea.

Pertsona arteko harremanak. Biolentziari uko egitea pertsona arteko gatazkak konpontzeko modu gisa.

Bizikidetzarako gizarte-gaitasunak eta jarrerak. Norberarenak ez diren bizimoduak eta gizakion eskubideak errespetatzea.

3. Eduki-multzoa. Teoria etikoak.

Giza Eskubideak.

Teoria etikoak.

Giza Eskubideak, gizakion jarrerarentzako erreferentzia unibertsala. Herritarren eskubideak eta politika-eskubideak. Eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak. Giza Eskubideen bilakaera, interpretazioak eta defentsa eraginkorra.

Diferentzia sozialak eta kulturalak. Intolerantzia-, diskriminazio, xenofobia-, injustizia- eta baztertze-jarrerak errefusatzea.

4. Eduki-multzoa. Etika eta politika. Demokrazia. Balio konstituzionalak

Demokrazia eta herritarren partaidetza.

Erakude demokratikoak: oinarria eta funtzionamendua. Antolamendu juridikoa, bizikidetza erregulatzeko tresna.

Balio konstituzionalak. Herritarren eskubideen eta betebeharren arteko elkarrekikotasuna.

5. Eduki-multzoa. Egungo munduko gizarte-arazoak

Zenbait talderen diskriminazioa (etnikoak, sexu-orientazio ezberdinekoak, txiroak, etab.). Balorazio

etikoa Giza Eskubideak abiapuntutzat hartuta. Jarduteko proposamenak.

6. Eduki-multzoa. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna

Berdintasuna eta aniztasuna.

Emakumezkoen diskriminazioaren arrazoiak eta faktoreak. Izatezko eta zuzenbideko berdintasuna.

Diskriminazioaren aurka borrokatzeko mekanismoak. Prebentzio eta babes integrala emakumeenganako biolentziaren aurrean.

III.- SEXU-HEZKUNTZAREN INGURUAN PROPOSATUTAKO EDUKI ESPEZIFIKOAK

Sexuen arteko harremana (2. eta 4. mailak).

1.- Maskulinotasuna – Feminitatea: aniztasunerako eskubidea, berdintasunerako eskubidea.

2.- Tradizio sexistaren balorazio etikoa. Gertatzen ari diren aldaketen balorazioa. Etorkizuneko perspektibak.

4.- Sexuaren araberako diskriminazioaren analisia (emakumearen diskriminazioa).

5.- Desiraren orientazioaren araberako gizarte-diskriminazioaren analisia (homosexualitatearen gaia).

6.- Sexu-identitatearen araberako diskriminazioaren analisia (transexualitatea).

Harremanen etika (1. eta 2. mailak).

1.- Sexualitatearen alorreko harremanen etika.

2.- Baimenaren etika.

3.- Plazer partekatuaren etika.

4.- Sexu-osasunaren etika.

5.- Leialtasunaren etika.

6.- Berdintasunaren etika.

7.- Loturaren eta desloturaren etika.

8.- Utopiaren etika: Zainketa.

IV.- SEXU-HEZKUNTZAREKIN LOTUTAKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

2. MAILA:

1.- Norberaren desberdintasunak eta pribatutasuna gizakiaren ezaugarri eta gertaera positibo gisa hartzea, eta horietan oinarritu daitezkeen diskriminazioak errefusatzea.

2.- Diskurtso politiko eta sozial arrazoitua, kritikoa eta gizarte demokratiko baten balioekin konprometitua sortzeko behar diren gaitasunak garatzea.

3.- Ikastetxearen eta ingurunearen bizitzan aktiboki parte hartzea eta gatazkak konpontzeko elkarrizketa baliatzea.

4.- Administrazioek bermatu beharreko zerbitzu publiko nagusiak identifikatzea, horien mantenuan herritarrek duten erantzukizuna onartzea eta eguneroko bizitzan gizalegezko jarrerak izatea, hauen inguruan: ingurunearen babesa, bizitzarekiko eta ekosistemarekiko errespetua, segurtasuna eta kontsumo arduratsua.

6.- Besteak beste, jatorri, sexu, sinesmen eta orientazio afektibo-sexual ezberdina duten pertsonenganako diskriminazio- eta indarkeria-egoerak identifikatzea eta ukatzea, bakoitzaren diferentziak errespetatuz eta irizpide-autonomia erakutsiz.

8.- Giza Eskubideen adierazpen unibertsalaren oinarrizko printzipioak eta baloreak eta horien bilakaera ezagutzea, eskubide-urraketa gertatzen den egoerak hautematea, eskubideok defendatzeko ekintzak proposatzea eta urraketa horien biktimenganako enpatia adieraztea.

4. MAILA:

1.- Jarreren eta erabakien zergatiak arrazoitzea, egoki komunikatzea —errespetuz—, eta gatazka-egoeretan elkarrizketa eta bitartekotza baliatzea.

1.1. Jarrera hori izatera bultzatzen duten arrazoiak azaltzen ditu.
1.2. Sentimenduak eta iritziak errespetuz komunikatzen ditu.
1.3. Elkarrizketa eta bitartekotza baliatzen ditu gatazka-egoeretan.

2.- Pertsonen dimentsio morala ezaugarritzen duten oinarrizko alderdiak (arauak, balioen hierarkia, ohiturak, etab.) eta arazo moral nagusiak bereiztea.

2.1. Kontzeptu moralak definitzen ditu: araua, balioa, balio-hierarkia, ohitura, ona.
2.2. Egoera jakinak arazo moral orokorrekin erlazionatzen ditu.

3.- Teoria etiko nagusiak identifkatzea eta azaltzea.

4.- Giza Eskubideak giza-jarreraren erreferentzia etiko nagusi gisa onartzea eta eskubideen (herritarrenak, politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak) bilakaera identifikatzea, horiek aktiboki erabiltzeko eta betetzeko jarrerak adierazita.

5.- Demokrazia osatzen duten balioak onartzea eta sustatzea, eta sistema demokratikoaren egitura ezagutzea politika antolatzeko modu gisa.

7.- Berdintasunaren eta dibertsitatearen arteko harremana ezagutzea eta diskriminazioa eragiten duten arrazoiak eta faktoreak identifikatzea.

8.- Defendatzea emakumeen eskubideak eta eskubide-berdintasuna eguneroko bizitzan (etxean, lanean, kulturaren arloan, etab.), bai eta emakumeak gutxiesten eta diskriminatzen dituzten adierazpenak arbuiatzea eta genero-indarkeriaren aurkako jarrera aktiboa izatea ere.

9.- SEXUMUXU aplikazioa

Gida honen lehenengo zatia programa honen euskarri den oinarri teorikoari eskaini diogu. Sexu-hezkuntza curriculum-garapenean txertatzeko, nerabezaroko garapen psikosexuala zertan datzan ulertu behar da. Era berean, hezkuntza-prozesuan sexualitatearekiko jarrerek duten eragina ulertzea ezinbestekoa da. Horrez gain, programa honen euskarri den sexu-hezkuntzaren eredua planteatu da, eta sexualitatearen esparruan pertsona arteko harremanek zer-nolako garrantzia duten azpimarratu da.

Bigarren zatian sexu-hezkuntza hezkuntza-sisteman integratzeko proposamen bat planteatu da; 7. eta 8. puntuetan horren helburuak, edukiak eta horretarako gaitasunak adierazi dira. Hori guztia nerabezaroko behar afektibo eta sexualak asetzeko baliabideen zerbitzura jarri da. Puntu honetan teknologia berrietan oinarritutako Sexumuxu aplikazioa garatuko dugu.

SEXUMUXU aplikazioa ez da nahastu behar gida honetan garatu dugun sexu-hezkuntza curriculum-proiektuan integratzeko proiektu orokorrarekin.

SEXUMUXU aplikazioak harreman afektiboei eta sexualei ekiteko beharrezkoak diren gaitasunak garatzeko diseinatutako zenbait ikus-entzunezko baliabide eskaintzen ditu. Hortaz, gida honetan garatutako gaitasunen zati bat hartzen du, baina ez guztiak. Aplikazio horren muina pertsona arteko harremanen etikarekin, osasun psikosexualarekin eta hazkunde pertsonalarekin lotutako gaitasunen garapena da.

9.1.- Zer da SEXUMUXU?

Adierazi dugun bezala, proposatutako jokoaren bidez ibilbide bat egiteko gonbidapena da Sexumuxu, ikaslea segidako jarduera-multzo batetik gidatzen duena. Haietan jokoak proposatzen dira, egoeren inguruko gogoeta egiteko eta gogoeta horiek lantzeko aukera ematen duen ikus-entzunezko materialen bidez. Oinarrizko edukiak ematen dituzten material didaktikoak ere eskaintzen ditu. Gainera, jokoa informazioaren kanpoko mundurako sarrera ere bada, Interneteko esteka jakin batzuk baititu. Jokoa diseinatuta dago, batetik, introspekzio-ariketak, alegia, norberaren beharren inguruko gogoeta pertsonaleko ariketak, egiteko, eta, bestetik, sexualitatearen inguruko oinarrizko ezagutzak bereganatzeko. Hala ere, ikus-entzunezko baliabideak ez dira ezagutzak transmititzeko bakarrik diseinatu, baizik eta planteatzen diren egoeren proiekzioan eta haiekiko identifikazioan oinarritzen diren inpaktu emozional jakin batzuk eragiteko ere. Gaiok zorroztasunez eta seriotasunez lantzeko gizartean dauden zailtasunak ikusita, ikasleriak normalean pentsatzen ez duen horretan pentsatzea eragin nahi du.

Azken finean, segidako eta mailakako jarduerez osatutako bideojoko bat da; horietan ikasteko zereginak proposatzen zaizkie ikasleei, ezagutzen eskurapena eta eguneroko egoeretan jatorria duten emozioen eraketa oinarri hartuta; xedea jarduerok helburu duten gaitasunak lortzea da.

9.2.- Zeini dago zuzenduta?

Jokoa, oso-osorik, DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 1. mailako ikasleei zuzenduta dago. Halaber, jarduerak solte hartu daitezke, ikasgai ezberdinen osagarri moduan erabiltzeko. Kasu horretan, eta irakasleak hala irizten badio, DBHko 3. mailan has daiteke jarduerak erabiltzen.

9.3.- Zer gaitasun biltzen ditu SEXUMUXUk?

Gida honek DBH osorako sexu-hezkuntzaren esparruko helburuak eta gaitasunak proposatzen ditu, 7. eta 8. puntuetan adierazi bezala. Hala ere, SEXUMUXU aplikazioaren erdigunea osasunaren prebentzioarekin estuago lotuta dauden gaitasunak lantzea da. EAEko nerabeen sexu-portaerari buruzko txostenaren arabera, koito-jardueran hasteko batez besteko adina hamasei urte dira, DBHko amaiera aldera. Hortaz, SEXUMUXUk bizitza afektiboari eta sexualari ekiteko beharrezkoak diren elementuei eskaintzen die arreta, eredu biografiko-profesionalari eta pertsona arteko harremanen etikari jarraiki.

9.4.- Sexumuxu aplikazioa erabiltzeko moduak

Sexumuxu aplikazioa bi modutara erabiltzeko diseinatuta dago:

Banaka: erabiltzaileak banaka jolas dezake, bideojoko arrunt bat izango balitz bezala. Sexumuxu aplikazioa lantzeko modu pertsonal horretan, tutoretza oso garrantzitsua da. Tutoreek susta, bidera eta gainbegira dezakete baliabide horren erabilera. Baina, era berean, garrantzitsua da gurasoekin elkarlanean aritzea, familiarteko esparruan SEXUMUXU aplikazioa baliabide ona izan daiteke eta. SEXUMUXU aplikazioa familiak eta eskola lankidetzan aritzeko gune bat izan daiteke, eredu biografiko-profesionalaren eta harremanen etikaren arabera.

Taldean: banakako moduan ikusi dugun bezala, jokoak berak gidatzen du ikaslea aurreikusitako ibilbidetik. Hala ere, taldean, aplikazioak dituen jarduerak zein bere aldetik erabil daitezke. Era horretan, jarduera batzuk zientzietako, herritartasunerako etika eta hezkuntzako, gizarte-zientzietako eta bestelako eskoletan erabil daitezke, haietan lantzen diren edukien sostengu gisa. Adibidez, «Lehenengo esperientziak» jarduera sexu-erantzuna eta gizon eta emakumezkoen arteko diferentziak ezagutzeko beharra pizteko eta sustatzeko modu bat izan daiteke. «Maiteren istorioa» jardueraren bidez, berriz, metodo antikontzeptiboez baliatzeko eta osasuna zaintzeko gaitasuna eskuratzeko beharra eragin daiteke. Herritarrentzako etika eta hezkuntzaren ikuspegitik, «Maiteren istorioa» jarduerak eztabaida eta ikuspegi ezberdinak lantzea eragin dezake gai hauen inguruan: nerabeen haurduntzak, aitatasun-amatasun arduratsua eta haurdunaldia borondatez etetea.

9.5.- SEXUMUXUko testuingurua, pertsonaiak eta jokalekuak

Sexumuxu aplikazioak lagun-talde baten eskolara itzultzea irudikatzen du. Batzuk DBHko 4. maila hasiko dute, besteek Batxilergoko 1. maila eta gainerakoek, Heziketa Ziklo bat.

Taldea honako hauek osatzen dute: Maitane, Lukas, Jokin, Maite, Viky, Eukene, María, Fermín eta Jon Ander. Bizitza gure inguruko edozein auzotan gertatzen da, eta horren barruan, gazteria biltzen den ohiko lekuetan:

logela, gune intimoena; **lokala edo lonja**, kuadrilla elkartzen den tokia; **kalea (skate pista)**, askotariko gizarte-harremanak ezartzen diren gunea, eta **ikasgela**, prestakuntza-gunea.

12. grafikoa.- SEXUMUXUko pertsonaiak.

Dena logelan hasten da. Bertan, egungo bizitzan moldatzeko behar diren tresnak daude: **apalategia**, beharrezkoak diren testuak aurkitzeko tokia; **ordenagailua**, Internet bidezko informazio-fluxurako sarrera; **telefono mugikorra**, besteekin komunikatzeko moduetako bat, eta **ispilua**, norberaren barne-barnera heltzeko bidea.

13. grafikoa.- Logela eta elementu aktiboak.

Kalea, auzoko plaza, beste sozializazio-eremuetarako sarbide den gunea da. Gure pertsonaien abentura eguneroko bizitzan gertatzen da; eremuotan aurkituko ditugun jardueren bidez, sexualitatearekin lotutako gauzak ikasteaz gain, pentsatzeko aukera izango dugu. Aurkezten ditugun proposamenak pentsatu ez dugunaren inguruan, alegia, pentsatu ohi ez dugunaren inguruan pentsatzen laguntzeko diseinatuta daude. Esperientzia afektibo-sexuala gertatu aurretik, beharrezkoa da sorrarazten dituen emozioen inguruan pentsatzeko, haiek irudikatzeko eta lotura ezartzeko gai izatea. Sexumuxu aplikazioak emozioen inguruan pentsatzea, lantzea eta haien aurrean prestatzeko aukera emango dio ikasleriari, beren biografian esperientzia afektibo eta erotikoek txertatu ahal izateko. Horrez gain, jakina, alderdi afektibo-sexualean garrantzitsuak diren egoerak kudeatzeko behar diren ezagutzak eta trebetasunak eskuratzeko diseinatuta dago.

14. grafikoa. - SEXUMUXUko jokalekuen abiapuntua.

15. grafikoa. - Parkea, skate pista.

Sexumuxu aplikazioak eredu biografiko-profesionala du oinarri gisa. Eredu horren funtsezko printzipioetako batek azpimarratzen du pertsona bakoitzak askatasun osoa duela sexu-jardueran noiz hasiko den erabakitzeko. Autoerotismoa edo masturbazioa, sexu bereko edo ezberdineko pertsonekin partekatutako sexu-harremanak, bai eta hori egiteko une eta adina ere, norberak horretarako arrazoiak aurkitzen dituenean baino ez ditu txertatuko biografian. Beste era batera esanda, hanka sartuko genuke osasunarekin lotuta egoteagatik, sexu-jarduera ezinbestekoa dela pentsatuko bagenu. Benetan osasungarria dena norberaren zinezkotasunean oinarritzen den erabakiak hartzeko ahalmena da: sexua ez da derrigorrezkoa. Sexumuxu aplikazioak gai horiek lantzeko eta horien inguruko gogoeta egiteko esparrua eskaini nahi du, nerabeari heltzen lagunduko diotenak haren garapenaren bitartez. Inondik inora, ez datza ikaslea doktrinatzean.

16. grafikoa.- Eskola, ikasgela.

Helburua ez da ikasleek sexu-harremanak izatea gizarte-eraginek —kontserbadore zein aurrerakoiek— edo artegatasun modernoko egoerak bultzatuta, gizabanakoak produktu eta esperientzia biziak itsumutsuan eta larregi kontsumitzera bultzatzen dituena; aldiz, norberaren beharren inguruko erabakiak hartzeko ahalmena sustatu nahi da, autonomia pertsonalaren bidez.

Unea iristen denean, sexu-harremanak arrazoizkoak izatea, eta, ahal dela, arrazoimena erabilita gertatzeko nahikoa gaitasun ematean datza. Horrez gain, norberaren erabakiaren emaitza izango dira, bikotekidearen interesak errespetatuko dira, berdintasunezko egoeran gertatuko dira, jokoaren arauetara egokituko dira —hau da, harremanen etikaren printzipioetara[6]— eta lotutako arriskuen ikuspegitik aski onak eta seguruak izango dira, norberaren biografian txertatu behar den esperientzia psikologikoki esanguratsua bihurtuz.

17. grafikoa. - Lokala edo lonja.

[6] Programa honetan, harremanen etika Félix Lópezen (2005) proposamenaren arabera lantzen da.

Sexumuxu aplikazioak barne hartzen ditu eta babesa eman nahi die jarduera sexualean eta afektiboan hasteko asmorik ez duten pertsonei, dela printzipio etikoei fidel direlako, dela beharrezkoa den heldutasunera iritsi ez direlako. Horien kasuan, dimentsio afektiboa eta sexuala ikuspegi biografikoan eranstea proposatzen dugu. Gizakiok ezagutzan eta pentsamenduan oinarri hartuz baino ezin dugu gure garapen pertsonalaren inguruko erabakiak hartu.

Baina, noiz iristen da sexu-harremanak izateko unea? Euskal nerabeen sexu-portaerari buruzko ikerketatik —programa honekin paraleloan egindakoa— lortutako datuek adierazten dute DBHko 4. mailako bostenak koito-esperientzia duela eta ez dagoela emakume eta gizonezkoen arteko diferentzia nabarmenik. Horri gehitzen badiogu koito-esperientziara iritsi gabe, esperientzia erotiko partekatuetan eskarmentu handia duen ikasle-kopurua, DBHko ikasleen erdiak baino apur bat gutxiago lortuko dugu. Datuok berretsi egiten dute koito-jardueran hasteko batez besteko adina 16 urte inguruan dagoela.

Sexumuxu aplikazioa sexu-hezkuntzan laguntzeko tresna da. Horrek zentzua izango du, baldin eta eskolako curriculum-garapenaren testuinguruan —gaitasunetan oinarritutakoa— gertatzen bada, unea iristen denean ikasleak bere bizitza afektibo-sexuala antolatzeko behar adina baliabide izan ditzan.

9.6.- Aplikazioaren egitura eta edukiak

Sexumuxu aplikazioa jarraian deskribatzen ditugun jarduera eta edukien inguruan egituratzen da.

9.6.1.- SEXUMUXUn garatutako jarduerak

1.- Ezagutu itzazu elementu aktiboak. Jokoan zehar, jarduerak elementu aktiboen bidez agertzen dira aurretik deskribatutako jokaleku batzuen barruan. Lehenengo jarduera logelan garatzen da, eta elementu aktiboak ezagutzeko balio du: ordenagailua, apalategia, telefono mugikorra eta ispilua.

2.- Beharrak. Atariko lan gisa, garapenaren une horretan nerabeek dituzten behar nagusien inguruko gogoeta planteatzen da jardueran. Funtsean, behar afektiboak, sexualak eta talde-integraziokoak dira. Introspekzio-jarduera bat ere proposatzen da, zeinak norberaren indargune eta ahulguneez ohartzen eta hasiko den ikasturterako lan-plana egiten lagunduko baitio ikasleari.

3.- Maiteren istorioa. Nerabe bati benetan gertatutakoa da. Hamabost urte zituela, haurdun gelditu zen, eta haurdunaldiarekin jarraitzea eta mutilarekin ezkontzea erabaki zuen. Pixka bat moldatu eta dramatizatu egin dugu testigantza, eta bideoan jaso dugu, Sexumuxu aplikazioan integratuta. Maiteren istorioan, zazpi atal bereiz daitezke: sarrera, lehenengo sexu-harremanak, haurduntzaren ukoa, erabakia hartzea, zalantzak, onarpena eta gomendioak. Jarduerak atal bakoitza lantzeko aukera ematen dio ikasleari, galdera-sorta baten bidez. Sexumuxu aplikazioko dokumentuetarako estekak ematen ditu, eta, Internet baliatuta, kanpoko beste batzuk proposatzen ditu.

4.- Nor da nor?. Maiteren istorioak agerian uzten du ez Maitek ez bikotekideak ez zutela haurdun geratzea helburu. Haurdunaldia eragin zuten kausak aztertuta, agerikoa da prebentzioak duen garrantzia. Jarduerak

aitatasun-amatasun arduratsuaren inguruan gogoeta egitea proposatzen du, eta metodo antikontzeptiboak aztertzen ditu, «Nor da nor?» jokoaren bidez. Planteamendua, izen bereko haurren joko ezagunak duenaren antzekoa da: pertsonaiak nor diren asmatu behar da, hautagaiak baztertzeko galderak eginez, zuzena aurkitu arte. Metodoek fitxa bana dute, eta haietako bakoitzean dagokion metodo antikontzeptiboari buruzko informazio guztia aurki daiteke.

Jarduera hori bi animaziorekin osatzen da: «Preserbatiboaren erabilera» eta «Larrialdiko kontrazepzioa».

5.- Lehenengo esperientziak. Jarduera-multzo horren bidez, lehenengo sexu-esperientziak lantzen dira. Haietan, sexu-harremanak izaten hasteko modua da aztergai: beldurrak, zalantzak, aurretiko ideiak eta genero-estereotipoak. Teknika proiektibo gisa, *off* ahotsen teknika erabili dugu, eta nork bere buruarekin duen hizketa irudikatzen du.

Txata. Sexu-harremanen atarikoetarako lehen hurbilketa da. Logelako ordenagailutik (elementu aktiboa) bertatik egiteko antolatuta dago, eta lagun minek halako esperientzia berezi batean duten garrantzia nabarmentzen du.

Elkarrizketak. Kuadrillaren lokalean, esaten ari dira tokiko telebista bat gazteen sexualitateari buruzko erreportaje bat egiten ari dela. Elkarrizketak egiten ari dira, eta Maialenek eta Jokinek parte hartu dute. Grabatuta dauzkate elkarrizketak, eta lokaleko telebistan ikus ditzakete. Elkarrizketa horietan, bi lagunen ikuspuntuak, zalantzak, beldurrak eta itxaropenak azalduko dituzte.

Larunbat gaua. Jarduera honetan, sexu-harremanak lehendabiziko aldiz izatea erabaki duten bi pertsonaren ikuspegia irudikatzen da. Bakoitzaren beldurrak, zalantzak, sentimenduak eta itxaropenak islatzen dira.

Bi aukera. Lehenengo aukera *Gauzak horrela egin ohi dira* izenburupean aurkezten da. Bertan, harremanak izateko modu arrunt bat irudikatzen da, halako karikatura bat eginez: bi gazteak antsietatearen, ezjakintasunaren eta estereotipo kulturaletan oinarritutako erreferentzien biktima dira. Bigarrenaren titulua *…baina bestelakoak izan daitezke* da, eta ez du harreman-eredu bat eskaini nahi; horren ordez, sentsibilitatean, enpatian eta esperientziaren kalitatean oinarritutako aukera baten berri ematen du. Bertan ageri dira lehenengo aldia nolakoa izatea gustatuko litzaiekeen galdetutakoan adierazitako itxaropenak.

Gainerako jardueretan bezala, ikus-entzunezko baliabidea ez da helburu bat, berez; aitzitik, intimitatearen esparruko esperientzia esanguratsuak arautu behar dituzten funtsezko balioak (errespetua, enpatia eta zainketa) lantzeko baliabidea da, esperientzia afektibo-sexualaren kalitate-, segurtasun- eta osasun-maila handitzeko asmoz.

6.- Ferminen istorioa. Jarduera hori homosexualitatea lantzeko diseinatuta dago, bai eta sexu-aniztasuna ezagutzeko, onartzeko eta adierazpen guztietan errespetatzeko ere. Nerabezaroan zehar sentimenduak, erotikoak zein afektiboak, ezagutuz doan mutila da Fermin. Pixkanaka, Fermin ohartzen da gizonak gustuko dituela. Gurea bezalako gizarte batean ez da batere erraza joera nagusiaren aurka joatea, eta horrek ziurgabetasuna, zalantzak eta arazoak sortzen dizkio. Arratsalde batean, kuadrillaren lokalean, botilaren jokoan ari dira: botila biratzeari utzi eta gelditzen denean, seinalatutako pertsonari prenda bat betetzeko aginduko zaio, edo hari galdera lotsagabeak egingo zaizkio. Jokoan zenbait zantzu agertzen dira. Geroago, Ferminek bere lagun minari aitortzen dio dena eta, lehenengo aldiz, beste pertsona batekin, Vikyrekin, partekatzen ditu kezkak. Vikyk lagundu, ulertu eta animatu egingo du.

Jarduera osagarri gisa, homosexualitatearekiko jarreren inguruko gogoeta proposatzen da. Galdetegi autoaplikatu moduan, lortutako emaitzak nola, halako informazioa bidaltzen du horrek.

7.- Testigantzak. Eredu biografiko-profesionalak norberaren biografia garatzearen garrantzia azpimarratzen du. Horrek esan nahi du esperientzia erotikoa ulertzeko eta izateko modua norberarena, anizduna eta plurala dela, funtsean. Nork bere biografia osatzen du. Inork ezin du horretara behartu edo ideologia inposatu. Familiak ezin dizkio seme-alabei haren balioak inposatu, baina lehenengo mailako erreferentzia izan behar da eurentzat balioen transmisioari dagokionez. Are gutxiago irakasleek, ezin baitute ikasleria euren sinesmenen edo jarrera ideologikoaren arabera doktrinatu. Ezagutza zientifikoaren eta ikasleen ongizatearen arteko bitartekariak izan behar dira. Nork bere biografia garatzen du, eta hura hartutako erabakiek baldintzatzen dute. Félix Lópezek adierazten duen moduan, esperientzia erotikoa gizabanakoaren askatasunetan sartzen da. Hortaz, gizabanako bakoitzak erabakiko du biografian nola integratu, haren axiologia eta balio-sistemaren arabera. Sexu-hezkuntza aukerak irekitzean datza, «landuz joango diren elementuak sortzean» Efigenio Amezúak esango lukeen moduan, ikasleriari argi egiteko, askatasuna erabiltzeko behar adina elementuak emateko, hartzen dituzten erabakiak zuhurrak izan daitezen.

Horien arabera, kastitatea onartzen duten biografiak aurki ditzakegu. Besteetan, erotismoa maitasun-konpromisoaren mende dago. Beste zenbaiten ezaugarria, ordea, sexuan sakontzeko beharra da edozein konpromiso afektibo hartu aurretik. Azkenik, jokabideak desegokiak eta gatazka psikologiko handiago edo txikiagoen ondoriozkoak direla defendatzen duten biografiak aurki ditzakegu.

Jarduera horrek «Testigantzak» du izena, eta ikus-entzunezko baliabideak erabilita, behar erotiko eta afektiboak asetzeari buruzko hainbat jarreren berri ematen du. Sei testigantza aurkezten dira. Jardueran ez dira bideoak ikusi behar bakarrik, Sexumuxu aplikazioak proposatzen dituen jardueren bidez bideoak egin beharko dituzte ikasleek.

8.- Harremanen etika. Desira erotikoak, batetik, beste batzuekin harreman intimoak izatera bultzatzen gaitu, eta bestetik, kudeatu egin behar den beharra handiagoa edo txikiagoa sortzen du. Desira erotikoa emozioa den aldetik, beste emozio batzuk aktibatzen ditu gugan eta besteengan; adibidez, atxikimenduak orokorrean, pertsona arteko erakarpena, maitasuna eta maitemina, eta horiek, aldi berean, beharrak sortzen dituzte, afektiboak kasu honetan.

Behar erotiko afektibook banakako interesak sortzen dituzte, pertsona arteko harremanen esparruan ebatzi behar direnak. Interes pertsonalek ez dute zertan aukeratutako bikotekideak dituenekin bat etorri. Horregatik, ezinbestekoa da programa honetan jokoaren arauak deitutakoak ezartzea; hau da, harremanen etika, lehenengo zatian definitu den moduan.

Eduki erotiko garrantzitsuak elementu kudeagarri eta sinple bihurtu nahi ditu jarduerak, nerabeek erreferentzia argi eta zehatz gisa erabili ahal izateko jokabide afektibo sexual partekatua erregulatzerakoan. Hona hemen jokoaren arauak: 1.- Baimena. 2.- Berdintasuna. 3.- Leialtasuna. 4.- Plazer partekatua. 5.- Lotura eta deslotura. 6.- Sexu-osasuna. 7.- Zainketa.

Jokoan zehar hainbat egoera agertuko dira, zeinetan definitutako jokoaren arauak aplikatu beharko baitira.

18. grafikoa. - Sexumuxuko jarduerak.

Beharrak	
Edukia	Bizitzan, xede garrantzitsuena norberaren ongizatea lortzea eta besteena erdiesten laguntzea da. Norberaren ongizatea behar oinarrizkoenei —psikologikoak, fisikoak zein sozialak— erantzunda lortzen da. Jarduerak hiru taldetan banatu behar diren beharrak aurkezten ditu: afektiboak, sexualak eta sozialak. Denborazko ordenaren inguruko gogoeta proposatzen dugu. Beharretako batzuk etorkizunean lortuko dira; besteak, epe ertainera, eta gainerakoak, maila horretan bertan lor daitezke.

	Hautemandako beharren artean, maila horretan zeintzuk landu daitezkeen, horretarako zer beharko den eta norengana jo behar den bereizteko aukera planteatzen da.
Helburuak	1.- Norberaren garapenaren protagonista sentitzea: «Zu zara zeure bizitzaren jabe». 2.- Egungo bizitzaren inguruko gogoeta egitea, behar afektiboak, sexualak eta sozialak hautemateko. 3.- Bereiztea norbera ondo sentiarazten duten eta konfiantza eta ongizatea ematen duten elementuak eta ondoeza, artegatasuna, eta ezinegona sortzen dutenak. 4.- Bereiztea epe luzeari begira konponduz joan behar diren elementuak eta une honexetatik konpontzen has daitezkeenak. 5.- Plan pertsonal bat egitea, non maila horretan zehar erdietsi nahi diren xedeak erantsiko baitira.
Bakarkako lana	Jarduera horrek introspekzioa sustatzen du. Norberaren eta norberaren bizi-unearen inguruko gogoeta pizten saiatzen da. Sexumuxu aplikazioan, jarduera hori ispilutik planteatzen da, non lan pertsonala egiteko pentsatu diren jarduerak agertzen baitira.
Taldeko lana	Pertsona batentzat lehentasunezkoak izan daitezkeen beharrak baliteke beste batzuentzat halakoak ez izatea. Horregatik, taldeko lanari esker, ikasleak bere lekua hartuko du taldeari dagokionez, eta norberaren irizpideak baloratuko dira.
Baliabideak	Sexumuxu jarduera

Maiteren istorioa	
Edukia	Maiteren istorioa 15 urteko emakumezko baten benetako lekukotasunean oinarrituta dago, zeina lehenengo sexu-harremanetan haurdun geratu baitzen. Narrazioak sei atal ditu. Lehenengoan, haren lehenengo sexu-esperientziak gertatzen diren testuinguruaren berri ematen da: prestakuntzarik eta ezagutzarik eza, mendekotasun afektiboa. Bigarrenez, ebidentzia ezeztatzeko prozesua kontatzen du Maitek: lehenengo

	sintomek haurdun zegoela iradokitzen zuten, eta lau hilabete geroago jabetu zen egoeraz. Jarraian, lur jota zegoela esaten digu, zalantzak eta beldurrez gain eta babes emozionalak izan zituela, bai eta erabakia hartzeko izan zituen zailtasun handiak ere. Laugarren zatian, Maitek haurdunaldiarekin aurrera jarraitzea eta egoera onartzea erabakitzen du. Hurrengo atalean berriro agertzen dira hartutako erabakiaren inguruko zalantzak; abortatzeko aukera azaleratzen da, baina erabakia hartuta dago. Ondoren amatasunari eutsi egiten dio, errealismoarekin onartu eta bizi-egoera planteatzen du. Testigantzaren amaieran, gazteen sexualitateari, sexu-hezkuntzari eta gurasoen eta eskolaren zereginari buruzko gogoeta egiten du.
Helburuak	1.- Sexu-harremanak sustatzen dituzten arrazoiez jabetzea. a) Gogobetetze erotikoaren beharra. b) Lotura afektiboaren beharra. 2.- Argi eta garbi bereiztea: a) Sexu-esperientzia plazer erotikoaren adierazpen gisa eta horrekin lotutako atxikimenduak, hala nola desira, maitasuna eta maitemina. b) Sexu-esperientzia amatasun eta aitatasun arduratsurako bide gisa. 3.- Lehenengo sexu-harremanak atzeratzen jakitea, norberak horretarako beharrezkoa den heldutasun-mailara iritsi dela uste arte. 4.- Rol tradizionalen inguruan tradizio sexistaren eragina zenbaterainokoa den ohartzea, emakumezkoen eta gizonezkoen autonomia pertsonalari dagokionez. 5.- Maiteren esperientziatik abiatuta, loturak ezartzea babes-neurriekin: a) koitorik gabeko sexu-harremanak. b) Babesteko baliabideak: preserbatiboa erabiltzea, metodo antikontzeptiboak erabiltzea. Osasun-baliabideak erabiltzea.
Bakarkako lana	Sexumuxu aplikazioko «Maiteren istorioa» jarduera diseinatuta dago benetako testigantzaren analisiaren bidez, lan pertsonala egiteko. Helburuetan adierazi bezala, jarduera honen helburua bikoitza da: lehenik eta behin, errealitatearen inguruan ikasleriak dituen ezagutzez jabetzea. Bigarrenez, sexu-harremanen hasierari buruzko etorkizuneko proiekzioa egiten laguntzea ikasleari, beste balio batzuen artean, autonomia pertsonala, enpatia eta pertsona esanguratsuak zaintzea sustatuz.

Taldeko lana	Taldeko lanarekin lotuta, lehenengo sexuen araberako taldetan lan egitea proposatzen dugu. Ondoren, talde mistotan, emaitzak partekatzeko. Bereziki interesgarria da mutilek, euren artean, Maiteren egoera lantzea, normalean bi bikoteko inork nahi ez duen haurdunaldiaren gaineko erantzukizuna onartzea eta euren jokabidea era arduratsuan egokitzea. Abortuari dagokionez, gai horren inguruko eztabaida handia da, eta horregatik, «Maiteren istorioa» jarduerak giza eskubideak, konstituzio-eskubideak eta lege-egoera ezagutzea sustatu behar du, lehenik eta behin. Bigarrenez, erreferentziazko testuinguru soziokulturalaren postulatu ezberdinak ezagutzearen alde egin behar du. Hirugarrenik, eztabaida eraikitzaileak bultzatu behar ditu, nork bere jarrera sortu dezan.
Baliabidea	**Maiteren istorioa** (bideoa) Bideoan Maiteren istorioa ikus daiteke, eta Sexumuxu aplikazioan integratuta dago. **Gaikako koadernoak:** Haurdunaldia nerabezaroan. Nahi gabeko haurdunaldia.

Nor da nor?	
Edukia	Sexumuxu aplikazioko «Nor da nor?» jardueran proposatzen den metodo antikontzeptiboa asmatu behar da, jokoko bi pertsonaiek modu interaktiboan egiten dituzten galderetatik abiatuta. Erantzunak soluzioa aurkitzeko arrastoak dira. Jokoa gorabehera, metodo bakoitzari dagozkion fitxek metodo horri buruzko informazio guztia izango dute.
Helburuak	Nahi gabeko haurdunaldiei dagozkien sexu-portaerekin lotutako egoerak ebazteko gaitasuna eskuratzea, horretarako metodo antikontzeptiboen inguruko ezaguera erabilita. Sexu- eta ugaltze-osasunarekin bateragarriak diren jokabideak hartzeko gaitasuna eskuratzea. Esperientzia afektibo-sexualak partekatzen ditugun bikotekidearen osasuna zaintzeko gaitasuna eskuratzea.
Bakarkako lana	Gizabanakoen ikuspegitik, jarduera horren bidez gaitasuna eskuratzeko behar

	diren ezagutzen azterketa sustatzen da, bai eta norberaren biografiaren inguruko gogoeta pertsonala ere.
Taldeko lana	Taldearen ikuspegitik, aurreikusitako lanean metodo antikontzeptiboak baliabide gisa erabiltzeko gaitasuna modu partekatuan bereganatu behar da; horri esker, sexu-jarduera era arduratsuan antolatuko da. Bertan elkarrekin ikertuko dira metodo antikontzeptiboen erabileraren eta autonomia pertsonalaren arteko lotura, sexu-harremanen zentzuaren inguruko erabakiak hartzeko prozesuari dagokionez, eta aitatasun/amatasun arduratsuarekin eta bikotekidearekiko errespetuaren inguruan. Bereziki garrantzitsua da mutilekin lantzea ugaltze-gaitasuna duten pertsona gisa duten erantzukizuna. Taldean hiriko, herriko edo auzoko osasun-baliabide publiko eta pribatuak aztertu beharko lirateke.
Baliabidea	**«Nor da nor»** (jokoa) Preserbatiboaren erabileraren eta larrialdiko kontrazepzioaren inguruko animazioak. **Gaikako koadernoak:** Metodo antikontzeptiboak

Lehenengo esperientziak	
Edukia	Hona hemen «Lehenengo esperientziak» jardueraren istorioa: Lehenengo sexu-esperientzia izatera doan bikotea da protagonista. Elkar ezagutu, eta elkarrenganako erakarpena sentitzen dute. Elkarrekin oheratzeko gogoa daukate, baina beldurrak eta zalantzak dauzkate. Lagun minekin kontsultatu ondoren (txata), gau batean ligatu egingo dute (larunbat gaua). Azkenean, Maialenen etxera joango dira. Desira piztuko da bien artean, etxera iritsi baino lehen (igogailua). Zer gertatuko da gero? Batzuetan, gazteek inprobisatu egiten dute; buruan aurrez dauzkaten ideiei jarraikiz jokatzen saiatzen dira. Eurengandik espero denaren arabera jarduteko joera dute. Oso gogoan izaten dituzte genero-estereotipoak. Lehenengo esperientzia urduria, desegokia eta ez-segurua izan ohi da. Oro har, nerabeak ez dira egoera horretarako mentalki prestatuta egoten, eta esperientzia

	tamalgarria izan daiteke (lehenengo aukera). Hala ere, sexualitatea gauza naturaltzat hartuz gero, bizi-esperientzia baten moduan balioetsita —kontu handiz landu beharreko esperientzia, arinegi egin behar ez dena—, eta inguruak (familia eta eskola) ondo prestatzeko elementuak eskaintzen baditu, pertsona ondo presta liteke lehenengo aldi horretarako, eta pentsatuta izango du nolakoa izatea gustatuko litzaiokeen eta bere buruari eta besteari zer eskatuko liokeen. Era horretan, lehenengo aldia bestelakoa izan daiteke (bigarren aukera). Hala gertatuz gero, pentsa liteke eskola-sistemak behar beste gaitasunez hornitu duela ikaslea helburu horretarako. Maialenek eta Jokinek, bakoitzak bere aldetik, gazteen sexualitateari buruzko erreportaje batean hartu dute parte. Bertan, euren beldurrak eta zalantzak adierazi dituzte, baita lehenengo aldia nolakoa izan beharko litzatekeen ere.
Helburuak eta gaitasunak	1.- Lehenengo sexu-esperientziei buruzko etorkizuneko proiekzioa egitea, beldurrak eta zalantzak eta sexu-esperientziaz modu osasungarrian, kalitatezkoan eta autonomia pertsonaleko gaitasuna baliatuta gozatzeko behar diren baliabideak analizatzeko. 2.- Sexu-esperientziarekin erlazionatutako emozioak aztertzea; adibidez, desira, maitasuna eta maitemina edo beldurra, errua, lotsa. 3.- Desira erotikoa eta lotura afektiboa (maitasuna) bereizteko gai izatea, sexu-harremanean nahi dena zehaztasun handiagoz ezagutzeko eta erabakiak hartu ahal izateko. 4.- Sexu-harreman partekatuetan, jokoaren arauak eta harremanen etika aplikatzeko gai izatea.
Bakarkako lana	Xedea da behar afektiboak eta sexualak kudeatzeko behar adina baliabide ematea ikasleari. Horretarako, introspekzio-prozesua egin behar da, eta norberaren emozioak aztertu. Ikus-entzunezko materialak emozioak ere eragin ditzake, era bikarioan, pertsonaietan proiektatuz. Hartara, normalean pentsatzen ez duten horretan pentsatu ahal izango dute ikasleek, eta intentsitate emozional handiko esperientzia hori gertatzen denerako prestatuko dira.
Taldeko lana	Ezinbestekoa da sentimendu eta emoziook hurbileko erreferentziazko taldearekin egiaztatzea. Kokatzeko, nahitaezkoa da kidekoek pentsatzen eta sentitzen dutenaz ohartzea. Taldeko lanak, era berean, mito berriak desegiteko balioko du, sexu-harremanen nolabaiteko derrigortasuna iradokitzen duena kasu.

	Taldeko lanari esker analizatuko dira kidekoen artean sexualitatea bizitzeko dauden hainbat modu eta autonomia pertsonal maximotik abiatuta, erabakien jabe izateak duen garrantzia. Horretarako, taldeko lana «Testigantzak» jarduerarekin lotu behar da.
Baliabideak	**Txat bidezko elkarrizketa** (bideoa) Edukia: Maialenek eta Jokinek txat bidezko elkarrizketa dute, bakoitzak bere lagun minarekin, eta norbaitekin elkartuko direla komentatzen diete. **Maialeni egindako elkarrizketa** (bideoa) Telebista-programa bat gazteen sexualitateari buruzko erreportaje bat egiten ari da. Maialeni elkarrizketa egin diote. **Jokini egindako elkarrizketa** (bideoa) Telebista-programa bat gazteen sexualitateari buruzko erreportaje bat egiten ari da. Jokini elkarrizketa egin diote. **«Lehenengo esperientziak»** (bideoa) *Larunbat gaua:* Maialen eta Jokin gauean taberna batean elkartzekotan gelditu dira. Ligatu eta Maialenen etxera joatea erabakitzen dute. Han, bi aukera agertzen dira. *Gauzak horrelakoak izan ohi dira.* Apur bat karikaturizatuz, gazte askoren ustetan gertatzen dena planteatzen du. *Gauzak bestelakoak izan daitezke.* Sekuentzia horretan, jardueraren pertsonaiak telebistako elkarrizketan adierazi eta planteatu zituzten desira eta ikuspegiak gertatzeko ez beste modu bat planteatzen da. Ikus-entzunezko baliabide hori ez dago ezagutzak transmititzeko diseinatuta, ez eta gauzak nola egin behar diren erakusteko ere. Introspekzio eta gogoetarako akuilu gisa sortuta dago. Autoprestakuntza eragiteko eta ikerketa sustatzeko pentsatuta dago. Garapen horretarako, ezinbestekoa da erreferentziazko talde naturalarekin egiaztatzea. **Gaikako koadernoak:** Plazer erotikoa. Sexu-erantzuna. Sentimenduak: erakarpena, maitasuna, maitemina. Jokoaren arauak. Sexu-transmisiozko infekzioak (STI).

Jokoaren arauak	
Edukia	Zazpi dira bete beharreko arauak: 1.- Sexu-harremanak izango ditut, baldin eta beste pertsona nirekin sexu-harremanak izateko prest badago (onespena). 2.- Bion ongizaterako, helburua ez da nik bakarrik gozatzea. Bestearen gozamena ere kontuan hartu behar dut (plazer partekatua). 3.- Zaindu egin behar dut nire bikotekidearen osasuna. Nire osasuna ere zaindu behar dut (sexu-osasuna). 4.- Ez ditut nire asmoak ezkutatu behar. Ez dut engainatu behar (leialtasuna). 5.- Guztiok berdinak gara, edozein direla ere gure sexua eta sexualitatea bizitzeko modua. Berdinak gara intimitate-harremanetan ere (berdintasuna). 6.- Nire bikotekidea izan nahi duen eska diezaioket pertsona bati. Ezin dut inor nire bikotekide izatera behartu (lotura). 7.- Zaindu egin behar dut nire bikotekidea, elkarrekin hazi eta hezi gaitezen. Horretarako, bizitzan dituen helburuak ezagutu behar ditut, eta horiek erdiesten lagundu behar diot. Hark, aldi berean, nireak ezagutu behar ditu (zainketa). **1. Egoera (lotura)**.- A eta B urtebetez egon dira elkarrekin. Harremanean, B ez da maitatua sentitu, eta desengainatu egin da. A gero eta urrutiago sentitzen da Brekiko, eta harremana etetea erabakitzen du. B asko atsekabetu da, eta ez dio halakorik egiten uzten; haserretu egiten da, estutzen du, segika ibiltzen zaio, jazartzen du, behartzen du…eta erasotzen dio. **2. Egoera (lotura)**.- *«Nire bikotekidea nigandik aldentzen ari dela sumatzen dut. Utzi egingo nauela uste dut. Ni oso maiteminduta dago. Uzten banau, onartu egin beharko dut. Zoriontsu izan dadila beste batekin… Hala ere, asko sufrituko dut».* **3. Egoera (osasuna)**.- *«Nik ez dut preserbatiborik erabiltzen. Deserosoak dira, eta zapuztu egiten dute giroa».* **4. Egoera (osasuna)**.- *«Ez dut uste haurdunaldiarekin kezkatu behar naizenik. Hori emakumeen kontua da. Eurak dira haurdun geratzen direnak. Eurak dira baliabideak jarri behar dituztenak».* **5. Egoera (osasuna).-** *«Nire bikotekideari nirekin dituen sexu-harremanen ondorioz gertatzen zaion guztia nire kontua ere bada».*

	6. Egoera (baimena).- *«A ze neska puska! Edozein izkinatan joko dut berarekin, berak nahi ala ez nahi!»* *«Ba nik mutil horrekin egingo dut txortan, kosta ahala kosta».* **7. Egoera (baimena)**.- «Sexu-harremanak ditut nire mutilarekin. Elkar musukatzen eta laztantzen dugu, eta elkarrekin masturbatzen gara. Ni, momentuz, ondo sentitzen naiz horrela, baina behin baino gehiagotan saiatu da koitora iristeko behartzen. Garrasi egiten dit: *«Honaino iritsi bazara, ez esan ez duzula jarraituko!».* **8. Egoera (berdintasuna)**.- *«Sexu-harremanetan, bestea menderatzea izaten da onena; garaile sentitzea».* **9. Egoera (berdintasuna)**.- *«Gizonok emakumeek baino sexu-desira handiagoa dugu. Horregatik, sexuarekiko interes handia daukaten emakumeak likits hutsak dira».* **10. Egoera (plazer partekatua)**.- *«Sexuan, kontzentratuta egon behar zara. Ni nireaz arduratzen naiz, eta ez zait gustatzen bestea niregana zuzentzea edo begietara begiratzea. Harira joan behar gara; txepelkeriak ez ditut gustuko».* **11. Egoera (plazer partekatua)**.- «Zure bikotekideak sexu-esperientziaz gozatzeaz arduratzen bazara, zuk ere gehiago gozatuko duzu». **12. Egoera (leialtasuna)**.- «Norbaitekin oheratzeko maiteminduarena egin behar badut, aurrera». **13. Egoera (leialtasuna)**.- *«Bikotekidea dut, konprometituta gaude, eta sexu-harremanak izaten ditugu. Aurrekoan, beste pertsona bat inguratu zitzaidan, eta larrua jo genuen. Itzela izan zen. Errepikatu egin nahi nuke. Ez diot nire bikotekideari ezer esango; utzi egingo ninduke».*
Helburuak	Pertsona arteko harremanak, batez ere intimoak (gertutasun psikologiko handieneko harremanak) printzipio etikoek erregulatu behar dituzte. Jardueraren helburuak ondokoak dira: 1.- Pertsona arteko harremanen printzipio etikoak ezagutzea. 2.- Jokoaren arauak erabiltzea eta bereganatzea (printzipio etikoak). 3.- Printzipio etikoen hausteak publikoki salatzeko gai izatea. Hona hemen proposatutako printzipio etikoak: 1.- Baimenaren etika. 2.- Plazer partekatuaren etika.

	3.- Sexu-osasunaren etika. 4.- Leialtasunaren etika. 5.- Berdintasunaren etika. 6.- Loturaren eta desloturaren etika 7.- Zainketaren etika
Bakarkako lana	Proposatutako hamahiru egoerak banaka aztertu behar dira. Harremanetan printzipio etikoak barneratzeko gai izatean datza. Norberaren ikuspegitik, proposatutako egoerek hainbat ustezko egoera aurreikusteko aukera ematen dute. Era horretan, normalean pentsatu ohi ez ditugun gaien inguruan pentsatzeko aukera sustatzen da. Hortaz baliatuta, ikasleriak jarrera etikoa izango du pertsona arteko harremanei dagokienez, eta irizpideak sortuko ditu.
Taldeko lana	Taldeak pertsona arteko harremanen printzipio etikoak egiaztatzea, argudiatzea eta defendatzea ahalbidetu behar du. Horretarako, ezinbestekoa da ikasleek horren inguruko bakarkako lana egin izana. Hala, bakoitzaren argudioak eztabaidatu ahal izango dira eta ikasle bakoitzak horiek erlatibizatu, aberastu eta aldatu ahal izango ditu, erreferentziazko taldeekin adostasun orokorra izatera iristeko.
Baliabideak	**Jokoan zehar agertuko diren mezuak**: Bideojokoan zehar mezuak agertzen joango dira mugikor batean, non dilema etikoak planteatuko baitira. Mezuaren erantzuna osatu beharko da, agertzen diren aukeretako bat hautatuz. Erantzun bat besterik ez da zuzena. **Gaikako koadernoak:** Jokoaren arauak.

Testigantzak	
Edukia	Jarduera honen bidez, gizarte plural batean sexu-harremanei heltzeko modu asko daudela ikusarazi nahi dugu. Gure gizartean, ikuskera ezberdinak dauzkagu sexu-harremanen inguruan. Betiere jokoaren arauak errespetatuz (harremanen etika), norberak erabaki behar du sexu-harremanei nola heldu nahi dien.

	Sexu-esperientziari heltzeko daukaten irizpideari buruz gogoeta egiten lagundu nahi diegu ikasleei, sei testigantza baliatuz. Horrez gain, testigantza bakoitzaren balorazio kritikoa egitera bultzatu nahi ditugu.
Helburuak	1.- Nerabezaroan eta gaztaroan sexu-harremanak lantzeko sei modu erakustea. 2.- Horren inguruan bakoitzak duen jarreraren inguruko bakarkako introspekzio-lana egitea. 3.- Sexu-portaerarekiko jarrera ezberdinak aurrez aurre jarri, eta eztabaida sortzea. 4.- Sexu-harremanak izan aurretik, norberak etorkizunean sexu-harremanei helduko dien moduaren inguruko gogoeta egiteko elementuak ematea.
Bakarkako lana	Bizi garen gizartea irekia eta askotarikoa da, eta sexu-harremanei heltzeko hainbat modu daude. Eredu biografiko-profesionalak nork bere sexu-biografiaren inguruko erabakiak hartzearen garrantzia azpimarratzen du. Horregatik, jarduera honetan, ikasleak sexu-harremanei heltzeko dauden moduen azterketa pertsonala egingo du, sei testigantza baliatuta. Ikasleriak sei jarrera horietako bakoitzaren alde onak eta txarrak aztertuko ditu, bai eta horiekiko duen jarrera zehaztu ere.
Taldeko lana	Taldeko lana osagarria da. Talde txikiak osatuko dira, bi sexuetako pertsonekin, eta jarrera ezberdinen inguruko eztabaida sustatuko da. Helburua da nork bere jarrera defendatzeko gaitasuna garatzea, besteen jarrerak aintzakotzat hartzeko gaitasuna landuz.
Baliabidea	**Testigantzak** (bideoa) Sei testigantza, sexu-jarduerari ekiteko beste hainbeste modu adierazten dituztenak. Pertsonaiek sexuaren eta maitasunaren arteko harremana nola bideratzen duten azalduko dute. **Gaikako koadernoak:** Jokoaren arauak.

Ferminen istorioa	
Edukia	Desira erotikoaren orientazioa pubertaro aurreko adinetan sortzen da. Nagusiki heterosexista den gizarte honetan, orientazio homoerotikoa nortasunean harmonizatzeko ahalegin handiagoa egin behar dugu gizakiok. Homosexualitatea aniztasunaren ikuspegitik lantzeko asmoz diseinatuta dago jarduera.
Helburuak	1.- Desira erotikoaren orientazioa zertan datzan ulertzea. 2.- Sexu-aniztasuna zertan datzan ulertzea. 3.- Norberaren sexu-desiraren edukiak ezagutzea. 4.- Hala badagokio, norberaren homosexualitatea aitortzea, integratzea eta onartzea. 5.- Homosexualen eskubideak aitortzea, errespetatzea, babestea eta defendatzea. 6.- Sexu-orientazioarengatiko diskriminazio-egoerez ohartzeko jarrera kritikoa garatzea, eta eraso-, baztertze- edo diskriminazio-egoerak ez onartzea.
Bakarkako lana	Jarduerak norberaren desira erotikoaren eta bere joeraren inguruko introspekzioa egiteko bide ematen du. Eduki erotikoak erlatibizatu egin behar dira, homosexualitatea ez baita dena edo deus ez, zuria edo beltza. Homosexualak izango diren pertsonei beren orientazioa onartzea eta adieraztea ahalbidetu behar die; hala, nortasunean txertatuko dute, autokontzeptua eta autoestimua egokituz. Heterosexualak izango diren pertsonei homosexualitatearekiko jarrera homofobikoak berraztertzeko aukera eman behar die, bai eta hala badagokio, horiek aldatzeko aukera ere; horrez gain, joera dela-eta diskriminazioa, injustizia eta beste pertsonei eragiten zaien sufrimendua mantentzen zenbateraino laguntzen duten ohartzeko bide eman behar die ikasleei.
Taldeko lana	Esparru horretan aurrerapauso handiak eman badira ere, joera kulturalak homofobiarako ageriko joera mantentzen du. Ikerketaren esparruan, homofobia esplizitua eta inplizitua bereizten dira, eta azkena askoz ere zoliagoa da. Taldeko lanak gai hori lantzea ahalbidetu behar du, sexualitatea bizitzeko modua dela-eta beste pertsonak desberdintasun-egoeran jarri eta sufrimendua eragiten dieten egoerak antzeman eta borrokatzeko.
Baliabideak	**«Ferminen istorioa»** (bideoa)

	Nerabe-talde bat lokalean dago. Botilaren jokoan ari dira. Joko horretan, galdera labainak egin edo prenda bat inposatu behar diote biratzeari utzi ondoren, botilak seinalatzen duen pertsonari. Jokoan taldeko bi mutilen arteko erakarpena iradokitzen da. Bideoaren bigarren zatian, Ferminek lagunari aitortzen dio dena eta haren orientazio sexualaz mintzatzen da lehendabiziko aldiz. **Gaikako koadernoak:** Desiraren orientazioa.

GIB/IHESAren, sexu-transmisiozko infekzioen eta nahigabeko haurdunaldien prebentzioa. (IHESAren Prebentzio eta Kontrolerako Planaren materialak. Osakidetza) Osasun eta Kontsumo Saila eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.	
Edukiak	Jarduera honetan IHESAren Prebentzio eta Kontrolerako Planaren (Osakidetza) barruan garatutako materialak erabili dira. Ikastetxe guztietan banatu dira materialok. Paper formatoan egindako “Gazteentzako gida” eta “Sexu segurua” deituriko DVDa osatzen dute. Sexu-transmisiozko infekzioen prebentziorako konpetentzien promozioaren garrantzia kontuan harturik, beharrezkoa kontsideratu da material hauek SEXUMUXU aplikazioan sartzea, ahalik eta dibulgazio zabalena lortu dadin.
Helburuak	Osakidetzaren IHESAren Prebentzio eta Kontrolerako Planaren (Eusko Jaurlaritza) eduki eta ekintzak SEXUMUXU aplikazioan integratzea sexu eta ugalketarako osasunaren sustapenerako. Hori guztia behar afektiboak, emozionalak eta sexualak bermatuko dituzten konpetentziak sustatzeko helburuarekin egingo da, zeinaren bitartez berezko etika social bati loturiko garapen pertsonala landuko den.
Bakarkako lana.	Ekintza honek ikasleei sexu-esperientzien hastapenetan erabaki egokiak hartzeko argibide eta konpetentziak barneratzen lagunduko die. Bakarkako lana norbere eta ondoan dugunaren babesarekiko dugun erantzukizuna kontuan hartzean datza, osasunaren promozioarekin harremanduriko terminoak erabiliz.

Taldeko lana.	Sexu-jardueran, gizonezkoen nahiak zenbaitetan ez doaz bat emakumezkoekin. Sexu-harremanak boterezko-harremanen eragina izan dezakete eta honek sexu-portaera arriskutsuekin lotura zuzena eduki dezake. Esploraziorako beharra, norbere afirmazioa edo gabezi-afektiboen konpentsazioa, nerabezaroaren ezaugarri dira eta portaera arriskutsuen arrazoia izan daitezke baita ere. Ondorioz, taldearen ikuspegitik eta hezkuntza terminoetan, jarduera honek pentsamoldeak amankomunean jartzeko aukera ematen du, bi sexuen arteko elkarrizketak sustatzen ditu, eztabaidak sortzen ditu, kezkak partekatu eta baita intimitate erotikoan ematen diren afektu eta sexu-harremanekiko jarrera kritikoa garatzen saiatzen da ere.
Baliabideak	IHESAren Prebentzio eta Kontrolerako Planak (Osakidetza) argitaratutako materialak SEXUMUXU aplikazioari egokituak. **Koaderno tematikoak:** Sexu-transmisiozko infekzioak (STI). Hartutako immunoeskasiaren birusa eta hiesa. Metodo antikontzeptiboak. Larrialdiko kontrazepzioa. Hurrengo eguneko pilula.

9.6.2.- Sexumuxuko eduki teorikoak:

Aipatu bezala, jokoaren elementu aktiboetako bat logelako apalategia da. Hamar koaderno daude bertan, aplikazioan aztertutako gaien eduki teorikoa lantzen dutenak. Izenburuak hurrengo taulan daude:

Gaikako koadernoak	
1	Plazer erotikoa. Sexu-erantzuna.
2	Sentimenduak: erakarpena, maitasuna, maitemina.
3	Desiraren orientazioa.
4	Jokoaren arauak.
5	Metodo antikontzeptiboak.
6	Sexu-transmisiozko infekzioak (STI).

7	Larrialdiko kontrazepzioa. Hurrengo eguneko pilula.
8	Hartutako immunoeskasiaren birusa eta hiesa.
9	Haurdunaldia nerabezaroan.
10	Nahi gabeko haurdunaldia.

Koadernoek erabilera bikoitza dute. Hainbat ikasgaitako (zientziak, gizarte-zientziak, etika eta gizarteko hezkuntza eta herritartasunerako hezkuntza, adibidez) lanaren babes-material gisa erabil daitezke. Sexumuxu aplikazioaren barruan, erreferentziazko materialtzat jo daitezke ere. Zentzu horretan eta jardueretan zehar, koadernoak aipatu eta horiekiko loturak ezartzen dira etengabe.

Ikaslearentzako, baina, batez ere, irakasleentzako material moduan diseinatuta daude. Bertan Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumean deskribatutako edukiak jasotzen dira, gaitasunak eskuratzeko ezinbestekoak direnak.

Curriculumaren zati gisa, edukiok gaitasunak eskuratzeko beharrezkoak dira, hortaz, programazioetan erantsi eta ebaluagarriak izan beharko lirateke.

Hurrengo taulak SEXUMUXUko jardueren, horiei lotutako gaikako edukien eta gaitasun-adierazleen arteko elkarrekikotasuna erakusten du. Bertan, irakasleek aukera izango dute ikusteko jarduera bakoitza zer gaitasun lortzeko diseinatu den eta egiaztatzeko zeintzuk diren jarduera afektiboari eta sexualari ekiteko unean egoki jokatzeko ikasleak menderatu beharko lituzkeen ezagutzak.

Jardueren, eduki teorikoen eta gaitasunen arteko lotura			
SEXUMUXU jarduera	**Lotutako edukiak: gaikako koadernoak.**	**Gaitasun-adierazleak**	**Aurreikusitako arloak**
Beharrak		Norberaren oinarrizko beharrez jabetzea, ongizate maila osasungarria lortzeko modu gisa.	Tutoretza
Maiteren istorioa	Gaikako koadernoak: Haurdunaldia nerabezaroan. Nahi gabeko haurdunaldia.	6.- Giza sexu-erantzuna (norberarena eta aurkako sexuarena) eta hura sexu-portaeretan nola adierazten den ezagutzea (esperientzia erotikoaren arloa).	Natura-zientziak Gizarte-zientziak

Nor da nor?	Gaikako koadernoak: Metodo antikontzeptiboak.	Jaiotza-tasa kontrolatzeko moduak identifikatzea (osasunaren arloa).	Natura-zientziak
Lehenengo esperientziak	Gaikako koadernoak: Plazer erotikoa. Sexu-erantzuna. Sentimenduak: erakarpena, maitasuna, maitemina. Jokoaren arauak. Sexu-transmisiozko infekzioak (STI).	Honako funtzio hauek bereiztea: ugalkortasuna, plazer erotikoa, komunikazioa, lotura, atxikimenduak eta emozioak (esperientzia erotikoaren arloa). Giza sexu-erantzuna (norberarena eta aurkako sexuarena) eta hura sexu-portaeretan nola adierazten den ezagutzea (esperientzia erotikoaren arloa). Norberak konfiantza duen pertsonekin sentimendu intimoak adierazteko gaitasuna baloratzea (atxikimenduen arloa). Pertsona arteko erakarpen-sentimenduak eta beste atxikimenduen artean, maitasuna eta maitemina onartzea (atxikimenduen arloa). Arrisku-egoerak orokorrean, eta sexualitatearekin lotutakoak bereziki, identifikatzea eta aurreikusteko gai izatea (osasunaren arloa). Sexu-portaera osasungarriak (sexu-transmisiozko infekzioak kutsatzeko arriskurik ez dutenak) arrisku-praktiketatik bereiztea sexu-harremanetan (osasunaren arloa). Babesteko baliabideak balioztatu: arriskurik gabeko praktikak, preserbatiboaren erabilera egokia (osasunaren arloa). Preserbatiboaren erabilera egokia ezagutzea (osasunaren arloa).	Natura-zientziak Gizarte-zientziak Etika- eta gizarte-hezkuntza Tutoretza
Ferminen istorioa	Gaikako koadernoak: Desiraren orientazioa. Sentimenduak: erakarpena, maitasuna, maitemina.	Desira erotikoaren orientazioa ulertzea sexu- eta genero-identitatearen barruan (esperientzia erotikoaren arloa). . Norberaren eta besteen desiraren orientazioa (heteroerotikoa, homoerotikoa) onartzea (esperientzia erotikoaren arloa). Sexu-harremanak partekatzen ditugun pertsonaren osasuna babesteko baliabideak aukeratzea (osasunaren arloa). Eguneroko bizitzako homofobia-egoerak identifikatzea (etikaren arloa).	Natura-zientziak Etika- eta gizarte-hezkuntza Gizarte-zientziak Tutoretza
Testigantzak	Gaikako koadernoak: Jokoaren arauak.	Gizarte demokratikoan sexu-portaerak erregulatzeko dauden moduak balioztatzea (esperientzia erotikoaren arloa). . Norberaren printzipioak sexu-portaerarekin erlazionatzea eta haiek analizatzea (norberaren ideologia, printzipio erlijiosoak, printzipio laikoak) (etikaren arloa).	Etika- eta gizarte-hezkuntza Tutoretza
Harremanen	Gaikako koadernoak:	**Jokoaren arauak** ezagutzea pertsona arteko harremanetan. Harremanen etikarekin bat datozen	Etika- eta

etika	Jokoaren arauak.	portaerak identifikatzea (etikaren arloa).	gizarte-hezkuntza Tutoretza

10.- Ebaluazioa, mailak eta proposamenak

10.1.- Sexu-hezkuntzako gaitasunen ebaluazioa

SEXUMUXU programarekin, sexu-hezkuntza hezkuntza-sisteman integratu nahi da curriculumaren bidez. Hezkuntza-jardueran sexu-hezkuntzaren diziplinarteko tratamendua normalizatu nahi du.

Sexu-hezkuntza curriculumaren bidez txertatzeko prozesua hasieratik, garatu bitartean eta amaieran ebaluatu behar da; ebaluazioa planteatutako helburuen lorpenaren ingurukoa izango da, eta irakaskuntza-ikaskuntzan funtsezkoa eta binomioaren zati da. Horri esker, abiapuntua aztertuko dugu, materialak eta aplikatzeko prozedurak balioetsiko ditugu eta, azkenik, ikasleek gaitasunak zenbateraino eskuratu dituzten baloratuko dugu, zeinek euren bizitza afektibo-sexuala pertsonalizatu eta autonomoa, segurua eta osasungarria izatea ahalbidetuko baitiete.

Gure hezkuntza-sistemaren arabera, hezkuntzaren xedea **«…ikasleen nortasuna eta gaitasunak erabat garatzea»** da (ELO 2/2006). Ia hezkuntza-lege guztiek pertsonaren garapen integrala sustatzea dute helburu gorentzat; baina, kasu askotan, hezkuntza integralarekiko kezkak ez du babesik aurkitzen heziketa-jardueran.

Oinarrizko gaitasunen garapenak eskatzen du gaitasun afektiboak, sozialak, funtzionalak eta kognitiboak bultzatzea, hezkuntza integralaren kontzeptua indartuko dutenak. Oinarrizko gaitasunak lortzeak metodologien balioa, diziplinarteko harremana eta eskola inklusiboaren balioa nabarmentzen ditu banakako eta taldeko zereginak artikulatzen diren ikaskuntza-testuinguru heterogeneoen bidez.

Prozesu guztia arlo guztiek izan beharko luketen jomuga izan beharko litzateke, eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren, ezagutza eta gaitasun askotarikoak era artikulatuan eta elkarrekin lotuta lantzeko prozesuaren garrantzia azpimarratu.

Ikuspegi horretarik, oinarrizko gaitasunetan oinarritutako ebaluazioaren interpretazioak aldaketak eskatzen ditu edukietan zein prozeduretan. Horrek, era berean, irakasteko eta ebaluatzeko metodo berrien dinamika prozesuala irekitzen du.

Gaitasunen araberako hezkuntzak ebaluazio-metodo eraginkor eta praktikoagoak planteatzeko beharra adierazten du. Horregatik, PISA Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Programatik abiatuta ebaluazio-prozedura bat ezarri da; horrek ikasitako ezagutzak erabiltzera derrigortzen ditu ikasleak, mundu errealeko egoera pertsonal eta sozialei aurre egiteko eta irtenbidea emateko. Ebaluazio mota horren erdigunea zereginak dira, errealak diren egoerak ebazteko erabiltzean baino ez dutenak zentzurik.

Heziketa-programen ebaluazioak irakaskuntza-ikaskuntza prozesua taldearen errealitatera egokitzen den aztertzea ahalbidetzen du, programaren hasieran, hura egin bitartean eta amaierako emaitzan. Horrela, gure abiapuntuko egoera zehaztu ahal izango dugu, betiere proposatutako helburuak eta prozesu guztia hobetzeko behar motak erdiesten badira.

Gaitasunen araberako ebaluazioari heltzeko, beharrezkoa da aurretik argitzea abiatzen garen ebaluazioaren kontzeptua eta gaitasun-kontzeptua eta gaitasunen araberako ebaluazioa zehazki zer den zehaztea.

Zentzu horretan, ebaluazio hezigarria identifikazioaren, bilketaren, heziketa-datu edo ekintzen tratamenduaren prozesua sustatzen duen jarduera da, haiek balioesteko eta erabakiak hartzeko helburuarekin. Aplikazio-unearen arabera, autore gehienek hiru kategoria handitan sailkatzen dituzte ebaluazioaren xedeak eta funtzioak:

1.- **Hasierako ebaluazioa** egiten da errendimendu bat aurreikusteko edo gaitasun-maila zehazteko heziketa-prozesuaren aurretik. Programa garatu aurretik ikaslearen ezaugarriak zeintzuk diren zehaztu nahi ditu, dagokion mailan kokatzeko, sailkatzeko eta gizabanakoari edo gizarteari dagokionez, heziketa-prozesuaren abiapuntu egokian kokatzeko.

2.- **Ebaluazio prozesuala eta formatzailea**: ikaskuntza-zeregin edo jarduera bakoitza bukatutakoan egiten da, eta xedeak hauek dira: erdietsitako helburuen berri ematea eta ikaskuntza arazoak non eta zer mailatan dauden konturatzea, hezkuntza-estrategia berriak eta arrakastatsuagoak bilatzeko aukera emanez. Hezkuntza-programaren garapenari etengabeko feedbacka ematen dio.

3.- **Amaierako ebaluazioa edo ebaluazio sumatiboa**: ikasleengan behatzen diren amaierako gaitasunak baloratzen ditu. Ikasketa-prozesu baten ondoren egiten da, prozesua bukatutakoan. Helburuak bete ote diren egiaztatzen du, eta heziketa-prozesu osoaren inguruko balio-judizio bat egiten du. Hona hemen haren jomuga garrantzitsuenak: errendimenduaren arabera kalifikatzea, egiaztapena ematea eta maila guztietan (ikasleak, familiak, erakundea, irakasleak eta gizartea) lortutako maila zehaztea eta jakinaraztea.

Gai zehatz baterako gaitasunak eskuratzeak, kasu honetan, behar afektibo eta sexualen kudeaketarako, ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak integratzea esan nahi du, ikasleari modu eraginkorrean eta efizientean jardutea ahalbidetzen diotenak. Gaitasuna izateak hau guztia esan nahi du:

1.- Ezagutzak integratzea: eduki zientifikotan oinarritutako funtsezko ezagutzak izatea.

2.- Gaitasunak garatzea: ezagutzok kudeatu ahal izateko, bizitzako testuinguru jakin batean erabiltzeko behar direnak hautatzeko eta konbinatzeko aukera emango dutenak.

3.- Jarrera positiboak garatzea: ezagutza objektibotan oinarritutako prestasun objektiboak, erreferentziazko testuinguru sozialaren eta kulturalaren ikuspuntu kritikotik abiatuta.

4.- Lanak burutzea: jarduera aurrera eramatea eta hori burutzea banaezinak dira praktikan.

5.- Testuinguruan kokatuta ekitea: Testuinguru espazio-denborazkoan eta noiz-nolakoan ikaslea gai den egiaztatzea da. Egoera bakoitza analizatzea da, beraz, «orain eta hemen» egoeran zer ezagutza-konbinazio behar den aukeratzeko.

6.- Etengabe ikastea: gaitasuna modu errepikakorrean eskuratzen da, hasierako prestakuntza iraunkorrarekin eta esperientzia praktikotik abiatuta. Hori dela-eta, etengabe garatzen da.

7.- Era autonomoan jardutea: hartzen diren erabakien gaineko erantzukizuna hartzea eta norberaren gaitasunen sustapenean zeregin aktiboa izatea. Jakintzak eraikitzen dakien hura da pertsona gaitua. Gaitasuna jakintza konbinatorioa da, kontzeptuen bidez transmititzeaz gain, subjektu-ikastunak gaitasuna eraikitzea eskatzen duena ezagutza espezializatuek mobilizatzen dituzten beste ikaskuntza-jarduera bat sekuentzian oinarrituta.

Gaitasunen araberako ebaluazioarekin lotuta, ohar hauek egiten ditugu:

1.- Ebaluazioa, ikuspegi horretatik, ikaskuntzen efektu eta ondorio da. Ebaluazioa ezin da kalifikaziora mugatu; ebaluazioaren azpimultzoa da, informazioa gogoraraztean eta errepikatzean zentratu ezin daitekeena (goi-mailako ordenako gaitasun kognitiboak ebaluatu behar dira), eta proba estandar zorrotzetara mugatu ordez, tresna konplexuagoak eta askotarikoak behar dituena.

2.- Ebaluazioa ikasteko aukera bat izan behar da, eta ez da gaitasun jakin batzuk dituen ikaslea aukeratzeko baliatu behar; aitzitik, ikasle guztiengan sustatzeko balio behar du. Ebaluazioaren dimentsio hezigarria da hori.

3.- Gaitasunen araberako ebaluazioan tresna ugari baliatu eta hainbat eragile tartean sartu behar dira. Ikasleek burututako lanen laginak hartu beharko dira, eta behaketa informazio sistematikoa biltzeko estrategia moduan erabili. Hori erregistro itxiekin (check-list, eskalak, kalifikazio-taulak) edo irekiekin lagundu daiteke, eta irakasleek, ikaskideek, ikasleak berak edo guztiek aurrera eraman ditzakete. Edonola ere, gaitasunaren eskurapenean egiten diren aurrerapenen inguruko informazioa emateko eta hobetzeko bideak proposatu behar ditu.

4.- Ebaluazioa koherentea izan behar da diseinu hezigarriaren gainerako elementuekin, bertan integratuta egon behar da. Horregatik, gaitasunen araberako diseinuekin koherenteagoak diren esperientzia metodologikoak simulazioak, proiektuak, dokumentu-zorroak, etab. dira, eta haiekin lotuta gaitasunen araberako ebaluaziorako oso garrantzitsuak diren ebaluazio-jarduerak daude.

5.- Ebaluazio mota horri esker, ikasleak hobeto antzemango dute zein den euren gaitasun-maila, nola ebazten dituzten ariketak, zeintzuk diren bultzatu behar dituzten indarguneak eta zuzendu beharreko ahulguneak, etorkizuneko ikaskuntza-egoerei aurre egiteko. Horrek autoerregulazio prozesu bat sortzen du, gaitasun oso garrantzitsu bat sortzen duena.

Gaitasunak ebaluatzeko modu onena da subjektua eginkizun konplexu baten aurrean jartzea, hura ulertzea eta ebaztea nola lortzen duen ikusteko, jakinda horretarako ezagutzak, trebetasunak, jarrerak eta pentsamendu metakognitiboa eta estrategikoa erabiliko dituela. Erabilitako ebaluazio-tresnak ezin dira edukien ebaluazio-probetara mugatu; helburuei dagokienez, hainbat egoera bereziki garrantzitsu proposatu behar dira, zeinen bidez ikasleak proposatutakoa era egokian ebazteko gaitasunak erakutsiko baititu.

Gaitasunak ebaluatzeko jarduera-adibideen artean, hauek proposatzen ditugu:

- Landutako gaien inguruko proiektuak eta esperientziak
- Autoebaluazioa eta bestelako ebaluazioak egiteko ariketak: kidekoen arteko ebaluazioa, kanpoko ebaluazioak, etab.
- Erregistro itxiak: kontrol-zerrendak, jarrera pertsonal eta taldekoen eskalak. Erregistro irekiak: egunerokoak, anekdota-bilduma, oharrak.
- Simulazio egokiak eta role playing teknikak.
- Kasuak edo problemak ebaztea.

- Behaketa-frogak eta burututako lanen laginak.
- Informazioa aurkitzeko, ateratzeko, antolatzeko eta ebaluatzeko estrategiak garatzea.
- Feedback ariketak: zer ikasten den eta bakoitzak nola ikasten duen ohartzea.
- Lan-saioen aktak, galdetegiak, etab.
- Jardueren eta proposatutako gaitasun-helburuen arteko loturei buruzko txostenak.
- Dokumentu-zorroak egitea. Hau da, ebidentzien bilduma egitea: askotariko dokumentuak, artikuluak, prentsa, publizitatea, web-orrialdeak, oharrak, egunerokoak, kontakizunak, etab., haiekin eraikitzen diren esanahien ondorioz interesgarriak direnak. Dokumentu-zorroaren ezaugarri gisa ikasketa-prozesu ororen bilakaera adierazteko interesa har dezakegu, esperimentazioa, gogoeta eta ikerketa eta arazoak, lorpenak eta gaiak jorratzea areagotuz.

10.1.1.- Ebaluazioaren hasierako proba.

8. puntuan adierazi dugun bezala, DBHn bi eboluzio-une bereizi behar dira: lehenengoa hasierako bi mailei dagokie, eta bigarrena, hurrengo biei. Gida honen zortzigarren puntuan ziklo bakoitza bukatutakoan izan beharreko gaitasunak definitzen dira. Aipatutako ebaluazio-printzipioen arabera, ziklo bakoitzaren hasieran ebaluazio diagnostikoa egin behar da, ikasleriak sexualitatearen inguruan dakiena eta jakin nahi duenaz ohartzeko. Hori banaka eta ondoren taldean egingo den gogoeta baten bidez egingo da, geroko lanerako alderdi garrantzitsuenak lortzea eta aukeratzea ahalbidetuko duena.

Hasierako ebaluazioaren fitxa, eskola esparruko sexu-hezkuntzarekin lotutakoa

Zer dakit eta zer jakin nahi dut giza sexualitateari buruz?

LANERAKO GIDOIA:

1.- Irakasleak aurkezten duen lanerako plana hurrengo denbora-tartean ematen den sexu-hezkuntzaren araberakoa izango da: lehenengo eta bigarren mailak, edo hirugarren eta laugarrenak. Giza sexualitatearen diziplina anitzeko izaera ikusita, eduki nagusiak hurrengo mailetako ezagutza-arloetan aztertuko dira. Hala ere, interesen, helburuen eta lehentasunen diseinuan ikaslearen partaidetzak duen garrantzia azpimarratuko da. Hori da jarduera ebaluatzaile horren funtsa.

2.- Ikasleriaren lan pertsonala: dokumentu batean data, sexua eta adina idatzi eta sexualitateari buruz dakiten eta jakin nahi luketen guztia paperean jarri behar dute: zeintzuk dira sexualitatearen inguruan dituzun ezagutzak? zer jakin nahi zenuke gaiaren inguruan? nola gustatuko litzaizuke lan egitea? zein uste duzu izango litzatekeela lan hori ebaluatzeko metodo egokiena? Egin ezazu zure ustez, programa hobeto garatzen lagundu dezakeen beste iradokizunen bat.

3.- Taldeko lana: 4-6 pertsonako taldetan, kide bakoitzak idatzitako gaiak partekatzen dira. Behin hori eginda, taldearentzat interesgarrienak diren hamar gaiak aukeratuko dira eta bozeramaile batek zerrendatuko ditu, gelako taldeari emateko eta horri buruz hitz egiteko. Taldea gaiak diziplinaka sailkatzen saiatuko da: zientziak, gizarte-zientziak, hizkuntzak eta literatura, herritartasunerako etika eta hezkuntza.

4.- Partekatzea: talde bakoitzeko bozeramaileak aukeratutako gaiak aurkeztu eta komentatuko ditu eta galde-eskeak egingo dira.

5.- Ondorioak eta eskolan egindako lanak jasotzea, bai bakarkakoak bai taldekoak ere. Ikasleriari azalduko zaio bildutako informazioa garrantzitsua dela sexu-hezkuntzarekin lotutako jarduerak gauzatzeko eta haien segimendua egiteko. Xedea da euren interesak eta desioak ezagutzea, egokiagoak diren jarduerak behar bezala lantzeko. Informazio hori ikastetxeetara bidaliko da, gaiak programazioetan eransteko.

Era berean, oinarrizko gaitasunen garapena ere helburuen artean dagoela azpimarratuko da: kultura zientifikorako gaitasuna, osasunaren gaineko kontrola areagotzeko eta hura hobetzeko; ikasten ikasteko gaitasuna, egungo sexu-errealitatearen konplexutasunari aurre egiteko; hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna, pentsatzeko modu koherenteagoak bereganatzeko eta adierazpeneko eta azalpeneko ahalmen handiagoa izateko; informazioa tratatzeko gaitasuna, sexualitatearen inguruan landutako kontzeptu zientifikoak hobeto irudiztatzeko eta irudikatzeko; gizarte- eta hiri-gaitasuna, elkarbizitza hobeagoa izateko eta sexua edo generoaren ondoriozko diskriminazio oro saihesteko; kultura artistikorako eta humanistikorako gaitasuna, bizitzaren elementu arrazional eta emozionalak integratzen jakiteko; norberaren autonomia eta ekimenerako gaitasuna, zainketa-ohiturak, gorputz-osasuna eta ongizate pertsonala sustatzeko.

10.1.2.- Ebaluazio prozesuala eta formatzailea

Aurrez aipatu dugun moduan, ebaluazio prozesuala zeregin edo jarduera bakoitza bukatutakoan egingo da. Haren xedeak dira erdietsitako helburuen berri ematea, eta ikaskuntza arazoak non eta zer mailatan dauden ohartzea, hezkuntza-estrategia berriak eta arrakastatsuagoak bilatzeko aukera emanez. Hezkuntza-programaren garapenari etengabeko feedbacka ematen dio.

Aintzat hartu behar da jarduerak egin bitartean ikasleek duten jarrera: gogoeta egiteko, elkarlanean aritzeko eta besteen jarrerak errespetatzeko ahalegina. Ikasle bakoitzaren nortasuna ebaluatzerakoan, gogoan izan beharko genuke desberdintasun batzuk daudela. Euren nortasuna dela eta, batzuei gehiago kostatzen zaie klasean hitz egitea, eta koadernoan, idatziz, askoz hobeto adierazten dira. Zentzu horretan, ez litzateke modu artifizial eta homogeizatzaile batean bortxatu behar ikasleen partaidetza.

Egindako jardueren ebaluazioa:

Ikasleentzako ebaluazio-galdetegia

Balora itzazu 1etik 5era (1 = ez nago batere ados; 5 = erabat ados nago) hurrengo item hauek.

1.- Taldeak onartu eta errespetatu egin nau.	1	2	3	4	5
2.- Taldean, guztiok onartzen eta errespetatzen dugu elkar.	1	2	3	4	5
3.- Besteen esanak entzun ditut.	1	2	3	4	5
4.- Besteek entzun dituzte nire esanak.	1	2	3	4	5
5.- Interesarekin hartu du parte saioetan.	1	2	3	4	5
6.- Taldeak jarduera guztietan hartu du parte.	1	2	3	4	5
7.- Egindako jarduerak gogo-pizgarriak eta biziak izan dira.	1	2	3	4	5
8.- Denboraren banaketa egokia izan da.	1	2	3	4	5
9.- Erabilitako materiala eta baliabideak onak izan dira.	1	2	3	4	5
10.- Landutako gaiak baliagarriak izango zaizkit bizitzan.	1	2	3	4	5
11.- Orain, gaitasun handiagoa dut nire arazo afektibo-sexualei erantzuteko.	1	2	3	4	5
12.- Irakaslearen jokabidea positiboa izan da.	1	2	3	4	5
13.- Hau da jardueran ikasi dudana:					
14.- Hau da gutxien gustatu zaidana:					
15.- Hurrengorako, hauxe proposatuko nuke:					

Irakasleentzako ebaluazio-galdetegia
Data: Zentroa: Maila: Jarduera: 1.- Jardueraren bilakaeran gertatu denaren deskribapena: 2.- Egindako lanari dagokionez, hauek dira azpimarratu beharreko alderdi positiboak: 3.- Hurrengo jardueretarako, alderdi hauek hobetu beharko lirateke:

10.1.3.- Amaierako ebaluazioa edo ebaluazio sumatiboa

1.- Sexumuxu programari buruz ikasleek egin beharreko ebaluazioa

A modalitatea:

1. Azal ezazu programak zenbateraino bete dituen zure itxaropenak.Uste duzu ikasitakoa zure etorkizuneko bizitzan baliagarria izango zaizula?.

2. Programa bere osotasunean hartuz, izan al da bereziki interesgarria iruditu zaizun gairik?. Programaren gairen bat txertatuko zenuke? Edo baten bat ezabatuko?. 3. Oreka egokia egon al da programaren alderdi teorikoen eta praktikoen artean, ala haietako bati denbora gehiago eskaini beharko litzaioke?. 4. Zer iritzi duzu programan parte hartu duten irakasleen inguruan? Azalpen argiak eman al dituzte? Argitu al dituzte planteatutako zalantzak? Partaidetza sustatu al dute? Hobetzeko iradokizunik bai?. 5. Interesgarriak iruditu al zaizkizu jardueren euskarri gisa erabilitako materialak?. 6. Zer irizten diozu programa honetan egin duzun lanari?.Zein alderdi positibo azpimarratuko zenituzke?. Eragozpenen artean, zein izan dira nagusiak?. Zure ustez, zeintzuk izan dira lana taldean egitearen abantailak eta desabantailak?. 7. Nahi izanez gero, egin ezazu programa hobeto garatzen lagun dezakeen beste iradokizun bat.

B modalitatea:

Balora itzazu 1etik 5era (1 = ez nago batere ados; 5 = erabat ados nago) hurrengo item hauek.					
1. Zure ustez, bete dira ikasturtearen hasieran planteatutako helburuak.	1	2	3	4	5
2. Orokorrean, landu ditugun gaiak erabilgarriak izango zaizkigu bizitzan.	1	2	3	4	5
3. Edukiak modu argian azaldu dira.	1	2	3	4	5
4. Aurkeztutako eta landutako materialak onak izan dira.	1	2	3	4	5
5. Egindako jarduerak egokiak izan dira gaitasunak eskuratzeko.	1	2	3	4	5
6. Irakasleek ondo menderatzen dute gaia, eta gaitasunak garatzen lagundu digute.	1	2	3	4	5
7. Orain, gaitasun handiagoa dut nire arazo afektibo-sexualei erantzun egokia emateko.	1	2	3	4	5
8. Orain, gaitasun handiagoa dut sexu- edo genero-diskriminazioko egoerak eta jarrerak salatzeko.	1	2	3	4	5
9. Nire ustez, motibazio, parte-hartze eta interes egokiak izan ditut jardueretan.	1	2	3	4	5
10. Nire ikaskideen parte-hartzea eta interesa onak izan dira.	1	2	3	4	5
11. Programari dagokionez, ondorengo jarduera hauek nabarmenduko nituzke (zergatia adierazi):					
12. Gutxien gustatu zaizkidan jarduerak hauek dira (zergatia adierazi):					
13. Programa hobetzeko, hauxe proposatuko nuke (zergatia adierazi):					

C modalitatea:

- EGINDAKO LANARI BURUZKO KOADERNO PERTSONALA EGITEA (EGUNEROKOA, DOKUMENTU-ZORROA…). Azpimarratu beharra dago hori guztia lan-saioetan landutakoaren inguruko gogoeta egiteko eta finkatzeko tresna bat izan behar dela, eta ez izapide soil bat. Positiboki baloratu behar da gaiotan sakontzeko ahalegina, konplexuak eta askotarikoak baitira planteamenduak. Ateak ireki behar zaizkio alderdi horien gaineko elkarrizketari eta gogoeta pertsonalari.

2.- Sexumuxu programari buruz irakasleek egin beharreko ebaluazioa

1. Azal ezazu programak zenbateraino bete dituen zure itxaropenak. Uste duzu landutakoa baliagarria izango zaiola ikasleriari etorkizunean?.

2. Programa bere osotasunean hartuz, izan al da bereziki interesgarria iruditu zaizun gairik?. Programan gairen bat txertatuko zenuke? Edo baten bat ezabatuko?.

3. Oreka egokia egon al da programaren alderdi teorikoen eta praktikoen artean, ala haietako bati denbora gehiago eskaini beharko litzaioke?

4. Zer iritzi duzu programan parte hartu duten ikasleen inguruan? Argitu al dituzte planteatutako zalantzak?. Nolakoa izan da eskoletako parte-hartzea?. Hobetzeko iradokizunik bai?.

5. Interesgarriak iruditu al zaizkizu jardueren euskarri gisa erabilitako materialak?

6. Zer irizten diozu programa honetan egin duzun lanari? Zein alderdi positibo azpimarratuko zenituzke?. Eragozpenen artean, zein izan dira nagusiak?. Zure ustez, zeintzuk izan dira lana taldean egitearen abantailak eta desabantailak?

7. Nahi izanez gero, egin ezazu programa hobeto garatzen lagun dezakeen beste iradokizun bat.

11.- Bibliografia

Borrillo, D. (2001). *Homofobia*. Barcelona: Editions Bellaterra.

Era-Berri, C. d. A. S. (2000). *Unidades Didácticas de Sexualidad*. Vitoria-Gazteiz.

Gómez Zapiain, J., Ibaceta, P., y Pinedo, J. A. (2000). *Programa de educación afectivo sexual, Uhin Bare. Educación Secundaria Obligatoria.* Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

Gómez-Zapiain, J., Del Campo, A., Inza, A., y Ibaceta, P. (2004). *Ente mocedá. Programa de Educación afectivo-sexual.* Oviedo: Gobierno del Principado de Asturias.

Gómez-Zapiain, J. (2009). *Apego y sexualidad. Entre el vínculo afectivo y el deseo sexual*. Madrid: Alianza Editorial.

Gómez-Zapiain, J. (2005). Aproximación a los comportamientos sexuales y de riesgo en la adolescencia. EIn A. S. Rathus, J. S. Nevid y L. Fichner-Rathus (Eds.), *Sexualidad Humana* (pp. 289-292). Madrid: Pearson-Prentice Hall.

Gómez-Zapiain, J. (2005). Apego y comportamiento sexual en la adolescencia, en relación con la disposición a asumir riesgos asociados a la experiencia erótica. *Infancia y aprendizaje, 28*(3), 293-308.

Harimaguada, C. (1994). *Materiales Curriculares "Innova". Cuadernos para la Coeducación (Infantil, Primaria y Secundaria)*. Canarias: Gobierno de Canarias. Consejería de Educación, Cultura y Deportes. Dirección General de Ordenación e Innovación Educativa.

Harimaguada., C. (2007). *SEXPRESAN. Multimedia para la Educación Afectivo-Sexual*. Canarias.

Lameiras Fernández, M. R. C., Yolanda; Ojea Rúa, Manuel; Dopereiro Rodríguez, Margarita. (2004). *Programa AGARIMOS, Programa coeducativo de desarrollo psicoafectivo y sexual.* Madrid.

Loizaga, F. (2008). *Nuevas técnicas didácticas en educación sexual*. Madrid: Mac Graw Hill.

López Sánchez, F., Carpintero Raimúndez, E., Del Campo Sánchez, A., Lázaro Visa, S., y Soriano Rubio, S. (2006). *Programa BIENESTAR; El bienestar personal y social y la prevención del malestar y la violencia.* . Madrid.

López, F (1995). *Educación sexual de adolescentes y jóvenes.* Madrid: Siglo XXI.

López, F (1999). *La inocencia rota*. Barcelona: Editorial Océano S.L.

López, F., y Fuertes, A. (1989). *Para comprender la sexualidad.* Estella, España: Verbo Divino.

López, F. (2005). *La educación sexual*. Madrid: Biblioteca Nueva.

López, F. y Del Campo, A. (1999). *Prevención de los abusos sexuales en menores*. Salamanca: Amarú.

Money, J., y Ehrhardt, A. E. (1982). *Desarrollo de la sexualidad humana. Diferenciación y dimorfismo en la identidad de género.* Madrid: Morata.

Urruzola, M.J. (1991). (1996). *Aprendiendo a amar desde el aula: Educación secundaria*. Bilbao: Maite Canal.

Urruzola, M.J. (1991). *¿Es posible educar en la actual escuela mixta? Una programación curricular de aula sobre las relaciones afectivas y sexuales*. Bilbao: Maite Canal, D.L.

Urruzola, M.J. (1991). (1992). *Aprendiendo a amar desde el aula. Manual para escolares*. Bilbao: Maite Canal.

Urruzola, M.J. (1991). (1992). *Guía para chicas*. Bilbao: Maite Canal.

Urruzola, M.J. (1991). (1996). *Aprendiendo a amar desde el aula: Educación secundaria*. Bilbao: Maite Canal.